



Amesgaiztoa

Egunkaria auziko epaiketaren kronika



Pello Urzelai

berria

Egilea: Pello Urzelai

@ 2010 BERRIA

Azala eta maketazioa: Pilar Eraunzetamurgil

ISBN: 978-84-936037-79

Lege gordailua: SS-872-2010

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak

Amesgaiztoa

Egunkaria auziko epaiketaren kronika

Pello Urzelai

Ametsa da gure indarra

Urteak daramatza euskalgintzak amets egiten, urteak amets galduaren, amets ezinaren bila. Ederki kostata lortzen ditu egistamoak, lortzen dituenean.

Amets egin zuen Lizardik euskarazko egunkariarekin, eta harekin batera zebiltzan orduko euskaltzaleek. Amets egin zuten 80ko hamarkadan euskaltzale askok, euskarazko egunkari bat posible ote zen, eta amets horri edukia eman zioten 1990eko abenduan, Durangoko Azokarekin batera: *Euskaldunon Egunkaria* kalean zen, Zarauzko poetak uste eta nahi baino dextente denbora gehiago pasata.

Amets egin genuen, egin zuten, lehen egun haietan, langileok, irakurleek eta erosleek. Eta “hori ametsa da” esan ondotik, “esku artean sekulakoa daukagu” esatera ohitu ginen; ametsa utzi eta konpromisioa, profesionaltasuna, kalitatea... halako hitzek hartu zituzten gure hizketaldi eta idazkiak.

Horrelaxe, beti irakurleei produktu onak eta erakargarriak emateko ahaleginean iragan genituen urteak. Pixkanaka, gure neurrian, haziz joan zen errealitate hura, kuantitatiboki eta kualitatiboki. *Egunkaria* erreferentzialtasuna irabaziz joan zen; euskara hutsezkoa izateagatik baino gehiago, beste arrazoi batzuegatik hartzen zuen irakurleak, gero eta gehiago. Euskaraz, baina egunkari bat ere bazen.

Zailtasun zorionsu horretan geunden, lanean, munduko edozein egunkaririk dauzkan arazo eta gorabeheretan sartuta, inork espero ez zuena gertatu zen arte, amets hura gaitzotu zuten arte.

Zazpi urte pasatu dira *Egunkaria* itxi zutenetik; pairamenezko urteak izan dira, sufrimenduzkoak, baina baita elkartasunezkoak ere. Neurtu ezin den eta inoiz nahikoa eskertuko ez dugun aldekotasun horrek eramangarriagoa egin du auzipetuon eta kaltetuen zerrenda luzea osatzen dugunon larritasuna.

Absoluzioa etorri da azkenean *Egunkaria*-ren itxieraren auzian, elkartasun ikaragarriari eta gure abokatuek egindako lan ereduagarriari esker.

Zazpi urte horien azken atala jasotzen du esku artean daukazun liburu eder honek, Pello Urzelai *Egunkaria* eta *Berria*-ko kazetariak prestatuta. Egunkariaren dago zentratuta liburua; han gertatutakoak, esandakoak eta bizi izandakoak bildu ditu.

Txindurri lana egin du egileak, oso ohikoa bere eguneroko jardunean, liburua lantzeko orduan. Espainiako Auzitegi Nazionalen egindako epaiketara *Berria*-tik joandako kazetari talde bikain eta berritzailearen buru, behin eta berriro ikuskatu ditu saioen bideoak eta berrirakurri ditu kronikak. Pazientzia handiko lana egin du auzipetuen bizipenak, sentimenduak, beldurrak eta animoak orrialde hauetara ekartzeko.

Ederki asmatu du Urzelaik normalean astuna izaten den materiala —txosten luzeak, oso terminologia sektoriala...— era irakurterrazean eta ulergarrian eskaintzeko orduan; liburuan hasi eta buka aise ibiltzeko moduan. Informazio hutsa eta batzuetan astuna izan litekeena ondo tartekatu du epaiketetan gertatutako pasadizoekin. Horietako batzuen berri, liburuaren probak irakurritakoan jakin dut nik.

Beste modu batera esanda: epaiketan gertatu zen guztia ustez jakin behar genuen auzipetuok askoz ikuspegi zehatzago eta errealagoa daukagu liburua irakurrita.

Ez dezagun ahaztu *Egunkaria* auziko lehen atala epaitu dela bakarrik, itxierakoa. Oraindik auzi ekonomikoa falta da, eta hor ere lana gogotik egin behar da, auzipetuak onik aterako badira. Egon gaitezen erne.

Eta injustizia handi baten biktimak direlako, gogora ekarri nahi ditut, eta protesta egin, espetxean dauden *Egin*-eko arduradunak: Javier Salutregi, Teresa Toda, Jexux Mari Zalakain, Xabier Alegria eta besteak. Horiek ere ez zuketan sekula kartzelan egon beharko.

Martxelo Otamendi
Berria-ko zuzendaria

—Ez zaitetze kezkatu: epaiketa hau irabazi egingo duzue.

Amaitu berri da epaiketa. Azken saioa izan da luzeena. Akusazioetako abokatuak eta fiskalak ondorioen txostenak azaldu dituzte goizean, defentsa abokatuak arratsaldean. *Egunkaria*-ko bost akusatuek —Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga, Martxelo Otamendi eta Joan Mari Torrealdaik— azken hitza hartu dute, eta, euren errugabetasunarekin batera, *Egunkaria*-ren proiektuak utzitako ondarea ere aldarrikatu dute. Torrealdairen azken hitz hunkigarrien ondoren isiltasuna da nagusi. Auzia epaiaren zain gelditu da. Sei saio eta ordu asko, zazpi urteren buruan. Epaimahaiaren inguruan daudenak —auzipetuak, magistratuak, fiskala, akusazioetako abokatuak, defentsa abokatuak— ez dira berriz elkartuko Auzitegi Nazionalako areto blindatuan. Elkar agurtu dute, baita akusatuek eta akusazioetako abokatuak ere. Goizeko saioan, Dignidad y Justicia eta AVTko abokatuak akusazioei eutsiz hitzaldia egin dutenean, akusatuek oharrak hartzen aritu dira, bakoitza bere libretan. Azken hitza hartu dutenean, akusazioen bidegabekeria aurpegiratu diete Dignidad y Justicia eta AVTko abokatuak, haiei so. Agian horregatik, agian gizalege hutsez, elkar agurtu duten une labur horretan, espero ez zituen hitz adeitsu batzuk entzun ahal izan ditu Txema Auzmendik, Antonio Guerrero AVTko abokatuaren ahotik.

—Zorte ona opa dizuet.

Minutu batzuk geroago, Antonio Guerrero bera eta Martxelo Otamendi kalean topatu dira, taxi bat hartu nahian. Elkar agurtu dute berriro. Martxelo Otamendik gogoan zuen, oraindik, azken hitza hartutakoan akuzazioen zereginari buruz egindako gogoeta. Dena den, doluminen kontua etorri zitzaion ahora lehenik. Epaiketako hirugarren egunean, ama hil zitzaiola jakin zuen AVTko abokatuak epaigelan bertan. Orduan, auzipetuak eta defentsa abokatuak izan ziren lehenak hurbiltzen eta doluminak ematen. Hurrengo saiora ez zen joan, eta haren ordezkorekin bidez berriro bidali zizkioten auzipetuek.

—Lehengo eguneko doluminak egiazkoak ziren, sentituak —hasi zuen elkarrizketa Martxelo Otamendik.

—Bai, badakit; nire lankideari emandakoak ere jaso nituen. Eskertzen dizuet.

—Ikusten al gaituzu ETako kide izateko aurpegiarekin? —Martxelo Otamendik, gaia aldatuz.

—Ez. Nabari zaizue ez zaretela ETako kideak. Baina nik nire lana daukat, eta batzuetan delitu baten egile dirudien jendea defendatu behar izaten dut, eta oraingoa akusatatu behar izan zaituztet. Baina ez zaitezte kezkatu: epaiketa hau irabazi egingo duzue.

AVTko abokatuaren aitortpena esanguratsua zen. Ordu batzuk lehenago bost akusatuentzat 14 urteko espetxe zigorra eskatu zuen abokatuak berak ere bazekien absoluzioa baino ez zela posible *Egunkaria*-ren auzian, absoluzioa izango zela epaia. Halaxe izango zen. Baina epaiketa epaiaren zain gelditu zen egunetik, otsailaren 1etik, epaia jakinarazi zen egunera, apirilaren 12ra, egunek luze jo zuten auzipetuentzat. Nahiz eta lasaitasun mezu bat baino gehiago jaso, baita auzitegiaren ingurutik ere.

Epaiketako azken egun hartan, azken saioa amaitutakoan, areto blindatutik irtetera zihoazela, Javier Gomez Bermudez epaimahaiburuak hamar-hamabost eguneko epea aipatu zien auzipetuei. Batzuek ulertu zuten hamar-hamabost egun barru epaia prest egon zitekeela, eta beste batzuek, gutxieneko epea zela. Egunak pasatu eta epaia iristen ez zela ikusirik, urduritasuna areagotuz joan zen auzipetuen inguruan, luzapen hori seinale txarra izan zitekeelakoan. Halako batez, martxoaren 26an, epaimahaia probidentzia bat kaleratu zuen epaia noiz jakinaraziko zuen argi-

tzeko: epaia apirilaren 12an kaleratuko zen. “Gaur etorriko al da?” galdera desagertu zen, baina urduritasuna ez.

Epaia jakinarazteko eguna iritsi zen, eta, ezinegon horren ondorioz-edo, Martxelo Otamendik SMS bat bidali zion bere abokatu Iñigo Iruini, goizean goiz, zortzi eta erdiak aldera. Otamendik bazekien goiz hartan Iñigo Iruin abokatuak, beste auzi bategatik, Auzitegi Nazionalean bertan egon beharra zuela, hain zuzen, Javier Gomez Bermudez epailearekin.

—Egun on, espero dut zu izatea lehena epaia jakiten eta ni bigarrena, eta gero, aita santuak egiten duen bezala, *urbi et orbi* —Martxelo Otamendiren lehen mezua.

—Urduri ikusten zaitut —abokatuaren erantzuna.

—Urduri? Ez al daukat abokaturik onena? Ez daukat dudarik *abstentzioaz*.

—Urduri zaudela garbi dago. Absolutzioa eta abstentzioa nahastu dituzu.

Absolutzioa, ez abstentzioa, iritsi zen ordu gutxi geroago, absolutzioa bost auzipetuentzat, baina ez hori bakarrik: *Egunkaria* ixtea bidegabea izan zela onartzea eta akusatuen tortura salaketan sinesgarritasuna aitortzea ere iritsiko zen 2010eko apirilaren 12ko epaian.

Epaiketara iritsi behar ez zuen auzia

Emaitza jakitearekin batera, lasaitasuna etorriko zen, eta, nola ez, poza ere bai. Baina beste galdera honek erantzunik gabe jarraitzen zuen: nola izan da posible auzi hau epaiketara iristea?

Bost auzipetuak epaitu behar zituen epaimahaiak berak auzitan jarri zuten, 2009ko uztailaren 30eko autoan, epaiketa egin beharraren zuzentasuna. Azken paragafoko tarteki bat zen, baina aski esanguratsua:

“2007an erabaki zen —zuzen edo oker— ahozko epaiketa egitea...”. 2007ko erabaki hura zuzena edo okerra izan ote zen zalantzan jarri arren, aurrera jo eta epaiketa egitea berretsi zuen epaimahaiak 2009ko uztaileko azken aukera hartan.

Javier Gomez Bermudez, Ramon Saez Varcacel eta Manuela Fernandez Prado magistratuek osatutako tribunalak posible ote zuen, 2009ko uztaile hartan, epaiketa ez egiteko erabakia hartzea? Nahi izanez gero, ziurrenik, bai. Defentsak bi arrazoibide proposatu zituen sumarioa behin betiko itzeko, eta fiskala ados agertu zen, 2009ko ekainaren 23an egindako auzi saioan. Batetik, herri akusazioaren zilegitasunik ezean oinarritzea, *Botin auzian* eta *Ibarretxe auzian* bezala. Epaimahaiak, ordea, argudiatu zuen talde armatuekin lotutako akusazioetan herri akusazioaren nahia aski dela epaiketa egin ahal izateko. Defentsak aurkeztutako beste arrazoibidearen arabera, auziaren muina ordurako epaitua zegoen 18/98 auzian. Epaimahaiak ez zuen onartu eskaera; besteak beste, epaitu beharrekoa ez zela “berbera” argudiatuta.

Prozedura judizialaren ikuspuntutik begiratuta, 2009ko uztaileko une hori ohiz kanpokoa izan zitekeen auzi bat ixtea agintzeko, aztergaia epaiketa aurretiko kontuei zegokielako. Baina, arrazoi teknikoek gain, arrazoi politikoren bat ere egon zitekeen epaiketa egiteko erabakian: epaiketa egiteko aginduz, Estatuari erantzukizuna eskatzea eragozten zen. Auzia epaiketara iritsi baino lehenago itxi izan balitz, erabat bidezkoa izango zen Estuari kalte-ordainak eskatzea.

Uztaileko aukera horren aurretik, beste bi aukera izan ziren auzia ixteko. Lehendabizikoa 2006ko urtarrilean izan zen, Juan del Olmo epailearen auzipetze autoari jarritako dei helegitea aztertu zenean. Baina orduan Fiskaltza —Miguel Angel Carballo fiskalak ordezkaturata— auzipetzea berrestearen alde agertu zen, eta zigor arloko 2. sala beste magistratu batzuek osatzen zuten. Kasualitatea izan zein ez, salaren erabakia 2006ko otsailaren 22an jakinarazi zuten, itxieraren hirugarren urteurrenetik bi egunera.

Bigarren aukera, berriz, ahozko epaiketa egin edo ez egin erabakitzeko orduan izan zen. Fiskaltza orduan kontra zegoen. 2006ko abenduaren

14an, Miguel Angel Carballo fiskalak txosten sendo bat aurkeztua zuen, nahiko delitu aztarnarik ez zegoela argudiatuta. Akusazioen oinarri ziren agiri guztiak aztertu eta akusatzeko balio nahikorik ez zutela ondoriozta zezakeen orduan salak, baina ez zuen egin. Bi orriko auto batean, esaldi estereotipatu batzuk osatu besterik ez zuen egin, mamia aztertu gabe. Zer gertatu zen orduan? Javier Gomez Bermudezek, zigor arloko 2. sala-ko presidenteak, beti aldendu nahi izan du erabaki horretatik. Han eta hemen esana du erabaki hori bere borondatearen kontra hartu zela, berak jakin gabe. Teorian, Gomez Bermudezi zegokion erabaki hori hartzea, txostengile gisa, baina garai hartan buru-belarri sartuta zegoen M-11 auziaren epaiketan, eta, *Egunkaria auzia* ez ukitzeko agindua emana bazuen ere, beste txostengile bat *agertu* zen, Nicolas Poveda —joera kontserbadore nabarmeneko magistratua—, eta beste bi magistratuen oniritzia lortu zuen ahozko epaiketa egitea agintzeko. Beste bi magistratuak Manuela Fernandez Prado eta Ramon Saez Varcancel izan ziren, Gomez Bermudezekin batera *Egunkaria auziko* epaimahaia osatuko zutenak.

Zazpi urteko amesgaiztoa

Absoluzioarekin, eta absoluzioa ekarri duen epaiarekin, argi gelditu da *Egunkaria auziak*, juridikoki, ez zuela epaiketara iritsi behar; hau da, agiri zahar batzuen interpretazio maltzurretan oinarrituta hipotesi eta susmo hutsetan eraikitako auzi bat zela. Are gehiago: agerian gelditu da auziak ez zuela inoiz abiatu behar. Baina inork ezin die kendu auzipetuei zazpi urte hauetan bizi izandakoa, zazpi urte iraun duen amesgaiztoa, 2003ko otsailaren 20ko goizaldean burua estalita zeramaten guardia *zibil* armatuen oldarrarekin hasitakoa.

Guardia Zibila etxez etxe joan zen hamar lagun atxilotzera. Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Xabier Oleaga, Pello Zubiria, Fermin Lazkano, Inma Gomila, Luis Goia eta Xabier

Alegria atxilotu eta inkomunikatu zituzten, eta haien etxeak miatu. Lan bulego batzuk ere miatu zituzten, eta, Baionakoa izan ezik, *Egunkaria*-ren egoitza guztiak. Miatu eta zigilatu ere bai, operazioaren helburu nagusietako bat *Euskaldunon Egunkaria* ixtea baitzen, euskarazko egunkari bakarra, 1990eko abenduaren 6an sortua.

2003ko otsailaren 20ko operazio hura —atxiloketak, torturak, itxierak, espetxealdiak, bermeak, kontu blokeoak...— amesgaiztoaren hasiera besterik ez zen izan. 2003ko urriaren 16an, bigarren operazioa iritsi zen, eta Guardia Zibilak zortzi lagun atxilotu zituen: Joxe Mari Sors, Mikel Sorozabal, Joanmari Larrarte, Mikel Azkune, Mikel Arrizabalaga, Xabier Legarra, Angel Diez eta Amando Hernandez. Lau egun geroago, Eneko Etxeberría abokatua atxilotu zuten Auzitegi Nazionalean bertan. Denak aske gelditu ziren, baina batzuk, bermea ordainduta. Auzi ekonomikoaren hasiera izan zen bigarren operazioa.

Lehen operazioko hamar atxilotuetatik zazpi auzipetu zituen Del Olmo epaileak: Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Xabier Oleaga, Pello Zubiria eta Xabier Alegria. Epaiketa egiteko orduan, ordea, Pello Zubiria eta Xabier Alegria auzitik kanpo utzi zituen tribunalak, lehenengoaren kasuan delitua iraungita zegoelako, eta, bigarrenean, akusazio beragatik aurretik epaitua zelako. Bigarren operaziotik eratorritako sumarioan, azkenean, zortzi lagun auzipetu zituen Del Olmo epaileak, 2007an: Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Joxe Mari Sors, Mikel Sorozabal, Ainhoa Albisu, Begoña Zubelzu eta Fernando Furundarena.

Lehendabiziko polizia operaziotik zazpi urtera, amesgaiztoaren amaieraren hasiera iritsiko ote zen jokoan zegoen 2009ko abenduaren 15ean hasitako epaiketan. Bi sumarioetako hamar auzipetuak erabat jakitun ziren horretaz.

Auzipetuen hitza

Azkenean, akusatuen aulkian

“Nahi nuke zure hitz-jarioa izan”, aitortu zion Iñaki Uriak Mariano Ferrer kazetariari, Auzitegi Nazionalan sartu baino minutu batzuk lehenago. Epaiaketako lehen eguna zen, auzipetuek deklaratu behar zuten eguna. Eta Iñaki Uriak deklaratzeko lehen izango zen. Auzipetuak urduri eta kezkatuta zeuden. Gutxi lo eginda, tentsioan. Eta zalantzez beteta: akusatuen aulkian jarrita nola erreakzionatuko ote zuten; fiskalak zein jarrera izango ote zuten epaigelan; epaimahaiburua zenbat eta zertaz hitz egiten utziko ote zieten.

Baina ez zeuden bakarrik. Senideak ondoan zituzten. Haiekin batera bezperan egin zuten Madrilerako bidaia, eta haiekin batera zeuden ostatu hartuta hotel berean. Andoingo Martin Ugalde kultur parketik abiatu ziren, bertako lankideen agurra eta babesa jasota. Epaiaketaren hasiera hartan, babesa ez zitzaien falta. Madrileraino bidaiatu zuten Euskal Herritik euskalgintza, sindikalismo, politikagintza eta kazetaritzako hainbat ordezkari. Haiekin elkartu ziren Auzitegi Nazionalaren kanpoaldean. Goiztiarrenekin, Riofrio kafetegian. Han ikusi zituzten gosaltzen Baltasar Garzon epailea eta Olga Sanchez fiskala, *Egunkaria* auziko lehen fiskala. Gainerakoekin, kalean batu ziren, Genova kalean. Han bertan egin zuten euskal gizartearen sostengua irudikatuko zuen argazkia. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia eta Mariano Ferrer kazetaria izan ziren ordezkariak haren eleduak. Horien azalpenak entzun ondoren izan zuten Iñaki Uriak Mariano Ferrer irrati-gizonaren hitz-jarioaren inbidia.

Iñaki Uriarena, lehena eta luzeena

Bost auzipetuen hitza entzun zen epaiketako lehen saioan, goizez eta arratsaldez. Irmo hitz egin zuten akusazioak ukatzean, eta dardarti bost eguneko inkomunikazioan jasandako tratua azaltzeko garaian. Defentsa abokatuen galderei erantzunez, gogora ekarri zuten *Euskaldunon Egunkaria*-ren historia, izena eta izana: sorrera, izaera zabala eta independentea, zailtasun ekonomikoak, izendapenak, erronkak, lorpenak... Dena den, abokatuen galdeketaren zati handi bat nahiko zehatza izan zen, akusatu bakoitzaren kontrako akusazioak ezeztatzea bideratuta.

Iñaki Uriak izan zen lehena. Egun, Hamaika Telebistako zuzendari nagusia da. Guardia Zibilak 2003ko otsailaren 20an atxilotu zuenean, Egunkaria SAko kontseilari ordezkaria zen. *Egunkaria*-ren sorreraren bultzatzaileetako bat izan zen, Egunkaria Sortzen-eko kide eta *Egunkaria* kaleratu zenean zuzendariordeetako bat. 1992an zuzendari izendatu zuten, eta geroago, 1993an, kontseilari ordezkaria. Iñaki Uriak Medikuntza ikasketak hasi zituen Iruñean, baina bide hori alboan utzi zuen euskalgintzan murgiltzeko. Aldaketa horretan, besteak beste, Joxemiel Barandiaranen itzala aipatu ohi du Iñaki Uriak. Halaxe egin zuen tribunalaren aurrean ere. “Iruñean, medikuntza ikasten ari nintzen bitartean, Joxemiel Barandiaranen etnografia ikastaroetan parte hartu nuen, eta, azkenean, bide horrek gehiago erakarri ninduen”. Horrela, Euskal Filologia ikasten hasi zen, eta *Susa* literatur aldizkariaren sorreran parte hartu zuen. Halaber, *Argia* aldizkariko erredakzio taldean sartu zen, eta bertan jarraitu zuen *Egunkaria* sortu arte.

Dignidad y Justicia elkartearen izenean osaturiko herri akusazioko Vanessa Santiago Ramirez abokatuak hasi zuen galdeketa.

—Nola hasi zinen *Egunkaria* egunkariarekin lotura izaten? —izan zen Dignidad y Justicia elkarteko abokatuaren lehen galdera.

—Ez diet erantzungo Dignidad y Justiciaren galderei, ezta AVTrenei ere... Uste dut bidegabea izan dela egin dutena...

Gomez Bermudez epaimahaiburuak ez zion utzi azalpenarekin jarraitzen, “zure eskubidea da ez erantzutea” esanez, eta Dignidad y Justicia elkarteko abokatuari itzuli zion hitza, prestatutako galderak irakur zitzen. Guztira, berrogei galdera irakurri zituen. AVT elkarteko abokatuak, berriz, hamazazpi bakarrik. Ondoren, epaiketaren galdekizun garrantzitsuetako bat argitu zen.

—Fiskaltzak galderarik egin nahi du? —Miguel Angel Carballo fiskalari eman zion hitza epaimahaiburuak.

—Salaren baimenarekin, ez dago galderarik.

Defentsen galderen txanda Joan Mari Torrealdairen abokatu Felix Cañadak hasi zuen, galdera bakarra eginez: ea administrazio kontseiluko lehendakariaren eta idazkariaren karguak ordainduak ote ziren. Ezetz erantzutearekin batera, Iñaki Uriak argitu zuen gaztelaniaz erantzungo zuela, euskaraz baino traketsago ibili arren. Uriak bezala, beste auzipe-tuek ere uko egin zioten Auzitegi Nazionaleko interpreteen zerbitzuari.

Iñaki Uriaren defentsan, Jose Maria Elosua abokatuak hartu zuen hitza galdeketa egiteko. Haren ibilbidea eta curriculuma aurkezteko bideratuta-ko lehen galdera sortaren ondoren, akusazioen faltsutasuna agerian uzteko lanari ekin zion. Jakinik Dignidad y Justicia eta AVT elkarteen akusazioen idatzian *Argia* aldizkaria ETaren orbitan kokatzen zutela, Jose Mari Elosua defentsa abokatuak egoki iritzi zion garai haietaz galdetzeari.

—*Argia* aldizkari ideologizatua zen?

—Ez, eta ezin zen izan. Kontuan hartuta garai hartan euskaraz jende gutxi zegoela alfabetatuta, aurrera joateko denengana iritsi behar genuen.

—*Argia* kaputxinoek sortu zuten, 1919an; gaur egun merkatuan jarraitzen du?

—Bai, bai. Astero argitaratzen da.

—Badakizu deialdi judizialik izan duen edo haren jarduerari murrizpe-nen bat jarri zaion?

—Ez, inoiz ez.

—Kaputxinoek zergatik utzi zuten aldizkaria?

—Krisi garaiak ziren, eta haiek ez zeuden oso prest jarraitzeko ordurako izaera erlijiosoa galduta zeukan aldizkari batekin.

- Kaputxinoek utzi egin zuten. Nork hartu zuen *Argia*?
- Bertan lanean ari ginenok. Han zeuden Elisabete Garmendia, Pilar Iparragirre, Lurdes Auzmendi... Josu Landa, Joxemi Zumalabe, Pello Zubiria eta laurok ginen gazteenak.
- Lan sozietate anonimo bat sortu zenuten?
- Bai, 1986an.
- Aldizkariaren ildo informatiboa aldatzea ekarri zuen horrek?
- Ez.

Argibide horiek emanda, defentsa ahalegindu zen erakusten euskarazko egunkari baten sorrerak erro sakonak zituela euskal gizartean, eta 80ko hamarkadako eztabaidagai nagusietako bat izan zela. Horretarako, harira ekarri zituen *Argia*-ren 1984ko urtekaria eta *Jakin* aldizkariaren 1995eko ale berezia. Halaber, Iñaki Uriak gogora ekarri zuen egunkari itxurako astekariak kaleratzeko Eusko Jaurlaritzak 1986an antolatu zuen lehiaketa. Lehiaketa hartatik sortu ziren *Hemen* eta *Eguna* astekariak, hurrenez hurren *Egin* eta *Deia*-ren argitaletxeek kaleratu zituztenak, 1986ko irailetik 1990eko irailera arte. Bien bitartean, Egunkaria Sortzen osatuz joan zen.

- Egunkaria Sortzen izango zenaren lehen deialdia Euskal Kulturaren Batzarretik (EKB) etorri zen?
- Bai. Haren zuzendaritza taldeak antolatu zuen bilera bat, mahai-inguruetan zegoen mugimendu hura proiektu batean gorputz zedin.

Paulo Agirrebaltzategi frantziskotarra zen EKBko lehendakaria, eta Joxemi Zumalabe lehendakariordea. Iñaki Uria Donostiako Barandiaran Lizeoan egindako bileran hasi zen harremanetan proiektuarekin. Geroago, Donostiako Euskal Txokoan egin zen bileran, talde bateragilea eta kazetaritza proiektua eta proiektu ekonomikoa lantzeko batzordeak osatu ziren. Garai hartan, 70 lagun inguru biltzen ari ziren Egunkaria Sortzen-en inguruan. “Euskararen munduaren aniztasuna erakutsi ahal zuen jendeak osatzen zuen”, gogorarazi zuen Iñaki Uriak.

Egunkaria proiektuaren egitura juridikoa eta haren zergatia azaldu zuen Iñaki Uriak. “Egunkaria Sortzen hasieran kultur elkarte bat zen, sozietate mugatu bihurtuko zena eta sozietate anonimo batean parte har-

tuko zuena. Sozietate anonimoa hiru zutabetan oinarritzea zen filosofia: alde batetik, Egunkaria Sortzen, *Egunkaria*-ren hamaika oinarri fundatzaileak zaindu behar zituen; bestetik, kultur munduko enpresak, liburu eta diskoen argitaletxeak esaterako; azkenik, proiektuan parte nahi zuten partikularrak”.

Hamaika oinarriak aipatu ahala, azaltzeko eskatu zion abokatuak Uriari. “Oinarritzko printzipio batzuk egin ziren. Durangon onartu ziren, eta hitzaldien bidez jakinarazi ziren. Oinarri horien arabera, *Egunkaria*-k euskaltzalea izan behar zuen, nazionala —hau da, euskararen lurralde osoa bilduko zuena—, zabala, plurala, baterakoia, ez instituzionala... Jaurlaritza egunkari publiko bat izatea proposatzen ari zen, eta guk ez genuen ongi ikusten European egunkari publiko bat egotea. Beraz, ez zuen instituzionala izan behar, baina diru laguntza publikoak jaso behar zituen. Halaber, militantea, profesionala eta independentea izan behar zuen. Esaten genuen independentea izan behar zuela alderdi politikoetatik eta independentea gaztelaniazko hedabideetatik. Azkenik, modernoa eta gaurkotua izan behar zuela ere esaten genuen”.

Ezinbestean, *Egunkaria*-ko zuzendarien izendapena eta karguen hautaketa izan zen epaiketako gai nagusietako bat, akusazioen arabera izendatze horien atzean ETA zegoelako, ETARI atzemandako agiri batzuen interpretazioa zela medio. Dokumentu horiek *Egunkaria*-ri buruzko zenbait gorabehera dute hizpide: lehen zuzendariaren izendapena, diru bilketa, sorrera data, hirugarren zuzendariaren izendapena... Carmen Gisasola, Txomin Aizpuru eta Jose Maria Dorronsoro atxilotzeko operazioetan atzeman zituen Poliziak, 90eko hamarkadaren hasieran.

Beste akusatuek bezala, luze hitz egin zuen Iñaki Uriak izendapen horien inguruan. Joxemi Zumalabereren eskutik jaso zuen zuzendariorde izateko proposamena. “Kontseiluan aztertu zutela esan zidan, eta ea izan nahi nuen. Gustura onartu nuen”. 1990eko urriaren hasieran izango zen. Garai hartan bazekien zuzendari izateko hamar bat hautagai zeudela eta ez zela erraz gertatzen ari baiezeko bat lortzea. “Nahiko jakinekoea izan zen lehen zuzendaria aurkitzeko nolako zailtasunak izan ziren”. Jakina denez, ordu arteko *Argia*-ko zuzendari Pello Zubiria izan zen *Egunkaria*-ko lehen zuzendaria. Eta Iñaki Uriak bera bigarrena, 1992ko maiatzetik aurrera.

- Nork aukeratu zintuen zuzendari?
- Administrazio kontseiluak.
- Akziodunen batzarrak berretsi zuen?
- Halaxe da.
- Izendapen horren berri eman zen?
- Bai. *Staff*-ean agertu zen.

Iñaki Uria urtebete inguru izan zen zuzendari. 1993ko maiatzetik aurrera Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkari bihurtu baitzen, Joxemi Zumalabek utzitako hutsunea betetzeko. Joxemi Zumalabe 1993ko urtarrilaren 12an zendu zen, gaixotasun baten ondorioz. “Joxemi Zumalabe hil zenean”, gogorarazi zuen Uriak, “administrazio kontseiluak gaia aztertu zuen, eta lehenik Joan Mari Torrealdairi proposatu zioten kargua; ez zuen onartu, eta niri proposatu zidaten”.

Ondorioz, beste zuzendari bat bilatu behar zen. Prozesu hura azaltzeko eskatu zion Elosua abokatuak Iñaki Uriari. “Lehenik, egunkariaren barruan begiratu genuen. Imanol Muruari proposatu genion zuzendari izatea. Harekin aritutakoa nintzen; oso irudipen ona nuen, eta konfiantza ematen zidan. Oraindik gazteegi ikusten zuen bere burua kargua hartzeko. Hark jakinarazi zigun Martxelo izan zitekeela. Joan Mari Torrealdairi eta kontseiluari aipatu zitzaian, eta Martxelorekin egon ginen. Juan Mari eta biok egon ginen Martxelorekin”. Bazkari hura 1993ko otsailaren amaieran izango zen. Otamendik baiezkua eman zuen, baina denbora eskatu zuen kargua hartzeko, ETBn ari zelako lanean.

Akusazioen aldetik auzitan zegoen beste kontratazio bat Xabier Oleagarena zen. 1995. urtearen hasieran izan zela gogoan zuen Iñaki Uriak. Izan ere, *Egunkaria*-ra joateko proposamena berak egin baitzion. “Elkarrekin egoten ginen, eta esan zidan libre geldituko zela. Nik banekien Imanol Muruak utzi egin behar zuela, eta hitz egin genuen izan zitekeela. Aurrerago, orduko zuzendari Martxelo Otamendirekin hitz egin nuen; kontseiluarekin komentatu genuen, eta eskaini egin genion”.

- Egunkaria*-k ildo editorial jakinik izan du?
- Hamaika oinarriak betetzen ziren aldetik. Halaber, estilo liburu bat izan zuen, euskal hedabide batek egin zuen lehendabizikoa. Dena den, ez

geneukan jarrera editorialik. *Egunkaria* txikiegia zen, jarrera ideologiko sendo bat eduki ahal izateko. Grisak izatea lehenetsi genuen, distiratsuak izan ordez.

—Neutroa orduan?

—Ez dakit hori den hitza. Hamaika oinarrirei eutsi egiten genien, beti euskararen alde, euskal kulturaren alde.

Akusazioek hasieran irakurritako galderetako gaiak kontuan hartu zituen defentsa abokatuak, zirrikiturik ez uzteko asmoz. 1997ko otsailaren 22an, ETaren Alternatiba Demokratikoa publizitate enkarte moduan argitaratu izana azaldu zuen Iñaki Uriak. Publizitate enkargu bat izan zen, ohikoa izaten zen enkartearen sistemaren bidez: paper berezi batean egindako inprimakia, egunkaria inprimatu ondoren barruan txertatzen zena. HBk kontratatu eta ordaindu zuen publizitate hura. ETaren agiriak argitaratzeko gaia ere aipatu nahi izan zuen Jose Maria Elosua abokatuak.

—*Egunkaria*-k ETaren agiririk argitaratu du?

—Bai, 1996tik aurrera agiriak argitaratu ziren.

—Noiz hasi zen argitaratzen?

—1996an hasi ziren iristen, ez bakarrik *Egunkaria*-ra. ETBra eta *Deia*-ra ere iristen hasi ziren. Ez dakit Herri Irratira ere iristen ziren... Interes informatiboagatik argitaratu ziren.

Galdeketan, KASi eta ETArri egotzitako dokumentuen filtrazioen gaia ere aipatu zuten. Lehendabizikoa 1991ko uztailean agertu zen, ETBren bidez. Handik hamabost egunera, *El Periódico de Cataluña* egunkariak ere jorratu zuen gaia.

—Nola erreakzionatu zenuten horrelako informazioak argitaratu zirenean?

—Zalaparta handia izan zen. *Egunkaria*-ren kontra zetorren zerbait zen, gure independentziaren kontra eta ETArekin lotzea lortu nahi zuena, gezurra zena. Min egiteko ari zirela ikusten genuen. Kontseiluak erreakzionatu egin zuen. Lehenik, dokumentu haiek eskuratzen saiatu zen, ea zer ziren. Joxemi Zumalabe ETBra joan zen; haiekin hitz egin zuen, eta dokumentuak lortzen saiatu zen. Ez zizkioten eman: erakutsi egin zizkio-

ten, eta ETBtik bertatik telefonoz hots egin zuen, eta *Egunkaria* aipatzen zuten paragrafoak *diktatu* zituen.

—Dokumentu horien kopiarik lortu zenuten.

—Bai, aurrerago, *El Periódico de Cataluña*-n berriro atera zirenean, berriro saiatu ginen, eta ETBko erredaktore baten bidez lortu zen.

—*Egunkaria*-k argitaratu zituen dokumentu haiek?

—Bai, argazki bat argitaratu zuen. Orrialde bat izan zen gaiari buruz, kontseiluaren ohar batekin. Kontseiluaren oharrak zioen gezurra zirela, *Egunkaria*-k eutsi egiten ziela sorrerako oinarriei, eta inork ez zuela kanpotik esku hartu.

Geroago, 1993an, antzeko filtrazio gehiago izan zen. Kultur arloko enpresa batzuk KASekin lotzen zituen agiri bati buruzko albistea argitaratu zuen *El Mundo* egunkariak. “Eusko Jaurlaritzarekin eta EAJrekin harremanetan geunden, diru laguntzei buruzko akordioa lantzen, eta ikusi genuen horrek min egiten zigula. Administrazio Kontseilua saiatu zen lortzen horren atzean zeuden paperak; lortu genituen, eta 1991koak zirela ikusi genuen”.

Iñaki Uriak bi ordu deklaratzeko zeramanean ekin zion Elosua abokatuak azken gaiari: atxilotuta eta inkomunikatuta egon zenean eman zioten tratuari. Iñaki Uriak bazekien abokatuak horretaz galdetuko ziola, baina ez epaimahaiburuak bizi izandakoa kontatzen utziko zionik, ezta zein sentipen etorriko zitzaion ere une horretan. Javier Gomez Bermudez epaileak lasai azaltzen utzi zion, behin ere moztu gabe.

—Amaitzeko, Uria jauna, salari azal diezaiokezu nola atxilotu zintuzten? —galdetu zuen abokatuak, Iñaki Uria trago bat ur hartzen ari zela.

—Etxean nengoen lotan. Goizaldeko ordu batean atea jo zuten; zabaldu nuen eta guardia zibil mordo bat sartu zen, eta igogailuaren ondoan eduki ninduten.

—Guardia Zibilaren egoitzan atxilotuta egon zinenean eman zizuten tratua zuzena izan al zen?

—Torturatu egin ninduten. Hotza egiten zuen, egun hauetakoa bezalako. Ia biluzik eduki ninduten, arroparik gabe; ariketa fisiko pilo bat eginarazi zidaten, izugarria izan zen. Poltsa jarri zidaten behin baino gehiagotan, ia itotzeraino. Pistola bat jarri zidaten buruan, eta klik egin zuten.

Arma infragorridun batekin apuntatu zidaten; kolpeak eman zizkidaten telefono aurkibide baten antzeko zerbaitekin. Bost egun eta bost gau izan ziren, beste pertsona batzuen garrasiak entzuten... Eta lesio batekin irten nintzen. Espetxean egon nintzenean fisioterapeutarengana joan behar izan nuen bospasei hilabetez; ezin nuen ongi zapaldu, tibiako aurrealdeko nerbioa lesionatuta baineukan. Eginarazi zidaten ariketa horietako batean, krak egin zidan. Ezin nuen ongi zapaldu oinarekin.

—Horren berri eman zenion auzitegiko medikuari bisita egin zizunean?

—Bai, kontatu nion zer gertatzen ari zitzaidan.

—Espetxean ere bai?

—Medikuarengana joan nintzen, eta artatzeko eskatu nion. Zorionez, fisioterapeuta zeukan espetxe batean egon nintzen, eta asko lagundu zidan errekeratzen. Egunero, ordubeteko saio batera joaten nintzen, eta mediku haren oroitzapen ona dut.

Ordura arte, tentsioan, ahots tonu apalarekin baina urratu gabe aritu zen azalpenak ematen Iñaki Uria, abokatuaren galderen laguntzaz. Baina sufritutakoaren kontakizuna amaitutakoan azaleratu zen emozioa. Donostiako Auzitegian jarritako salaketaren ibilbidea kontatzeko eskatu zion abokatuak. “2005ean idazkari batek hartu zidan deklarazioa, eta gero, 2007an, epaile batek entzun zuen lehen aldiz nire kontakizuna, 2007an...”, eten zuen narrazioa une labur batez, eta ahots urratuaz osatu: “Lau urte pasatu ondoren”. Abokatuaren hurrengo galderaren denbora arnasa hartzeko baliatu zuen, salaketa zertan amaitu zen kontaktu ahal izateko. Bi guardia zibil inputatu ondoren —diligentzien instruktorea eta idazkaria—, epaileak epaiketa egiteko bidean jarri zuen salaketa, baina auzitegiak Madrilgo Lurralde Auzitegiaren aldeko inibizioa hobetsi zuen. “Behin Madrilera iritsita, berehala artxibatu zen”.

Luzea izan zen deklarazioa: bi ordu luze jo zuen. Zama bat kendu zuen, baina ordura arte pilotutako tentsioak ordaina eskatzen hasiko zitzaion. Ez zuen jardun Mariano Ferrerren hitz-jarioaz, baina deklarazioa ongi joan zen. Mariano Ferrerrek berak hori pentsarazteko arrasto bat eman zion. Goizeko saioa amaitutakoan, Javier Gomez Bermudez epaimahaiburuarekin biltzeko aukera izan zuen Ferrerrek, eta bileran hitz egindakoaren berri eman zion gero Uriari. “Oso sinesgarri ikusi zaitu, eta gizon lasaia zarela iruditu zaio”.

Xabier Oleaga, dataren korapiloa askatuz

Hamar-hamabost minutuko atsedenaldiaren ondoren, Xabier Oleaga eseri zen mikrofonoaren aurrean, deklarazioari ekiteko prest. Bazekien Iñaki Uriari fiskalak ez ziola galderarik egin eta epaimahaiburuak ez zituela eteten azalpenak. Horrek lasaitasun pixka bat ekarri zion.

Xabier Oleaga egun Ikastolen Elkarteko komunikazio aholkularia da. 1997an hasi zen lan horretan, Partaide elkartearen eskutik; hain zuzen ere, *Egunkaria*-n erredaktoreburu bi urtez aritu ondoren. Xabier Oleagak ez zuen parte hartu *Egunkaria*-ren sorreran. Garai hartan *Egin*-eko zuzendaria zen. 1992an utzi zuen kargua, eta erredaktore lanetan jarraitu zuen *Egin*-en, 1995era arte, *Egunkaria*-n sartzeko eskaintza egin zioten arte. Urte askotan Herri Irratiko analista politiko gisa aritu zen goizeko irratsaioan.

Iñigo Iruin defentsa abokatuaren lehendabiziko galderak Xabier Oleagaren lanbideari eta ikastolen munduarekiko harremani buruz izan ziren, baina berehala itaundu zion atxilotetari buruz. 2003ko otsailaren 20ko goizaldean sartu zitzaizkion guardia zibilak Errenteriako etxean, atxilotzera. Miaketa iraun zuen bitartean, ez zioten utzi inolako harremanik izaten etxean zeuden familiakoekin. Handik, bere lan bulegora eraman zuten, Donostiara, Gipuzkoako Ikastolen Federazioaren egoitzara. Xabier Oleagaren mahaia eta 200 metro karratu inguruko mahai guztiak miatu ondoren, Madrilera eraman zuten. Atxilotu zuteneko tratuari buruz galdetu ondoren, Iruin abokatua ahalegindu zen epaimahaiari ohartarazten 60 ordu inguru iragan zirela Guardia Zibilaran Madrilgo egoitzara iritsi zenetik deklarazio polizial ofiziala egin arte.

–60 ordu horietan diligentziarik egin zuten zurekin? –jarri zuen gaia abokatuak.

–Diligentziak egiteak galdeketa batzuk egitea esan nahi badu, bai. Galdeketa ugari egin zizkidaten, ezin konta ahala. Oso une eta egoera ezberdinetan.

—Zer gertatu zen galdeketa haietan?

—Badago tratu txarren salaketa, nik jarritakoa. Lehenik, instrukzio epailearen aurrean. Geroago, Madrilgo Auzitegian aurkeztu nuen. Hor daude jasota nire atxiloketaren gorabeherak. Ariketa fisiko bizi eta errepikatua eginarazi zizkidaten, indarra ahitu arte. Mehatxuak entzuten nituen, zarata beldurgarriak. Bazirudien minezko garrasiak aditzen zirela; ez nekien torturatzen ari ziren pertsonenak ziren edo grabatutakoak. Egunkari bilduen itxura zuen zerbaitekin kolpeak eman zizkidaten. Halako batean biluzi egin ninduten, eta, zenbait agente gurpil baten antzera jarrita, batengandik bestearengana bultzatzen ninduten. *In crescendo* bat izan zen.

—Instrukzio epaileari azaldu aurretik, horren berri eman zenion Guardia Zibilaren egoitzan aldiro bisitatzen zintuen auzitegi medikuari?

—Bai, auzitegiko medikuak egin zidan bisita bakoitzean aipatu nizkion zehatz-mehatz eginarazi zizkidaten saio guztiak. Ez hori bakarrik: behin, nirekin ziegan egondako kide baten kasua aipatu nion, eta esan nion kezkatuta nengoela, nirekin batera ziegan egon zenean, Iñaki Uriaren egoeragatik.

Torturen testigantza laburraren ondoren, abokatuaren galderak Guardia Zibilaren aurrean egindako deklarazioaren edukari buruzkoak izan ziren, Xabier Oleagaren kontrako akusazioen gakoetako bat horretan zegoelako. Deklarazio atipikoa izan zen, galdera bakarrari erantzun ziolarako: noiz sartu zen *Egunkaria*-n.

—Zure deklarazioa libre eta borondatezkoa izan zen?

—Ez, noski.

—Deklarazio hori egin nahi zenuen?

—Ez, ez nuen nahi.

—Zergatik deklaratu zenuen, orduan?

—Momentu batean, deklarazio bat egitea erabaki nuen, teoriarik jarri zidatelako. Galdera batzuk egin behar zizkidatela esan zidaten, baina galdera biri bakarrik erantzutea nahi zutela, bi galdera horien erantzunarekin nahikoa zeukatela eta hortik aurrera bakean utziko nindutela. Bakean uztearen kontzeptua oso gogokoa zen une hartan, eta horregatik onartu nuen deklarazioa egitea.

Epaiketako deklarazioan zehaztu ez bazuen ere, deklaraziorainoko ibilbidea azaldu baino luzeagoa izan zen. Deklaratzea onartu ondoren bulegora zeramatenean, indarrak bildu eta iritzia aldatu zuen Xabier Oleagak, eta esan zien pasabideetatik zeramatena guardia zibilei ez zuela deklaratu nahi. Ziegara itzularazi zuten, eta handik ordu erdira *ondorioak* jasan zituen: “Birrintuta utzi ninduten”. Azkenean, onartu egin zuen deklaratzera joatea.

—Zein galderari nahi zuten erantzutea? —jarraitu zuen Iñigo Iruin abokatuak.

—Bi ziren, oso begi-bistakoak. Bata: nahi zuten nik esatea 1993ko martxoan hasi nintzela lanean *Egunkaria*-n. Bestea: nahi zuten nik esatea Iñaki Uriak proposatu zidala *Egunkaria*-n sartzea. Ustekabean, bigarren galdera ez zidaten egin; bai, ordea, lehendabizikoa.

—Beraz, deklarazioan galdetu zizuten ea deklaratu nahi zenuen, eta baietz erantzun zenuen. Jarraian, galdetu zizuten zein den zure lanbidea; kazetaria zarela esan zenuen, eta Partaiden lan egiten zenuela. Hirugarrena da noiz sartu zinen *Egunkaria*-n, eta esan zenuen 1993ko martxoan sartu zinela, eta hortik aurrera ez zenuen erantzun. Horrela gertatu zen?

—Bai, horrela izan zen. Ulertzen dut harrigarria irudi dezakeela, baina, azaldu dudanez, hori izan zen nire galdekatzaileen eta nire arteko *akordioaren* emaitza.

—Beraz, zuk eman duzun datu bakarra da *Egunkaria*-n 1993ko martxoan sartu zinela?

—Bai, ni konturatu nintzen datu horrek garrantzi handikoa izan behar zuela haientzat, nahiz eta deklarazioan sartu aurretik nik esan nien datu hori lan bizitzaren agirian agertuko zela. Haiek tematu ziren, eta nik esan nuen.

—Bazenekien zein zen Guardia Zibilaren interesaren arrazoiak?

—Ez, ez nekien zein izan zitekeen tematzeke motiboa.

Arazoi ezkutua ETari atzemandako agiri batzuen data zen. Xabier Oleaga *Egunkaria*-n ETaren erabaki baten ondorioz sartu zela esateko, Guardia Zibila 1993ko otsaileko agiri batzuen interpretazioan oinarritzen zen, eta, akusaziozko teoriari eusteko, Oleagak 1993an sartua behar zuen, Martxelo Otamendirekin batera, halabeharrez, eta ez 1995ean, benetan gertatu zen bezala. Guardia Zibilaren jukutria agerian uzteko, defentsak

helduleku bat baino gehiago erabili zuen. Batetik, Xabier Oleagak zehatz-mehatz azaldu zuen arrazoi pertsonal eta profesionalengatik irten zela *Egin*-etik; Administrazio Kontseiluak baztertuta sentitu ondoren, dimisioa eman zuela. Azkenean, zuzendari kargua 1992ko martxoan utzi zuen, eta erredaktore soil gisa jarraitzea adostu zuen enpresako zuzendaritzarekin, baina denborarekin harreman pertsonal eta laboralak kaskartuz joan ziren eta, azkenean, egoera itogarria egin zitzaion. *Egunkaria*-k emandako aukera, hain zuzen, egoera hartatik irteteko alternatiba izan zen. Bigarren heldulekua instrukzio epaileari eman zion denbora erreferentzia izan zen; hau da, Imanol Murua erredaktoreburuak utzitako hutsunea betetzeko sartu zela *Egunkaria*-n. Eta Imanol Muruak 1995ean hartu zuen eszedentzia, hurrengo saio batean lekuko gisa berretsiko zuen bezala. Hirugarren heldulekua argazki bat izan zen, 1993ko abenduaren lehen egindako argazki bat. Argazki horretan, Xabier Oleaga *Egin* egunkariaren Hernaniko egoitzako erredakzioan ageri da, Ertzaintzak ikerketa taldearen bulegoa miatu zuen egunean.

Defentsaren heldulekuak sendoak zirela agerian uzteko, xehetasunez jositako galdeketa bat egin zion Iruin abokatuak Xabier Oleagari. *Egin*-en bizi izandako egoera, alternatibaren agerpena, Iñaki Uriak egin zion proposamenaren zehaztasunak, baiezekoaren arrazoiak... Halaber, bere izena aipatzen zuten agiriak erakusteko eskatu zuen, haietatik Guardia Zibilak ateratzen zuen ondorioa ezeztatzeko. Dokumentu haiek esku artean izan zituenean, gogora etorri zitzaion ikusi zituen lehen aldia, Juan del Olmo epailearen aurrean deklaratzeko aritu zenekoa. Horregatik, edo tentsioak eragindako nekeagatik agian, Xabier Oleagaren ahotsa apalduz joan zen. Torturen berri ematean ahotsaren tonuari tinko eutsi bazion ere, ordubete geroago hunkitu egin zen, eta horrek izenekin nahaste-borraste bitxi bat eragin zion.

—1993ko martxoan, garai hartan noizbait, Iñaki Uriak aipatu zizun *Euskaldunon Egunkaria*-n sartzeko aukera, Martxelo Otamendi zuzendari izendatzearekin batera?

—Ez. *Egunkaria*-n sartzeko egin zitzaidan proposamen bakarra, zera, beti izan zen ordezkatzeko... Uria... [Isildu, eta burua mugitzen hasi zen, izen zuzenaren bila] Imanol, Imanol Murua. Inoiz ez Martxelorekin lotuta.

Handik gutxira, epaimahaiburuak eten egin zuen saioa, bazkaltzeko. Arratsaldean, indarrak berrituta, deklaritzen jarraitu zuen, beste hiru ordu laurdenez. Alde batetik, *Egunkaria*-n sartzeko dataren afera guztiz itxi nahi izan zuen Xabier Oleagaren defentsa abokatuak. Ebidentzia guztien kontra Oleaga *Egunkaria*-n 1993an sartu zela esateko, akusazioek zioten urte hartan hasi zela idazten *Egunkaria*-n. Halaxe zen: 1993ko urtarrilean, hamabost egunean behin hasi zen kolaborazioak egiten Iritzia sailean. Akusatuak bi eratara indargabetu zuen akusazioen argudioa: batetik, esanez Iritzia saileko kolaborazioak egunkaritik kanpokoentzat bakarrik zirela eta bertako erredaktoreek ezin zutela sail horretan idatzi; bestetik, gogora ekarriz *Egunkaria* utzitakoan berriro hasi zela Iritzia saileko kolaborazioak egiten, 1998ko irailetik 2000ko uztailean, asteroko *Seiko Urrea* izenburuko atalean.

Akusazioek, bestalde, beste elementu bat aipatzen zuten ETArekin lotzeko: bulegoko miaketan ETaren *Zutabe* aldizkariaren ale batzuk aurkitu izana. Gai horri ere heldu zion Iñigo Iruin abokatuak, *Zutabe* horien ingurukoak argitu nahian. Zazpi ale aurkitu zituen Guardia Zibilak Oleagaren lantokian: 93, 94 eta 95. zenbakien ale bana eta 98. zenbakiaren lau ale.

—Badakizu zergatik jaso zenituen?

—Ez. Nik ez nion inoiz inori eskatu hori bidaltzeko, eta niri inork ez zidan iradoki egingo zuenik. Beraz, ez dakit zein diren motiboak. Beste kontu bat da nire interpretazioa. Horren arabera, hedabideetan komentaria politiko gisa nuen proiektzioak pentsarazten zidan jasotzaile potentzial bat izan nintekeela.

—Zehazki, zein hedabidetan zinen komentaria politikoa?

—Garai hartan, presentzia nabarmenena Herri Irratiarena zen, *Musutruk* magazinean, *Berri-ikerketan* izeneko espazioan. Han parte hartu nuen 1994tik 2002ra arte.

—Zein zen hedabide horren jabea?

—Emisio eskubideak COPErenak ziren, baina esplotazio eskubideak Jesusen Lagundiarenak.

—Akusazioek diote *Zutabe* ETaren barne aldizkari bat zela, militanteentzat. Zuk dakizunez, beste hedabide batzuetan ere jasotzen zuten.

—Badakit beste hedabide batzuek *Zutabe* aldizkariaren edukiak jakitera ematen dituztela. Ez dakit zein bidetatik iristen diren bakoitzarengana.

Horrelako kontuak diskrezioz gordetzen dira kazetarien artean. Dena den, inork ez du ezkututzen mota horretako informazioa eskuratzen duenik.

Aipatutako aleez gain, beste *Zutabe* bateko orri baten fotokopia ere azaltzen zen akusazioen idatzian, ETAk Bixente Lizarazu futbolariari bidalitako gutuna erreproduzitzen zuena. Baina dokumentu horrek bazuen azalpena, akusazioen tesia hankaz gora jartzen zuena.

—Zergatik zenuen fotokopia hori zure lantokian?

—Kasu partikular bat zen. Gutun horrek ikastolak aipatzen eta nahasten zituen *iraultza zergaren* eskaera batean. Gertaera horren berri izan bezain laster, nire lan zereginengatik, iruditu zitzaidan ikastolen kolektiboak gertaera horren inguruko jarrera publikoa agertu behar zuela. Horrela adierazi nion zuzendaritzari; irizpidea onartu, eta erantzuteko prentsa oharra idazteko ardura eman zidaten.

—Zuk idatzi zenuen oharra?

—Bai, nik neronek.

—Partaideko komunikazio aholkulari gisa?

—Horrela da.

—Hori da zure mahaiari egoteko arrazoia?

—Bai, hori zen oharra egiteko nik erabilitako oinarritzeko materiala.

—Ohar hartan, ikastolen izenaren erabileraren arbuiorik sendoena adierazten da, eta Bixente Lizarazuri elkertasuna agertzen zaio...

—Bai, horrela da.

Martxelo Otamendi, zuzendariaren aldarrikapena

Auzipetu guztietatik Martxelo Otamendik kontatu du gehien 2003ko otsaileko atxiloaldi hartako torturen testigantza. Instituzioetan, jendaurreko hitzaldietan, mundu osoko hedabideetan... Hamaika aldiz kontatu du inkomunikazio egun haietan pairatutakoa. Errepublikatzearen poderioz,

pentasa zitekeen tribunalaren aurrean egin behar zuen kontakizuna beste bat gehiago izango zela. Baina ez zen horrela izan.

Martxelo Otamendi egun *Berría* egunkariko zuzendaria da, eta hala da sorreratik, 2003ko ekainaren 21etik. Euskal Herriko egunkarietako zuzendarien *dekanoa* da, zuzendari karguan urte gehien daramana. *Egunkaria* itxi zutenean, zuzendaria zen, 1993az geroztik. Aurretik, ETBlen aritu zen: *Babel* saioko aurkezle, *Egunean giro* saioko zuzendari, gidoilari... Hedabideen munduan sartu aurretik, euskara irakasle eta Tolosako Udal Eskaltegiko zuzendari izan zen, eta Galtzaundi Euskara Taldeko kide ere bai.

Ibilbide profesionalari buruzko hasierako galderen ondoren, atxiloketa gogoratzeko eskatu zion Iñigo Iruin abokatuak Martxelo Otamendiri.

—Zure kasuan ere, 60 ordu inguru iragan ziren Madrilera iritsi zinenetik ofiziozko abokatuaren aurrean deklaratu zenuen arte. Tarte horretan eginbiderik egin zuten?

—Galdeketak egin zizkidaten. Beti nengoen begiak estalita; ezin izan nituen ikusi galdekatzaileak. Beti galdekatu ninduten pareta baten kontra, eta ariketa fisikoak egitera behartzen nindutenean eta erortzen nintzenean, paretaren kontra erortzen nintzen.

—Galdeketa horietan tratu txarrik pairatu zenuen?

—Guardia Zibilaren egoitzara iritsi nintzenean, hura Guardia Zibila zela esan zidaten, ulertaraziz han beste kode batek funtzionatzen zuela. Eta esan zidaten: “Bageneukan gogoia zu harrapatzeko, Otamendi. Hainbeste tertulia, hainbeste elkarrizketa, hainbeste telebista saio...”. Hiru egunez, zutik izan ninduten, ziega batean, argia piztuta, pareta batetik oso gertu. Lauzpabost ordutik behin, esertzen uzten zidaten ohe txiki batean. Denbora horretan, ez zidaten inoiz lo egiten utzi. Ezin konta ahala ariketa fisiko egitera behartu ninduten, ia konortea galdu arte, ahituta erori arte. Jantzita egin nituen, eta biluzik ere bai. Flexioak zutik, besoak gora, besoak behera... Lurraren kontra ere bai. Ukitu egin ninduten, objektu bigun batekin, ipurmasailen aldean. Bidaia hark bost egun iraungo zuela esan zidaten. Lehen eguna gogorra zela, baina bigarrena lehenengoa baino gogorragoa, hirugarrena bigarrena baino gogorragoa, laugarrena hirugarrena baino gogorragoa, eta bosgarrena laugarrena baino gogorragoa. “Hemen mundu

guztiak aitortzen du; hau Guardia Zibila da”, ulertaraziz “ETAko jende gogorrak aitortu du eta, zu kazetari bat izanik, zuk ere aitortuko duzu. Ahalik eta lasterren aitortzen baduzu, gutxiago sufrutuko duzu eta gutxiago lan egingo dugu guk”. Argi eta garbi esan zidaten. Nik esan nien ez deklaratzeko eskubideari eusten niola, eta esan nien nire lanbideari buruzko galderak egiten zizkidatenean kazetari nintzela, beraien galderak ez zetozela bat sekretu profesionalari heltzeko eskubidearekin. Hiru egunez eduki ninduten horrela. Ezkerreko lokiaren kontra burdina bat jarri zidaten, klik egin zuten, eta bi segundoko sekuentzia batean eskuineko eskuarekin pistola bat ukitzera behartu ninduten. Horrez gain, laido homofobikoak egin zizkidaten..., nire bizitza pribatuari buruzkoak. [Ahotsa apaldu zitzaion, geldiuene bat egin zuen indarrak biltzeko, eta aurrera jarraitu zuen]. Nire lagunekin harremanetan jarri zirela esan zidaten, eta atera zietela zein zen nire jarra sexual gogokoena... [beste geldiuene labur bat]. Biluzik, jarrera horretan jartzen behartu ninduten, minutu batez gutxi gorabehera. Sinetsarazi nahi zidaten gai zirela nire lagun pertsonalak galdekatzeko eta informazio hori haiengandik lortzeko [nabarmen hunkituta]. Gezurra zen, suntsitzeko modu bat zen. Ia ez zidaten galderarik egin *Egunkaria*-rekiko loturari buruz eta *Egunkaria*-ren eta ETArekin arteko balizko loturari buruz. Niri galdetu zidaten 1999, 2000 eta 2001. urteetan ETArekin egin nituen elkarrizketei buruz: Auzitegi Nazionalako Garzon epaileak ikertu eta profesional, zorrotz eta interes publikoko iritzi zien haiei buruz. Bitan egin zuen Garzon epaileak auto bat esanez elkarrizketa horiek ez zirela delitu. Esan nienean Auzitegi Nazionalak bi aldiz onartu zidala sekretu profesionalari eutsiz ez erantzuteko eskubidea, orduan haiek garrasika hasten ziren Auzitegi Nazionalaren kontra, Garzon epailearen kontra, demokraziaren kontra, eskubideen kontra, atxilotuaren berme prozesalen kontra. Nik aldarrikatzen nuen ez deklaratzeko eskubidea nuela eta ez nuela informaziorik emango nire lanbidearekin lotuta; kazetaria naiz, eta legeak babestuta nago ez deklaratzeko informazio baten edo elkarrizketa bat lantzeko moduaren inguruan. Ez ditut hemen errepikatuko Garzon epailearen, Auzitegi Nazionalaren, Espainiako Konstituzioaren kontra botatzen zituzten irain larriak. Haien aldetik etengabea zen bonbardaketa: “Deklaratuko duzu, deklaratuko duzulako”.

—Auzitegiko medikuak 2003ko otsailaren 22an egin zizun bisitan, jakinarazi zenion zeure buruari min egingo zeniola paretaren kontra kolpeka,

auzitegiko medikuak dioenez, Auzitegi Nazionalera ez bazintuzten eramatzen?

—Egunero kontatu nion auzitegiko medikuari gertatzen ari zen guztia. Eta nirekin gertatzen ari zena erabat ezin pairatuzkoa eta ezin onartuzkoa iruditzen zitzaidanez, esan nion auzitegiko medikuari: “Esaiozu magistratuari ni prest nagoela deklaratzeko, hemendik atera eta eraman nazala deklaratzera”. Hori larunbatean izan zen. Eta esan nion: “Edo hemendik ateratzen nau, edo bihar zatozenez burua hautsiko dut zutoin horren kontra”. Hori gertatu ondoren, auzitegiko medikuaren bisitatik irten eta nire ziegara itzuli ondoren, handik hogeita hamar minutura etorri ziren guardia zibilak, arrastaka atera ninduten ziegatik, lurraren kontra jarri ninduten eta belarrira esan zidaten: “Auzitegiko medikuari berriz esaten badiozu zer gertatzen ari zaizun, putaseme, bi tiro emango dizkizugu”. Hemen kontatzen ari naizen guztia kontatu nion Del Olmo magistratuari, inkomunikatuta nengoela nire deklarazio judiziala egin nuenean.

Salaketa hori, 2008ko irailaz geroztik, Europako Giza Eskubideen Auzitegian dago, aztertu edo ez noiz erabakiko zain. Espainiako Erresumaren kontrako salaketa da, jasotako torturak eraginkortasunez ez ikertzeagatik eta ikertzeko bitartekorik ez jartzeagatik Martxelo Otamendik Estrasburgoko Auzitegian jarria. Besteak beste, Madrilgo Lurralde Auzitegian, instrukzio epaileak ez zion inoiz era pertsonalean eta zuzenean hartu deklarazioa Martxelo Otamendiri, eta, halaber, guardia zibil batek ere ez zuen deklaratu epaitegian. Auzia horrelaxe itxi zutela eta Espainiako Auzitegi Konstituzionalean jarritako babes helegitea aztertzea ere ez zutela onartu ikusirik jo zuen Estrasburgoko Auzitegira.

Atxiloketaren ingurukoak xehe-xehe azaldu ondoren, Iñigo Iruin abokatuak akusazioen edukira bideratu zuen galdeketa, *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendari izendatzearekin hasita. “Joan Mari Torrealdai eta Iñaki Uriak biek proposatu zidaten, bazkari batean. Ez nuen espero; beste gauza baterako deitu zidatela pentsatu nuen”. 1993ko otsailaren amaieran edo martxoaren hasieran izango zen, Joxemi Zumalabe hil eta gutxira. Garai hartan, Martxelo Otamendi ETBko saio baterako lanean ari zen, gidoilari gisa, eta Tolosako Galtzaundi Forumaren sustatzaile nagusietako bat zen.

—Zer esan zizuten zehazki Torrealdaik eta Uriak?

—*Egunkaria*-ko zuzendari izatea proposatu zidaten. Azaldu zidaten egunkariaren egoera zein zen Joxemi Zumalabe hil ondoren, eta nire soslai-a ezagutzen zutela, ETBko saioretako zuzendari gisa eta Galtzaundi Forumeko buru gisa.

—Zer erantzun zenuen?

—Hasieran harrituta geratu nintzen, ez bainuen espero *Egunkaria*-ren zuzendaritza eskainiko zidatenik. Telebistako kazetaritza nentorren... Eskaintza eskertu nien, zeren eta ohore bat izan da horrelako jendearekin lan egitea. Nik uste, nire bizitzako poz profesional handiena izan da egunkari horretako zuzendari aritzea. Azaldu nien ez nuela esperientziarik, ikasi egin behar nuela, ahaleginduko nintzela ikasten, baina, edozein modutan, pentsatu behar nuela, telebistan lanean ari nintzelako.

Baiezkoa bi asteren buruan eman zuen, nahiz eta sartzeari geroago egitea hitzartu zuen Torrealdaik eta Uriarekin, ETBko gidoilari lanaren konpromisoa amaitu arte. 1993ko ekainaren 9an hasi zen lanean *Egunkaria*-n. Gogoan du data, Felipe Gonzalezek hauteskundeak irabazi eta handik hiru egunera izan zelako. Egun batzuk lehenago, maiatzaren 29an, akziodunen batzarrak onetsia zuen Martxelo Otamendi zuzendari izendatzea, Iñaki Uriak kontseilari ordezkari hautatzearekin batera.

Aurreko auzipetuei bezala, Martxelo Otamendiri ere iritsi zitzaion ETAr atzemandako paperen inguruan aritzeko unea.

—Badaude bi dokumentu, Dorronsorori atzemandakoak, *Hontza 93-02* eta *Garikoitzari 93-03*, non aipatzen zaituzten, lehenengoan izen-abizenekin, eta bigarrenean zeharka. Noiz ikusi zenituen dokumentu horiek?

—Del Olmo magistratuak erakutsi zizkidanean, galdeketa.

—Zer esan dezakezu zuri buruzko aipamen horien inguruan?

—Komunikazio horien subjektu pasiboa naiz. Ez dakit zein asmorekin hitz egiten duten nitaz. Ez daukat zerikusirik elkarrizketa horiekin, ezta haien egileekin edo edukiarekin ere.

Era berean, *Egunkaria*-ko zuzendaria izateko KASeko inorekin harremanik edo haren babesik eduki izana ukatu zuen Martxelo Otamendik. Galdera sorta horietako batean, epailetako nahaste-borraste bitxi horie-

tako bat gertatu zen, abokatuak Xabier Alegria ea ezagutzen ote zuen galdetu zionean eta Martxelo Otamendik Xabier Oleaga entzun zuenean. Lauzpabost galdera-erantzun nahasiren ondoren, atzera egin behar zuten gaizki ulertua konpontzeko. Beste une batean, abokatuak galdetu zionean ea Torrealdaik eta Uriak “kanon ideologikorik” jarri ote zioten, horrelakorik ukatu eta karguan izandako askatasuna azpimarratu zuen. “Erabateko askatasunaz lan egin nuen; Iñaki Uriari eta Joan Mari Torrealdairi esker-tuta nago zuzendari izateko aukera eman zidatelako eta bai edukietan bai taldeak osatzeko garaian askatasuna eman zidatelako”. Halaber, Otamendik argi utzi nahi izan zuen ezinezkoa zela *Egunkaria* ETAre proiektua izatea. “Ez, inola ez; ez nuke inoiz onartuko, eta horrela azaldu nion magistratuari”.

Xabier Oleagak *Egunkaria*-n sartzeari buruz emandako bertsioa berretsi eta osatu zuen Martxelo Otamendik. Ziur agertu zen sartzeko datari eta Imanol Muruaren eszedentziari buruz galdetu zitzaionean. Oso modu grafikoa azaldu zuen Xabier Oleagari buruz garai hartatik finkatuta zeukan oroitzapena: “*Egunkaria* Lasarten sortu zen, eta han egon zen 1994. urtearen amaierara arte. Xabier Oleaga, nire memoria fotografikoa, beti dago egoitza berrian, Andoainen, eta beti dago entzungailu batzuk jarrita, irratitari lotuta. Erredaktore bakarra zen sistema hori erabiltzen zuena, irratia entzuten ohi zuena aurikular batzuekin”. Dena den, abokatuaren galdeketa ez zen mugatu zertzeladetara. *Egunkaria*-ren ildo editorialari buruz hitz egiteko aukera eman zion Martxelo Otamendiri, eta hark suhar eta harro hitz egin zuen egindakoaz.

—Nola definituko zenuke hamar urtez zuzendu zenuen *Euskaldunon Egunkaria*-ren ildo editoriala?

—Egunkari plurala zen, irekia, modernoa, euskaltzalea, Euskal Herri osoa aintzat hartzen zuena. Egunkari independentea zen, beste komunikabide batzuetatik independentea, eta alderdi politiko edo talde antolatuetatik independentea. Egunkari profesionala zen. Egunkari on bat egin beharra geneukan. Eguneroko kazetaritzaren 200 urteko historian ez genuen izan inoiz euskarazko egunkaririk, 1936ko gerra garaiko *Eguna* kenduta. Egunkari on bat egin behar genuen, ongi egin behar genuen. Zaila da irakurleak eta erosleak erakartzea hizkuntza gutxitu batean. Ongi dakite hori katalanek, galegoek; beste hizkuntza gutxiagotuek dakite. Horregatik,

gurea ona izan behar zuen, profesionala, militantea, lanaldiak luzeak eta soldatak apalak zirelako... Egunkari berritzailea zen; infografiari garrantzi handia ematen genion. Asko kostatu zitzaigun egunkari estandar bat izatera iristea. Baina nik gogo bizia nuen gure kazetariak Olinpiar Jokoetan egon zitezen, Amerikako Estatu Batuetako hauteskundeetan... Gogoratzen naiz dirua eskatzen niola Iñakiri: “Gure irakurleek eduki behar dute sententzia AEBetako hauteskondeen berri izateko, Bill Clintonen mitin baten kronika irakurtzeko ez dagoela beste egunkari bat erosi beharrik beste hizkuntza batean: guk eskain dezakegu”. Eta guk egin genuen: 1996an Atlantako Olinpiar Jokoetara joan ginen; ez zen inoiz egon kazetari euskaldun bat Olinpiar Jokoetan, irrati eta telebista publikokorik ere, inoiz ez. Bill Clintonen garaian AEBetako hauteskundeetara joan ginen, 1998an aita santuak Kubara egin zuen bidaian egon ginen, Kosovoko etorkizunari buruzko negoziazioetan egon ginen, Rambouilleten... Toki askotan egon ginen, irakurleek ehun pezeta edo euro baten truke produktu on bat jaso zezaten tematuta geundelako, euskarazko egunkari bakarra zelako. Gure irakurleen lehen egunkaria izan behar zuen, eta ez bigarrena.

Akusazioen idatzian Martxelo Otamendi ETArekin lotzeko aipatzen ziren beste gai batzuk argitzeko falta zeuden: bulegoko mahaian zeuden *Zutabe* aldizkariaren aleak, ETaren agirien argitalpena eta ETari egindako elkarrizketak... Zehazki, *Zutabe* aldizkariaren 70, 96, 97 eta 98. zenbakien ale bana zegoen *Egunkaria*-ko zuzendariaren bulegoko mahaian Guardia Zibila egoitza sartu zenean. Denak batera iritsi berriak ziren, bidalketa bakar batean. Ez ziren iristen maiztasun jakin batekin, eta batzuetan posta arruntaz ere iristen ziren erredakziora. “Iristen zirenean, gainetik begiratzen nituen, eta Politika Sailekoei pasatzen nizkien, gai hauetan adituak zirenei, eta beti esaten nien: ‘Zerbait interesgarria, zerbait argitaragarria baldin badago, esadazue’”. *Zutabe* aldizkariak beste hedabide batzuek jasotzen ote zituzten galdetuta, nahiko zehatza izan zen: “Bai, nik dakidanez bai: *Deia*-k, EITBk eta *Gara*-k jasotzen zituzten. Gero, *Egunkaria* itxi ondoren eman genituen elkarrizketa ugariren artean, AP agentziako berriemaileari elkarrizketa bat eman genionean, hark ere esan zidan jaso zituela”.

ETaren agiriak argitaratzeari dagokionez, begi bistakoa azaldu zuen Martxelo Otamendik: *Egunkaria* 1995. urtearen amaieran hasi zen argita-

ratzen ETaren agiriak, orduan hasi zelako jasotzen. “Iristen direnean argitaratzen dira”. Garai hartan, gainera, beste hedabide batzuetara ere hasi ziren iristen; *Deia*-ra eta Euskadi Irratira, esaterako. Agiriaren interes informatiboa agerian uzteko, datu bat baino gehiago ekarri zuen harira. “Irratian agiri bat zegoela zabaltzen zenean, hedabide askotatik deitzen ziguten, pasatzeko eskatuz edo edukiaz galdezka. Ziur nago Gipuzkoako egunkari bat, irratia bidez ETaren agiri bat zegoela zekienean, zain egoten zela gure egunkaria inprimatu arte, hartzeko, itzultzeko eta argitaratzeko”.

Halaber, ETA elkarrizketatzeko interesa arrazoi informatiboekin justifikatu zuen, eta askotan aipatzen duen kasu bat gogora ekarri zuen epai-mahaiaren aurrean ere. “Ez zen ulertuko euskal auziarekin lanean ari den kazetari batek interesik ez izatea ETA elkarrizketatzeko. Era berean, ez zen ulertuko Irlandako gatazkaren inguruan lanean ari den kazetari batek IRA elkarrizketatu nahi ez izatea. Ohikoa da hedabideen artean elkarrizketak egitea talde armatuei. *Time* aldizkariak, balio amerikarren defendatzaileak, Bin Ladeni egindako elkarrizketa bat argitaratu zuen. Kenya eta Tanzaniako enbaxaden kontrako erasoetatik Irailaren 11ko erasoetara doan tartean, *Time* aldizkariak elkarrizketa bat egin zion Bin Ladeni, lehen orrialdean”.

—Zure jarduera profesionalaren ondorioz ETARI egin dizkiozun hiru elkarrizketa horiek alde batera utzita, bestelako harremanik izan duzu ETAREKIN?

—Ez. Inoiz ez.

—Edo KASEKIN?

—Inoiz ez.

—ETAREN menpe egongo zen egunkari bateko zuzendari izatea onartuko zenuke?

—Ez, inoiz ez. Horrela adierazi nion instrukzio epaileari, eta horrela adierazten dut orain. Ez nuke inoiz onartuko.

Joan Mari Torrealdai eta euskararen militanteak

Lehen saioan, bost auzipetuak bi aulki lerrotan eseri ziren. Lehendabizikoan, Iñaki Uribe, Xabier Oleaga eta Txema Auzmendi. Bigarrenean, Joan Mari Torrealdai eta Martxelo Otamendi. Toki bera hartu zuten goizeko saioan zein arratsaldekoan. Torrealdai laugarrena izan zen hitza hartzen, eta, aurrekoen deklarazioa nola joan zen ikusita, goizean baino lasaiago zegoen, baina ustekabeen harrapatu zuen Felix Cañada abokatuaren lehen galderak.

Aurreko auzipetuekin ez bezala, Torrealdairen abokatuak ez zion galderarik egin curriculumari buruz. Luze samarra duelako, agian. Joan Mari Torrealdai *Jakin* aldizkariko zuzendaria da, 1977az geroztik. Eta euskaltzain osoa, 2007ko azarotik. *Egunkaria* itxi zutenean, administrazio kontseiluko lehendakaria zen. *Egunkaria*-ren sortzaile nagusietako bat izan zen. Gizarte Zientzietako lizentzia lortu zen Parisen, eta Soziologian doktoratu zen Deustuko Unibertsitatean; hain zuzen, *Gobernu zentsura eta euskal liburua 1936-1983* tesiarekin. Beste hainbat ikerketa eta libururen egilea da: *Euskal Idazleak gaur* (1977), *Martin Ugalde, Andoaindik Hondarribira* (1988), *Euskal Kultura gaur* (1997), *Artaziak* (2000), *Imanol Murua, Gipuzkoako alkate* (2004), *Euskaltzaindia, Ekin eta Jarrai* (2009)...

Epaimahaiaren eta mikrofonoaren aurrean eseri zenean, bestelako atarikorik gabe, atxilotuta egon zenean jasotako tratuari buruz hitz egiten hasi behar izan zuen.

—Torrealdai jauna, kontatuko diguzu labur ea bost eguneko atxiloaldian, inkomunikatuta, tratu zuzena eta begirunezkoa jaso zenuen edo, aldiz, tratu fisiko eta psikiko desegokiak eta begirunerik gabekoak jaso zenituen, eta ea horrek islarik izan zuen Guardia Zibilaren aurrean eta instrukzio epaitegian egin zenituen deklarazioetan?

—Epailearen aurrean egindako deklarazioa... ikusi besterik ez dago zezela dela, inkoherentea dela. Oso gaizki nengoen, psikologikoki oso gaizki nengoen. Egoera hori ez zen hasi inkomunikazioko bost egunetan, Madrilen, baizik eta atxilotetarekin, etxean sartu zirenean. Etxebizitza

familiabakar batean bizi naiz, eta atea bota zuten; seme-alaba txikiak nituen orduan, 10 eta 12 urtekoak, ikaratu egin gintuzten, metrailetekin apuntatu. Oso gauza izugarria izan zen, izugarria, seme-alaben aurpegian mina ikustea. Ni hor bertan lur jota geratu nintzen. Gero nire materialen xahutzea etorri zen, hamaika orduz. Bilduta neukan material guztiaren bortxaketa. Milaka orri sakabanatu egiten zituzten, klipetatik atera egiten zituzten, desordenatu egiten zituzten... Une batean, idazkari judizialak esan zidan “zenbat paper duzun!”, nire errua izango balitz legez. Handik Madrilerera eraman ninduten. Bidean ez zidaten utzi ezta pixa egiten ere. Ez zidaten atsedean hartzen utzi ezta segundo bat ere. Nire etxean ordu bata edo ordu bat eta erdiak aldera sartu ziren, eta Madrilerera lauretan iritsi nintzela uste dut. Gainerako guztia jarraipen bat zen. Lur jota segitzen nuen; hiru egun eta hiru gau zutik eduki ninduten, lo egin ezinik, paretaren kontra. Deklaratzera eramaten ninduten, ez dakit zenbat denboraz. Batzuetan azkar. Jo egiten ninduten. Plastiko bat erakutsi zidaten eta belarriraino eraman zidaten, mehatxu eginez. Begiak itxita deklaratu behar nuen, eta paretaren kontra, hankak zabalik, atzetik jotzen ninduten, hankartean. Ez banuen erantzuten nahi zutena, zerbait zorrotzarekin bizkarrean jotzen ninduten. Zenbait gauza buruz ikasarazi zidaten. Izen jakin batzuetan interesa zuten; *Egunkaria*-koak ez zirenak, gainera. Oso gutxi galdetu zidaten *Egunkaria*-ri buruz. Mehatxupean deklaratu behar izan nuen, haietako batek, gaiztoarena egiten zuenak, hartu baininduen eta esan baitzidan 72 ordu gelditzen zitzaizkidalda eta hura infernua izango zela ez banuen deklaritzen zehatz-mehatz ikasitakoa. Deklarazio horretan izen-abizenak daude. Epailearen aurreko deklarazioa, aldiz, erabat inkoherentea da, orduan ez neukalako hango presioa eta ez nuelako buruz ikasi. Hori da errealitatea.

—Horren ondorioz tratamendu psikiatrikoa hartu behar izan duzu?

—Bai.

—Zenbat denbora?

—Gutxienez, urtebete. Eta gero, noizean behin.

Jarraian egin zuen Joan Mari Torrealdaik atxilotuta egon zeneko kontakizuna, poliki, hunkidura ezin ezkutatuz, baina etenik gabe. Trago bat ur hartu ondoren, *Egunkaria*-ren sorrerari buruzko galderei erantzuten hasi zen. Joan Mari Torrealdaik ez zuen parte hartu *Egunkaria*-ren sorreraren inguruko lehen bileretan, garai hartan doktore tesia egiten ari zelako

Euskal Herritik kanpo. Proiektura Karlos Santamaria pentsalari eta Jakin taldeko kidearen eta Martin Ugalde idazlearen bitartez hurbildu zen. “Haiek azaldu zidaten eta eskatu zidaten ea gaian sar nintekeen egunkariaren proiektua gidatzeko, *Jakin*-en irudi irekia eta onespen soziala kontuan hartuz, eta nik neronek ez dudala arbuiorik sortzen, eta interesgarria izan zitekeela euskarazko egunkari berria aurrera eramateko”.

Egunkaria Sortzen osatu zutenen izenak gogora ekarri ondoren, hamaika oinarriak azaldu zituen Torrealdaik. Zehazki, garrantzitsuenak zein ziren galdetu zion Felix Cañada abokatuak. “Denek ez zeukaten balio bera. Garrantzitsua zen *Egunkaria* bateragile izatea, aniztasuna, irekitasuna... Gero, niretzat obsesiboa izan diren gaietako bat independentziarena izan da, *Egunkaria*-ren autonomia eta independentzia, perspektiba bikoitz bate-tik: garrantzitsuena presio talde, alderdi politiko eta talde ekonomikoekiko autonomia eta independentzia zen; bestea, erdarazko hedabideekiko independentzia”.

Defentsaren galdetegiaren derrigorrezko geltokia izendapenen afera zen. Lehen zuzendariaren aukeraketarekin hasita. “Asko mugitu ginen; ez zen erraza izan. Ez zegoen dirurik, soldatak ziztrinak ziren, eta ez zuten erakartzen profesional handiak. Zerrenda ikusi dut: hamasei lagunekin saiatu ginen, nigandik hasita”. Guardia zibilen interpretazioei aurre eginez, abokatuak argitzeko eskatu zion Torrealdairi zergatik 1990eko urriaren 27ko bileran ez zen aipatu Pello Zubiriaren izena, gerora *Egunkaria*-ko lehen zuzendaria izango zenarena. Erantzuna erraza zen: orduan Joxerra Garzia erantzun zain zeuden. “Joxerra Garziarekin ni jarri nintzen harremanetan; *Jakin* aldizkaritik ezagutzen nuen. Nahiko denbora behar izan zuen erabaki bat hartzeko, eta bitartean Zarauzko bilera iritsi zen. Ikusten genuen ez zuela ez baietz ez ezetz esaten, baina, ematen zituen arrazoiak ikusita, zaila iruditzen zitzaigun onartzea. Orduan, beste bidea landu zen, Pello Zubiriarena. Eta Zarauzko bilerara iritsi ginenean, Joxerra Garzia bileran zegoen; oraindik ez zuen eman ez baiezkorik eta ez ezezkorik, eta horregatik ez genuen esan Pello Zubiriaren izena”.

Pello Zubiriak urte eta erdi geroago utziko zuen zuzendari kargua, hasieratik esana zuen bezala, eta zuzendariordeetako batek hartu zuen lekukoa: Iñaki Uriak. Handik urtebetera, kontseilari ordezkariaren kargua proposa-

tuko zioten Iñaki Uriari, Joxemi Zumalabe hil ondoren. Joan Mari Torrealdaik uko egin zion lanpostu horri, eta administrazio kontseiluak Iñaki Uria hautatu zuen.

Aurreko auzipetuek bezala, Joan Mari Torrealdaik ere *Egunkaria*-ren independentzia eta aniztasuna aldarrikatu zuen. “Aniztasuna bermatzeko obsesioa eduki genuen beti. Hori, printzipioz, Egunkaria Sortzen-en bermatuta zegoen, oso kide ezberdinek osatutako elkarte bat baita. Gero guk ere, ageriko aurpegiek, Egunkaria Sortzen ordezkatzen genuenok, bermatu egiten genuen. Askotan esan behar izan dugu. Gure artean ere esan izan dugu zabala eta independentea izateko bermeak bagenituelako geundela gu proiektu horretan, eta, aldi berean, aniztasun horren bermea ematen geniola. Gure artean esaten genuen: “Ez gara inoiz egongo aniztasuna bermatzen ez duen eta independentea ez den proiektu batean. Bai Joxemi Zumalaberen garaian eta bai Iñaki Uriaren garaian”. Independentzia hori agerian uzteko, halako batean, Felix Cañada abokatuak galdetu zion Torrealdairi ea Auzmendi, Jaka, Uria eta Zumalabe alderdi politikoren bateko kideak izan ote diren. Torrealdaik, ezetz erantzuteaz gain, bestelako militantzia bat aldarrikatu zuen *Egunkaria*-ren sortzaileentzat. “Nik dakidanez, haietako bat ere ez. Euskal kulturaren eta euskararen militante gisa ezagutu ditut. Horrek batzen gintuen *Egunkaria*-n. Martin Ugalderen kasuan, Eusko Alkartasuna alderdian militantzia izateak mugatu egiten zuela irudi zezakeen, baina ez da egia: Martin Ugaldek aukera politikoen gainetik jartzen zuen euskara. Gure lokarria beti izan da euskalgintzako lana; hau da, euskararen alde, euskaragatik eta euskararen baitan lan egitea. Aipatutako pertsona horiek erabat independenteak dira, eta euskararen militanteak”.

Azken galdera sortari ekitear zela, Felix Cañada abokatuari orri batzuk erori zitzaizkion mahaitik lurrera. Hor zeuden hurrengo galderak. Berehala jaso zituen, eta ahalik eta azkarrena jarraitu nahi izan zuen galdeketarekin, baina paperak nahasita zeuden. *Post-it* batzuetan Joan Mari Torrealdaik eskuz idatzitako ohar labur batzuei buruz galdetu nahi zuen, baina erreferentzia zehatza ez zuen aurkitzen. “Har ezazu behar duzun denbora guztia paperak ordenatzeko”, esan zion orduan Javier Gomez Bermudez epaimahaiburuak. Baina ez zuen behar izan segundo batzuk baino.

—Azal dezakezu zer diren ohar horiek?

—1993ko *post-it* bat da, Mariano Ferrerren bidez *El Mundo*-ko kazetari Carlos Etxeberriren eskutik jaso berria nuen testu baten gainean jarri nuena. Testu hori jaso nuenean, bilera bat egin genuen Araetan, akziodunen batzarra prestatzeko. Martin Ugalde, Iñaki Uribe eta Joseba Jaka bildu ginen. Testua erakutsi nien, eta gogoratu genuen 1990eko testu bat zela, 1991n argitaratu zena. Joxemi Zumalabek ETBn ikustea lortu zuen testua da, ETBtik erredakziora *diktatutakoa*. Oharrean esaten da oso koiuntura garrantzitsua zela guretzat, Eusko Jaurlaritzarekin negoziazioan ari ginela, eta horrek hondoratu zitzaie gure harremanak. Erredakzioaren bidez, ezker abertzaleko jendearekin harremanetan jarri ginen, jakin nahian nondik etor zitezkeen halako testuak eta ea gehiago egon zitezkeen”.

—“Joxemirena da edo berak *diktatua*” esaldia Guardia Zibilaren txostenean “*Es de Joxemi, o dictado por él*” itzulita dago. Hori al da esanahia?

—“Joxemirena da” horrek ez du esan nahi testua Joxemirena denik, baizik eta Joxemik 1991n ETBtik diktatu zuena.

—*Post-it*-a jarrita zeukan testuaren egilea Joxemi Zumalabe da edo ez da?

—Ez da Joxemi, nola izango da! Ez dauka zentzurik. Egileak egiten dituen aipamenak ezin dira izan Joxemirenak.

Puntu horretan amaitu zen Felix Cañada defentsa abokatuaren galdeketak. Baina *post-it* horren gaia ez zen horretan itxiko: berriz azalduko zen hurrengo saioetan, bai guardia zibil perituen bai itzultzaile perituen ahotan. Izan ere, “Joxemirena da” apuntea Guardia Zibilaren tesiaren ustezko zimenduetako bat zen.

Txema Auzmendi, umiliatuaren haserrea

Azkena izan zen deklaratzeko Txema Auzmendi, abenduaren 15eko egun luze hartan. Batetik, zortetzat hartu zuen Txema Auzmendik azkena izatea, galderak eta erantzunak jakiteko aukera zuelako, baina, bestetik, hun-

kituta zegoela iritsi zitzaion txanda, aurrekoen tortura testigantzekin zirrara sentituta. Iñaki Uriaren lekukotasuna entzun zuenean, esate baterako, hain nabarmena izan zen hunkidura, ezen Xabier Oleagak eskua sorbaldan jarri zion animoa emateko, eta epaimahaiburua jarduna eteteko-tan egon zen.

Txema Auzmendi jesuita da. *Egunkaria*-ko administrazio kontseiluko idazkaria izan zen, hasieratik Guardia Zibilak itxi arte. 1988an hasi zen kazetaritza lanak egiten, Donostiako Herri Irratian, eta bertan 21 urtez aritu da, 1993tik 1999ra arte zuzendariorde karguan. *Egunkaria*-ren proiektuari hasieratik lotu zitzaion, Joxemi Zumalaberen bitartez. “Joxemi Zumalabe, Goenaga jesuitaren iloba, etorri zitzaidan hitz egitera, ea ni hurbil nintekeen sustatu nahi zuten taldera. Baietz esan nion, ideia erakargarria zela eta nik bat egingo nuela”.

Txema Auzmendiren kasuan, defentsa abokatuaren aurretik, beste auzi-petuen abokatuek galdekatu zuten, haiek esandakoa osatzeko edo berresteko. Joan Mari Torrealdairen abokatu Felix Cañadak gogora ekarri zion Auzmendi *Egunkaria*-ko zuzendari izatekoen zerrenda, 1990eko urriaren 5ekoa, berak eskuz idatzia baitzen. Lehen galdera haiei Auzmendi labor eta ahots meheaz erantzuten hasi zitzaion.

- Gogoratzen duzu zuzendari izateko hautagaien zerrenda?
- Bai, oso ongi gogoratzen dut.
- Biler horretan izan zinen?
- Noski, nik hartu nuen akta.
- Egia al da Zubiria jauna zuzendari aukeratu zela, gainerako guztiek huts egin ondoren?
- Bai, zerrenda osoa pasatu zen, ni barne.
- Ados zaude Torrealdaik, Uriak, Oleagak eta Otamendik deklaratu dutenarekin, batez ere zuzendarien aukeraketari buruz?
- Funtsean, bat nator. Agian ez hitz berberekin, baina esandakoa berresten dut.

Iñaki Uriaren abokatu Jose Maria Elosuak sumarioko beste akta bat ekarri zuen gogora. Txema Auzmendik eskuz idatzitakoa zen, 1992ko maiatzaren 30ean. Abokatuak ohartarazi zuenez, aktak bi zati zituen: bata

Egunkaria Sortzen taldearen bilera jasotzen zuena, eta bestea, ondoren eta jarraian egindako akziodunen batzarrarena. Bigarren zati horretatik pasarte bat ekarri zuen hizpidera Elosua abokatuak, zuzendariaren aldaketari buruzkoa: “Pello Zubiriak hasieratik azaldu zuen bere epe motzerako lan eskaintza, urtebeterakoa gutxi gorabehera; epea pasatu ondoren Iñaki Uria izendatu du administrazio kontseiluak zuzendaritza kargua har dezan”. Iñigo Iruinek, berriz, Xabier Oleaga eta Herri Irratiaren arteko loturari buruz galdetu zuen; bereziki, zergatik gonbidatu zuten *Musutruk* programako tertulia soziopolitikoan parte hartzeko. “Xabier Oleagak dohain bereziak zituen zubigintzarako”, laburbildu zuen Auzmendik.

Txema Auzmendiren defentsa abokatu Ignacio Pelaez galdetzen hasi zenean, epaimahaiburuak keinu esanguratsu bat izan zuen. Abokatuak aretoaren eskuinaldean zeudenez, Txema Auzmendi alde hartara begira erantzuten ari zen, burua jiratuz. Erosoago izateko, aurrera, hau da, aurrean zuen pantailara begiratzeko aholkatu zion Gomez Bermudezek Auzmendi. Baina, erosotasunaz gain, errugabetasun printzipioa ere argudiatu zuen. “Gainera, jiratzen ez bazara, atzean dagoen kamerak ez dizu aurpegia hartuko. Gero ezin izango zara kexatu agertzen bazara, horregatik diotsut”. Izan ere, telebistetarako irudiak grabatzen zuen kamera akusatuen atzean zegoenez ezin zuen aurpegiaren irudirik eman, haiek burua jiratzen ez bazuten, bederen.

Egunkaria-ren proiektuaren independentzia bermatzeko konpromisoa hasieratik argi utzi nahi izan zuen Txema Auzmendiren abokatuak. “Gure artean hitz egina genuen talderen batek proiektua kontrolatu izan balu aberrazio bat irudituko zitzaigula eta utzi egingo genuela. Argi nuen, militantzia kulturaletik eta nire ideia erlijiosoengatik”. Administrazio kontseiluko idazkari kargua zerbitzu gisa onartu zuen. “Ez zidan grazia handirik egiten; nahia-go izango nuen libratu, baina norbaitek egin behar lan hori. Ez zirudien, dena den, gehiegizko lana”.

Egunkaria-ko kide ez ezik beste hedabide bateko kazetari ere izateagatik garrantzia izan zuen ETArekin agiriaren argitalpenari buruz eman zuen testigantzak.

—Berresten duzu ETArekin agiriaren argitaratzeari buruz esandakoa? Ados zaude esandakoarekin?

—Erabat, ez nuke beste ezer ere erantsiko.

—Egia al da gaia aipatu zela administrazio kontseiluan eta, Otamendi jaunak esan duenez, argitaratzea hitzartu zela?

—Bai, garrantzia zuelako. Berria zen guretzat, eta ondorioak aztertu behar ziren.

—Jakitun zinen beste hedabide batzuetan ere ETArek agiriak argitaratu zirela?

—Bai, irratian egiten nuen eta banekien.

—Irratian ere emititu ziren?

—Bai, bai. Gutxienez, zuzenean ez bagenuen, eskatu egiten genuen, zati bat edo horrela.

Txema Auzmendiren galdeketa laburragoa izan zen, eta erantzunak azkarrago joan ziren. Abokatuak amaierarako utzi zuen atxilotetarekin lotutako bizipenak. Auzmendik luze eta zabal hustu zuen barrena.

—Amaitzeko, azal dezakezu, Auzmendi jauna, nola gertatu zen zure atxiloteta?

—Ahal badut. Ahaleginduko naiz. Ea ba. Goizaldean izan zen, ordu bata jota. Deitu zuten atean, ni oheratu gabe nengoen, eta gure etxera baldintzapean aske etorritako gazte kolonbiar bat, Carlos, ni baino azkarrago jaitzi zen, eta hark zabaldu zuen atea. Ni, orduan, komunitateko nagusia nintzen. Guardia zibil batzuk agertu ziren, eta nigatik galdetu zuten. Barrura eraman ninduten, sukaldera; ohar bat erakutsi zidaten, eta karguak irakurtzen utzi zidaten. Gero, nire gelara eraman ninduten. Pareta baten edo armairu baten kontra jarri ninduten, eta hor egon ginen bizpahiru ordu. Handik, Donostiako toki batera eraman ninduten, ezagutzen ez nuen toki batera; publizitate kontuetarako erabiltzen zen. Gero, uste izan nuen Intxaurrenondoko kuartelean egon ginela, eta handik Madrilera eraman ninduten. Bidaia gogorra izan zen. Ni ez naute jo; nire lagunei entzun dizkidan gauzak ez ziren horrela gertatu nire kasuan. Kontatu nion instrukzio epaileari, baina esan nion tratu umiliagarria izan zela, esan nion animalia bat ere ez zela horrela tratatu behar, eta pertsona bat gutxiago: “Zu bazara atxilotu baten giza eskubideen arduraduna, egunen batean hau pasatu beharko zenuke, zer den jakiteko”. Minduta hitz egin nuen, halako bidegabekeria iruditzen zitzaidan epaileak horrelakorik onartzea! Bost egunez, egunero tratu iraingarria, begietara begiratu ezinean... auzitegiko medi-

kuari izan ezik... Ezin dut kontatu, nire kideek esan dituzten oihuak, jende ezaguna zena, gertukoa...

Kontakizunaren une hartan, ahotsa hari fin eta urrakor bihurtu zen, eta azkenean isildu egin zen une batez, oroitzapenen gatibu. Abokatuak beste galdera bat egin zuen orduan.

—Tratu iraingarria aipatzen duzunean, zer esan nahi duzu? Zer gertatu zen?

—Autoan, atzean bi guardia zibilen artean eserita, denbora guztian makurtuta [keinua eginez]. Ez dakit orduan jarri ote zidaten zerbait ez ikusteko, baina Madrilerira iritsi ginenean bai. Bi galdeketa luze izan ziren, paretaren kontra eskuak altxatuta [besoak gora eramanez]; halako batean ezin nuen gehiago, eta baimena eskatu nien esertzeko, bestela erori egingo bainintzen. Gero, ziegatik ateratzean makurtuta joan beharra... eta ez begiratzea inori aurpegira, txakur bat bezala. Txakur bati uzten zaio begiratzen nagusiar... Guardia zibila izango zen emakume bati entzuten nion esaten ordu batzuk geroago alabarekin egongo zela, eta nire golkorako esaten nuen: “Zer esan behar diozu zure alabari, hemen ematen diguzuen tratu? Kontatuko diozu zer etikak baimentzen duen hau zuzenbide estatutuen baten izenean?”. Gorrotorik gabe, ez didalako horrelakorik inori, inori ere ez. Ez hari, ez inori. Baina...

—Aipatzen dituzun galdeketetan ez zegoen abokaturik?

—Bakarrik egun batean izan zen deklarazio formalago bat; nire kontuen arabera, hirugarrenean. Orduan esan zidaten emakume letradu bat zegoela eta haren zenbakia halakoa zela. Nire atzean, gona batzuk ikusi nituen, baina ez nion aurpegia ikusi, eta, noski, ez zidaten utzi aurpegiari begiratzen... Horrela ez nuela deklaratu esan nuen. Informazioa eskatu nuen, inoiz ez naizelako egon horrelako egoera batean, eta handik pixka batera berriro eraman ninduten ziegara.

—Begi-tara ez begiratzeko kontu hori aipatzen duzunean, esan nahi duzu Guardia Zibilak esan zizula aurpegira ez begiratzeko, beti lurrera begira egon behar zenuela?

—Bai, lurrera begira. Makurtuta eramaten ninduten, gerria beheraka bezala [keinua eginez berriro, hobeto azaltzeko], komunera edo edozein tokitara. Duintasunik gabeko jarrera bat zen beti. Inori ez zaio halako traturik ematen. Eta gero kolpeak, argia beti piztuta, izua, erabateko babesga-

betasuna... Zuzenbide estatu batean horrelakorik onartu ahal izateak, horrek ematen dit min.

Azalpena hunkituta amaitu zuen Txema Auzmendik. Ez zen galdera gehiagorik izan. “Atzean eser zaitezke”, esan zion epaimahaiburuak. Auzmendik ur pixka bat edan zuen aulkitik jaiki gabe. “Saioa eten egiten da; bihar berriz hasiko da, goizeko hamarretan, gabon”, itxi zuen Javier Gomez Bermudezek lehen saio luzea. Emozio giroa nabari zen aretoan. Atxiloketa garaian auzipetuek jasotako tratua salaketa irmoaren oihartzuna luze entzun zen.

Auzmendi altxatu eta jiratu zenean, Xabier Oleagarekin topo egin eta elkar besarkatu zuten. Ez zen izan berotasun keinu bakarra. Pixka bat geroago, gela husten ari zela, epaileetako bat hurbildu zitzaion Txema Auzmendiri, eta berari eta aldamenean zegoen Joan Mari Torrealdairi eskua eman zien, sentiberatasun keinu bat adieraziz. Biek gorde zuten une hura, harriduraz, erabat ezohikoa zelako, eta esker onaz.

Abenduak 16

Aurrez aurre

Ahazkorrak

Berehala iritsi zen lehendabiziko talka, akusatuen eta benetako akusatzaileren artekoa. Epai ketako bigarren saioan izan zen, lekukoaren txanda hasi zenean. Deklaratzen lehenak, ohi bezala, akusazioek eskatutako lekukoak. Haien artean aurrenak, bost akusatuen atxilotetetan, ondorengo miaketan eta deklarazio hartzeetan parte hartu zuten hainbat guardia zibil.

Zertarako nahi zituzten akusazioek guardia zibil haien guztien lekukotasuna? Funtsean, Guardia Zibilak egindako miaketan eta deklarazio hartzen akte baliok emateko. Hori guztiaren legezko prozeduren barruan egin zegoela adierazteko. Deituta zegoen lehen guardia zibila ez zen agertu. Idazkariak azaldu zuenez, ospitalean zegoen, pneumoniak jota. Bigarrena, R28575H zenbakiduna, auziko protagonista nagusietako bat zen, 2003ko otsailaren 20ko diligentzien instruktorea edo arduraduna, orduko atxilotu gehienei Madrilgo kuartelean deklarazioa hartu ziena. Garai hartan Guardia Zibileko kapitaina, egun komandantea.

Dignidad y Justiciako abokatuaren galderei erantzutea tramite bat izan zen guardia zibil instruktorearentzat. Atxiloaldian auzitegiko medikua eguneroko pasatu zela eta gorabeherarik ez zela gertatu esan besterik ez zuen egin. Iñaki Uriaren kasuan, ezohiko zerbait jazo zela onartu zuen: “Badakit zerbait gertatu zela: auzitegiko medikuak ikusi ondoren, orkatila bihurritu zuen-edo, eta berriro pasatu behar izan zuen medikuak ikusi zezan”.

Iñaki Uriaren lesioa justifikatzeko emandako azalpen labur horretatik aurrera, gainerako guztia ahaztura edo ongi ikasitako prozeduraren aipamena izan zen.

Iñaki Uriaren kasua bereziki esanguratsua da, inkomunikazioan jasan-dako tratuak ondorio fisikoak utzi zizkiolako: tratamendu fisioterapeuti-koa behar izan zuen lesioagatik. R28575H agentea izan zen atxiloaldia-ren arduraduna, eta deklarazioa hartzeaz arduratzen zena. Iñaki Uriaren abokatu Jose Maria Elosua saiatu zen gogora ekartzen ziegetan gertatu-takoa.

—Antzeman zenion Uria jaunari unerren batean lesio fisikoren bat? Antzeman zenion orkatilako lesio hori?

—Ez nion antzeman; badakit jakinarazi zidatela azterketa medikotik irten zenean behaztopa egin omen zuela edo horrelako zerbait, eta berriz sartu zela azterketa medikora.

—Ez zenuen ikusi herrenka?

—Ez dut gogoratzen; pentsatzen dut herrenka ibiliko zela.

—Ez zenuen ikusi arnasa hartzeko zailtasunak zituela eta saihets batean minez kexatzen zela?

—Harekin harremana izan nuen aldietan ez nuen ikusi arnasteko zailta-sunik zeukanik.

—Deklaratzeko garaian gainbehera fisiko eta psikikoa antzeman zenion?

—Ez dut horrelakorik gogoan.

—Guztiz normal ikusi zenuen?

—Ikusi izan banu gainbehera kezagarriren bat, auzitegiko medikuari deituko nion, eta ez nuen egin; beraz, pentsatzen dut egoera horretan dagoen pertsona bati dagokion egoera normala izango zela.

Atxilotuen gaineko ardua nagusia zuen guardia zibilari egin zion galde-
ketaren bidez, datu esanguratsu bat nabarmendu nahi izan zuen Iñigo Iruin
abokatuak: 60 ordu iragan ziren atxilotuak Guardia Zibilaren Madrilgo
egoitzara iritsi zirenetik deklarazio ofiziala hartu arte. Galdera-erantzune-
tan argi gelditu zen 60 ordu horien atzean zerbait ezkutatzen zela.

—Xabier Oleagari dagokionez, zuk parte hartu zenuen atxiloketan?

- Ez, nik agindu egin nuen hura atxilotzeko.
- Zuk agindu zenuen edo 3. Instrukzio Epaitegi Zentralak?
- Atxilotze aginduak ez ditu ematen epaitegiak; uste dut polizialak direla.
- Madrilera eramateko trasladoan parte hartu zenuen?
- Ez.
- Noiz izan zenuen harreman zuzena, pertsonala, Xabier Oleagarekin?
- Deklarazioa hartu nionean.
- Horren aurretik ez zinen egon unerren batean harekin?
- Egon bai. Azterketa medikoa egitera eramaten genuenean bertan egon behar nuen, gelaren kanpoaldean. Orduan ikusten nuen nola ekarzen zuten, nola pasatzen zuen azterketa medikoa, nola eramaten zuten. Baina, nik gogoratzen dudala, ez naiz gehiago egon harekin.
- Madrilera otsailaren 20an iritsi zen?
- Atxilotu guztiak iritsi ziren 20an, eta hura ere bai.
- Arratsaldean?
- Ez dut gogoratzen.
- Gogoratzen duzu Madrilera iritsi eta zenbat ordu geroago hartu zitzaion deklarazioa?
- Ez.
- Deklarazioaren aktan, 2003ko otsailaren 23ko 00:30ean izan zela agertzen da. Horrela da?
- Horrela izango da diligentzietan badago.
- Beraz, Xabier Oleaga Guardia Zibilaren egoitzara otsailaren 20ko arratsaldean iritsi bazen eta deklarazioa 23ko 00:30ean hartu bazitzaion, gutxi gorabehera 60 ordu iragan ziren. 60 ordu horietan zer harreman zuten izan zenuen Oleaga jaunarekin?
- Azterketa medikoa pasatu zuten aldi guztietan. Ikusten nuen nola iristen zen eta nola irteten zen. Hatz-markak hartu eta argazkiak egin zitzaizkion. Bertan ez nintzen egon, baina baliteke pasatzen ikusi izana. Eta gero, deklarazioa hartzean.
- Beraz, Oleaga jauna ordu asko ziegan egon zen? Denbora horretan, zer kontrola zenuen haren egoerari buruz?
- Kontrol pertsonala, batere ez. Nik gauza guztiak egoki funtzionatzen zutela zaintzen nuen. Ziegetan zegoen pertsonak eramango zuen kontrola, inkomunikazioaren gaia eta arazorik ez egotea zaintzen.
- Denbora horretan, 60 ordu horietan, galdeketak egin zitzioten?
- Ez, inola ere.

—Ez dut esaten zuk egin zenizkiola, baizik eta Guardia Zibileko beste kide batzuek.

—Ez nik jakinda, noski, eta, gainera, ia guztiz ezinezkoa da, nik badakidalako zer egiten ari ziren beste kideak.

Galdeketa hori gertatzen ari zenean, Iñigo Iruin abokatua 60 orduko tarteaz galdetzen ari zenean, Gomez Bermudez epailea ez zen isilik gelditu. “60 ordu ordu asko dira; espero dut hau ez izatea ohikoa etxe honetan”, esan zuen, mikrofonoa piztu gabe, baina inguruan zeuden guztiek entzuteko moduan.

Aitorpena

Bazirudien guardia zibilen deklarazioak ez zuela berritasunik ekarriko, zer esan eta zer ez esan ongi ikasia baitzuten. Baina defentsak bilatua zuen pitzadura bat harresi horretan. Gerora garrantzi handia izango zuen pitzadura bat. Guardia Zibilak instrukzioan izan zuen esku-hartzea agerian utzi beharra zegoen, inplikazio eta interes hori zela medio peritu gisa aritzeko ezintasuna frogatzeko.

Iñigo Iruin abokatuak ekin zion R28575H guardiaren galdeketari, pausoz pauso, patxadaz, zer utzi nahi zuen agerian argi duenaren ziurtasunaz.

—Instrukture gisa, ikerketa diligentzia ugari eskatu zenituen?

—Bai.

—Instrukture zeregina dela medio, txosten ugari egin zenituen prozedura honetan?

—Horrela da.

—Dozenaka txosten...?

—Ez dakit dozenaka izan ote ziren. Txosten ugari bai.

—Instrukture gisa, epaitegiari badaezpadako zenbait neurri eskatu zenizkion?

—Horrela da.

—Zehazki, 2003ko otsailaren 17an, Egunkaria SA, haren egoitzak eta lokalak ixteko eskatu zenion?

Orduan, instruktore izandakoa zalantzan hasi zen, ohartzen hasia baitzen orduko jardunak zein ondorio izan zezakeen prozeduran.

—Ez dut gogoratzen egunkari bat ixteko eska dezakedan edo epailearen ebazpen bat izan behar ote duen. Hitz horiek kausan agertzen den idatzian badaude, horrela izango da. Ez dut gogoratzen horrelako zerbait eskatu izana. Beste kontu bat da miaketak, kontu blokeoak edo horrelako zerbait eskatzea, baina egunkari baten itxiera ez dut gogoratzen oraintxe.

Iruin abokatu, baina, prest zegoen oroitzapenak berritzeko.

—Nahi genuke erakustea eginbideetako 47. liburukiko 13.014 folioa.

Idazkariak bilatu eta guardia zibilari erakutsi zion berak sinatutako idatzia.

Orria ongi begiratu ondoren, lehen aitortpena iritsi zen:

—Bai, eskatu egin nuen.

Abokatuak jarraitu zuen.

—Ofizio baten bidez, eskatu zenion epaitegiari Egunkaria Sortzen SM ixteko eta haren jarduerak bertan behera uzteko?

—Horrela agertzen bada, horrela izango zen; ez dut zehazki gogoratzen.

—Presidente jauna, nahi nuke 13.018 folioa erakustea.

—Horrela da.

—Azkenik, eskatu zenion 6. epaitegiari *Euskaldunon Egunkaria* ixteko?

—Berdin nago, ez dut zehazki gogoratzen ixteen kontua; ofizioetan agertzen bada, horrela izango zen.

13.016. folioa erakutsi ondoren, laugarrenez aitortu zuen R28575H guardia zibilak, orduan kapitain eta egun komandante denak.

—Horrela da.

Azken agiri horren idazpuruan, hau irakurri zuen: “*Asunto: solicitud de clausura del diario Euskaldunon Egunkaria. Destinatario: juzgado central de instruccion nº 6*” [“Gaia: *Euskaldunon Egunkaria* egunkaria ixteko eskaera. Hartzailea: 6. instrukzio epaitegi zentrala”]. Eta azken paragrafoan: “*Por todo ello, con la finalidad de interrumpir el uso que la banda terrorista E.T.A. está haciendo del instrumento de que ella misma se ha dotado, es por lo que se solicita la aplicación de la medida cautelar de clausura del diario Euskaldunon Egunkaria*” (letra lodia jatorrizko testuarena da) [“Horregatik guztiarengatik, ETak berak sortutako tresna horren erabilera eteteko asmoz, *Euskaldunon Egunkaria* badaezpada ixteko neurria ezartzeko eskatzen da”].

Egunkaria-ren defentsak agerian utzi zuen *Euskaldunon Egunkaria* ixteko neurria Guardia Zibilaren beraren ekimena izan zela, eta prozedura judicialaren arau guztiak hautsiz Del Olmo epaileari idatziz eskatu ere egin ziola. Berrero ere, agerian gelditu ziren Guardia Zibilaren nagusigoa eta instrukzio epailearen menpekotasuna.

Baina Guardia Zibilaren esku-hartze hori begi bistan jartzeak bazuen beste helburu garrantzitsu bat: guardia zibilek egindako peritu txostenak baliogabetzea. Defentsaren tesia argia zen: ezin zen onartu peritu moduan auziaren instrukzioan hain esku-hartze zuzena izandako inor edo hainbesteko interesa agerturiko inor.

Elkartasun olatua

Hotzetan bero

Epaiketa hasi zen astean hotza egin zuen; hotza Euskal Herrian, hotza Madrilen. Hotza kalean, hotza Auzitegi Nazionalean. Abenduaren 14an, igandearekin, Madrilerako bidaia egin zutenean, auzipetuek elurra ikusi zuten bazterretan. Bi egun geroago, bigarren saioa amaituta, etxera itzuli zirenean ere bai. Larunbaterako manifestazioa antolatuta zeukaten, *Egunkaria libre!* lelopean, eta aste osoan eguraldiaren beldur izan ziren, baina azkenean zerua argitu zen. Baina neguko eguzkiak ez zuen berotzen: Bilbon hotza zen nagusi. Hotz horrek duela zazpi urte bizi izandakoa eka- rri zien gogora auzipetuei. Horrela azaldu zien Joan Mari Torrealdaik, auzipetuen izenean, Bilbon bildutako milaka eta milaka laguni. “Adiskideok, hotz handia egiten zuen duela zazpi urte ere Guardia Zibilek Madrilgo Tres Cantos-eko kuartel nagusira eraman gintuztenean. Bide bazterrak elurturik ikusten genituen zirrikituetatik, burumakur, autoetan sartuta abiada bizian eraman gintuztenean. Hotza egiten zuen bakarturik, ostikoka eta irainka ibili gintuzten leize-zulo ilun hartan. Gutariko batzuentzat kartzela ere etorri zen gero. Hotz handia, zazpi urte haueta- koa ere”.

Hotz handia egiten zuen 2003ko otsailean ere, baina elkartasunaren sua berehala piztu zen, eta ez da inoiz itzali zazpi urte hauetan. Otsailaren 22ko Donostiako manifestazioa elkartasun sute handienetako bat izan zen, baina ez zen egun hartan itzali. Arloka eta herriz herri zabaldu zen

Euskal Herrian zehar, eta Euskal Herritik kanpo ere bai, bereziki Katalunian. Donostiako kaleak bete ondoren, Martin Ugalde Kultur Parkean jarri zen elkartasunaren sua, eta handik arlo guztietako jendea pasatu zen hura elikatzeko: kultur eragileak (kantariak, musikagileak, idazleak, bertsolariak, aktoreak, zinegileak, dantzariak...), kirolariak (pilotariak, futbolariak, mendizaleak...), hedabideetako eragileak, irakas-kuntzakoak, sindikalismokoak... Arlokako eredu hura berreskuratu egin zen epaiketa hurbildu zenean, hamaika elkarretaratzeren bidez. Hiriburuz hiriburu, herriz herri, berriro ere.

Zazpi urte horietan jasotako babesa eskertu nahi izan zuten auzipetuek Bilboko manifestazioaren amaieran, larunbat hotz hartan. “Zuen guztion berotasunagatik izan ez balitz, euskal gizarte zabal eta askotarikotik, gu geu bezalako herritar arrunten aldetik, erakunde sozialetatik, sindikatuetatik, alderdi politikoetatik, instituzioetatik adierazi zaigun beroagatik izan ez balitz, honezkero gogortuta geundekeen ahanzturaren zoko beltzean. Horren orde, aste honetan bertan burua ondo goian dugula agertu gara Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Ez gure gogoz. Duela zazpi urte bezala, gure borondatearen aurka. Baina zuei esker, burua ondo altxatuta oraingoan. Eta horrela joan eta itzuliko gara urtarrilean, ezarri diguten egutegiaren arabera. Zuei esker, burua goian dugula. Mila esker, guztioi, beste behin ere. Mila esker, zelan edo halan babesten gaituzuen euskal herritar guztioi eta bakoitzari. Gure eta gure familien izenean, mila esker, Euskal Herria!”.

Libre bizi nahia

Manifestazioa arrakastatsua izan zen, ikuspuntu kualitatibotik zein kuantitatibotik. Baita ekonomikotik ere, zeren eta, *Egunkaria aurrera* leloko plastiko urdinez jantzita, itsastekoen truke dirua biltzen aritutako *Egunkaria*-ko langile ohiak eta *Berria*-ko langileak pozik gelditu baitziren

herritarren eskuzabaltasunari esker jasotakoarekin. Harrituta zeuden nola ia zero gradu egin arren mahuka motzeko ehunka elastiko saldu zituzten. Adin eta kolore guztietako milaka herritarrekin batera, ordezkari politiko, sozial eta sindikal zabala elkartu zen Bilboko kaleetan. Toki nabarmenetan agertu ez baziren ere, hiru lehendakari ohiek parte hartu zuten manifestazioan: Carlos Garaikoetxeak, Jose Antonio Ardanazak eta Juan Jose Ibarretxek. Berriro ere, agerian gelditu zen *Egunkaria* auziaren bateratzeko ahalmena.

Ahalmen berezi horretaz ere hitz egin zuten auzipetuek bukaerako hitzaldian. “Ez da gugatik. Badakigu zergatik izan zen: euskarari berari eraso ziotelako eta hizkuntzarekin batera euskaldunoi eraso zigutelako; munduan euskara hutsean argitaratzen zen egunkari bakarrari eraso ziotelako; euskal herritarri izaera, nortasuna ematen dion euskara, euskal herritarrak maite duen euskara jipoitu zutelako... Horra zergatik esan zuen euskal jendarteak ‘nahikoa da, aski da’, duela zazpi urte. Eta orduko moduan orain ere. Horregatik diogu gaur, ozen, mundu zabalak entzuteko moduan: *Egunkaria libre*. Ez dugu nahi gure aurkako zigorrik. Ez dugu nahi gure aurkako zigorraren bitartez euskalgintzaren aurkako zigorrari bidea etorkizunean ireki diezaioten. Absoluzioa da injustizia eta bidegabekeria zuzentzen hasteko aukera bakarra. Ez dugu Justiziarik espero, ordea. Jada ez. Justiziak, gure absoluzioaz gain, kalteen ordaina eta txiki-zio honen errudunak akusatuen aulkian zigortzea eskatuko luke. Ez dugu hori espero. Baina gutariko bakoitza eta guztion absoluzioa baino gutxiago den ezer ez dugu ontzat emango. Adiskideok, amaitzeko, *Egunkaria* librea zelako itxi ziguten. *Egunkaria* sortzeko libertatea hartu genuelako zigorta gaituzte zazpi urte hauetan. Ez dadila berriz ere antzeko bidegabekeriari gerta! Euskaldunok, euskal herritarrok, libre bizi nahi dugu, *Egunkaria* libre izango den Euskal Herri librean”.

Fiskalaren lehen galderak

Akusatuen aulkitik

Epaiketako lehen egunak sortutako ikusmina alde batera utzita, auzipe-tuak berehala ohartu ziren Madrilgo hedabideek ez zutela interes berezi-rik *Egunkaria auzian*. Ez zela berriro izango lehen orrialdeko aipagaia. Eskertzekoa zen, beraz, *Público* egunkariak Joan Mari Torrealdairi eskai-nitako tribuna. Bizi izandakoaren laburpen sentitua egin zuen Torrealdaik, urtarrilaren 11n, hirugarren saioaren bezperan, *Público*-k argitaratutako *Akusatuen aulkitik* izenburuko iritzi artikuluan. Atxiloketaren ingurukoak gogora ekarri ondoren, instrukzio epailearen jokabide sinestezina nabarmendu zuen: “Instrukzioa urte batzuen buruan bukatu da, Del Olmo epailearen zeregina. Eta egiaztatzen duzu ez dela kontuan hartu gertaerei buruz zuk emandako bertsioa. Are gehiago, buelta eman diola. Adibidez, galdekatzen nauenean esanez ETak izenda-tu zuela Martxelo Otamendi eta ezetz esaten diodanean, nik proposatu niola kargua, ondorioa da ETaren mandatari naizela. Ez sinestekoa”.

Egia esan, Joan Mari Torrealdaik aste pare bat lehenago bidalia zuen artikulua. Esana zioten 12an aterako zela, baina auzi saiora sartu zenean, ordea, ez zuen ikusia. Akusazioek eskatutako lekukoen segida izan behar zuen: eginbideetan parte hartu zuten guardia zibil batzuk, lehenik, eta Jose Luis Santakristina, Carmen Gisasola eta Jose Maria Dorronsoro pre-soak, gero. Halako batez, Torrealdai bera ohartu zen tribunalak egunkari baten orri baten fotokopia zuela mahai gainean, eta artikulua irakurtzen

ari zirela. Gomez Bermudezek berak pasatu zion Saez Valcarceli, begira zezan. Kanpora atera zirelarik, Joan Mari Torrealdaik delako egunkaria eskuratu zuen. Martxelo zuen aldamenean. Orrira joan orduko, orriburuko marrazki horia ikusita, hara non konturatzen diren biak batera artikululu horixe ari zirela irakurtzen. Torrealdaik berak idatzitako *Akusatu*en *aulkitik* izenburuko artikulua.

Entzuketan itzultzailea

Guardia zibil gehienek lekukotasuna tramite hutsa izan zen egun hartan. Atxiloketa eta miaketan aktak berresteko deitu zituzten akusazioek. Defentsek Madrilerainoko bidaiari egiteko moduz edo dokumentu batzuk atzemandako tokiaz egindako galderak alde batera utzita, dena zirudien tramite astun bat. Baina Xabier Oleagaren atxiloketan parte hartu zuen E17085C guardia zibilaren galdeketa iritsi zen ustekabea. Jose Maria Elosua abokatuaren galdeketa piztu zuen gelaren arreta.

- Badakizu euskaraz?
- Pixka bat.
- Zein maila duzu?
- Oinarritzkoa.
- Elkarrizketa bat jarraitzeko adinakoa?
- Ez, horrenbestekoa ez.
- Akusatuetakoz batzuen telefono entzuketetan parte hartu al zenuen?
- Bai, batzuetan.
- Epaitegiei elkarrizketa horien laburpenak emateko orduan esku hartu al zenuen?
- Bai.
- Elkarrizketak gehienbat euskaraz ziren. Adibidez, Uria jaunaren kasuan elkarrizketaren bat entzun zenuen?
- Bai.

- Haietako zenbat ziren gaztelaniaz?
- Gutxi, egia esan.
- Zenbat euskaraz?
- Gehienak.
- Horrela izanda, zuk zeuk aurkeztu zenituen elkarrizketen laburpenak auzitegian?

Epaimahaiburua, beti bezala, adi zegoen, eta moztu egin zuen abokatuaren galdera zuzenduz eta argituz.

- Gakoa ez da nork aurkeztu zituen laburpenak, baizik eta nork laburtu zituen. Zuk egin zenituen laburpenak?
- Bai, laburpenak egin genituen.

Elosua abokatuak urrunago eraman nahi izan zuen galdeketa, agerian utzi nahian guardia zibilaren euskara maila ez zela nahikoa itzulpenak egiteko.

- Badakizu euskaraz?
- Oinarrizko maila...
- Baina zuk esan didazu elkarrizketak ez zenituela ulertzen. Hori galde-tu dizut hasieran, eta ez duzula ulertzen esan didazu...
- Oinarrizko maila dut, elkarrizketa normal bat ulertzeko adinakoa, oso hitz teknikoetan sartu gabe.
- Beraz, entzun egiten zenuen, eta jakite maila horrekin zer egiten zenuen? Itzulpena? Edo zuzenean laburpena egiten zenuen gaztelaniaz?
- Aurrena itzulpena egiten zen, eta gero laburtu egiten genuen.
- Zuk egiten zenuen laburpena?
- Bai, beste lankide batek eta biok egiten genuen.
- Euskarazko ikasketa tituluren bat daukazu? Oinarrizkoa, B, D...?
- Ez.
- Zein tokitan egin dituzu ikasketak?
- Donostian.
- Donostian non? Zentro ofizial batean? Ikastola batean?
- Ni han bizi nintzen, Intxaurrondon.
- Intxaurrondon bertan ikasi zenuen?
- Ez, kanpoan.

—Non?

—Institutuan, eskolan... hango bizimodu normalean.

Euskaraz elkarrizketa bat jarraitzeko gai ez zela aitortutako guardia zibila zen telefono entzuketan *itzultzailea*, Elosua abokatuak trebeki agerian utzi zuenez. Kasu hori, baina, itzulpenen atalean instrukzio guztian egindako desmasiaren izozmendiaren tontorra baino ez zen izango, peritu frogak geroago erakutsiko zuenez. E17085C guardia zibila berehala ezagutu zuten auzipetuetako batzuek, haien atxiloketan parte hartu zuelako. Aurpegia estalita aritu arren, erraz ezagutu zuten, gorpuzkera eta ahotsagatik: *Itñaki* deitzen zioten gainerako guardia zibilek, eta miaketan euskarazko paperen bat agertzen zenean berari deitzen zioten begiratu bat emateko.

Presoen lekukotasunak

Akusazioek eskatuta, hiru presok deklaratu zuten lekuko gisa. Lehena Jose Luis Alvarez Santakristina *Txelis* izan zen. Tribunalaren aurrean deklaratzeko aulkian eseri aurretik, eskuburdinak kendu zizkioten, epaimahaiburuak aginduta. Eskuburdinen presiotik libratu zenean, lehenik betaurrekoak kendu zituen, eseri, eta idazkariari ura eskatu zion. Betaurrekoak garbitu eta berriz jantzi zituen. Dignidad y Justiziako abokatuak galdeketari ekin zion; Santakristinak eztarria lehor zuenez, berriro eskatu zuen ura. “Bila joan dira; horregatik ez dugu laguntzailerik”, erantzun zion bizkor epaimahaiburuak. Laguntzaileak ia bost minutu behar izan zuen ura ekartzeko. Botila eskuratu zuenean, ireki ezinik zebilera, epaileak berak ohartarazi zion lekukoari tapoia askatzeko erlaitz batetik tiratu behar zuela.

Akusazioek *Egunkaria*-ren sorrera ETArekin lotzeko nahi zuten Santakristinaren lekukotasuna, atxilotu zutenean atzemandako bi agiri

aitzakiatzat hartuta. Dokumentuak erakutsarazi ondoren, honako galdera hau, nahasi bezain maltzurra:

—Jakitun zinen euskarazko egunkari horren sorrera ETAREN helburuetako bat zela, euskararen dinamizazioari dagokionez?

Santakristinaren erantzunak, ordea, ez zuen duda izpirik utzi.

—Hori guztiz faltsua da. ETA inoiz ez da saiatu eta ez du sustatu inolako egunkaririk, ezta horren antza duen ezer ere. Esaten ari naizena guztiz egia da.

Santakristinaren suhartasunak hitzik gabe utzi zuen une batez akusazioko abokatua. Isilune hori baliatu zuen presoak zerbait eransteke, epaimahaiari zuzenduz.

—Are gehiago, zuen baimenarekin, nire lekukotasuna eman dezaket izan dudana bilakaera autokritikoa egunkari hori sortu zenean irakurri nituen lekukotasunei esker izan zela, ETA eta helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzea kritikatzan zuten idazleei esker; horiei esker izan da nire bilakaera.

Erantzun horiekin, akusazioen ahalegina antzua izan zen. Gero, Miguel Angel Carballo fiskalak hartu zuen hitza, eta lehen galdera egin zuen. Ea ETAK *Egunkaria*-ren proiektuan interesik ote zuen galdetu zion aurrena Santakristinari. “Interes soziala” izan zezakeela erantzun zuen, baina besterik ez. Lehen eskuko informazio iturririk ote zuen galdetu zuen ondoren fiskalak. Ezezko erantzuna jaso zuen. “Ez genuen inolako informazio pribilegiaturik”. Azkenik, ea ETA saiatu ote zen proiektu horren lidergoa bereganatzen. Hirugarren ezezkoa jaso zuen.

Carmen Gisasola presoaren lekukotasuna ere laburra izan zen. Erakutsi zizkieten dokumentuak ez zituen ezagutu. Are gehiago: fiskalaren galdera bakarrari erantzunez, deklaratu zuen 1990eko azaroan atxilotu zutenean aldean ez zeramala agiririk. “Ez dakit zer zegoen autoan, baina nire esku ez zegoen dokumenturik”, azaldu zuen, berarekin batera beste lagun batzuk atxilotu zituztela gogorarazi ondoren.

Joxemi gogoan

Urtarrilaren 12ko saioa goizez bakarrik izan zen, astearte batean. Ez zegoen beste saiorik aste horretan; beraz, joan-etorria berehalakoa izan zen. Auzipetuek bezperatik bidaiatu zuten Madrilera, baina senide gehienek, eta haiekin batera elkartu ziren lagun, lankide eta gizarte ordezkariak, goizaldean egin zuten bidaia, autobusez, ohi bezala. Autobus horretan, Joxemi Zumalaberen neska-lagun Ostaizka Irastorza eta bion seme Jon joan ziren. Maddi alaba ezin izan zen joan, azterketak zituelako unibertsitatean. Joxemi Zumalaberentzat *Euskaldunon Egunkaria*-ren proiektua zein garrantzitsua izan zen jakinik, epaiketean egon behar zutela sentitu zuten. Ostaizka Irastorzak inork baino hobeto zekien zenbat esfortzu, zenbat neke, zenbat ordu eman zituen Joxemi Zumalabek proiektua jai zedin eta iraun zezan.

Joxemi Zumalabe Egia inprimategiko lanetik egin zuen jauzi hedabideen mundura, *Zeruko Argia*-ra. Krisian zegoen aldizkari haren eraldaketan eta *Argia* berrituaren sorreran parte hartu zuen. *Argia* astekaria sendotuta zegoenean, euskaldun askoren ametsa —euskarazko egunero-koa— gauzatzeari lotu zitzaion. 1990eko abenduaren 6an, *Egunkaria* sortu zenerako, Joxemi Zumalabe gaixo zegoen. Minbizia atzeman zioten. Hiru hilabete geroago, lehen ebakuntza egin zioten. Lanean jarraitu zuen proiektuan, ilusio guztiarekin. 1992ko azaroan egin zioten bigarren ebakuntza. Aste batzuk geroago, oso gaixo egon arren, *Egunkaria*-ren aldeko festan izan zen Donostiako belodromoan, medikua alboan zuela. 1993ko urtarrilaren 12an hil zen, 42 urte zituela.

Kasualitate bat izan zen. Ostaizka Irastorzak eta semeak ez zuten nahi-a aukeratu Madrilera joateko eguna. Bidaia antolatu zutenean ez ziren ohartu dataz; hobekien zetorkien eguna hautatu zuten, besterik ez. Baina eguna iritsi zenean, bai, gogoan izan zuten Joxemi Zumalaberen heriotzaren urteurrena zela, hamazazpigarrena. Auzitegi Nazionalean bertan gogoratu zuten korridoreetan Iñaki Uria lagunarekin, eta saioa amaitutakoan elkarrekin bazkaltzera joan zirenean jarraitu zuten oroitzapenak josten. Sentimenduz betetako eguna izan zen Ostaizka Irastorzarentzat.

Halakoetan iragana ufaka etortzen baita begietara, memoriaren begietara. Dena batera. *Egunkaria*-rekin lotutako une zorionsuen zein latzen oroitzapenak. Baita *18/98 auzian* zigortutako *Egin*-eko lankide ohien oroitzapenak ere. *Egunkaria*-ren kasuan, garai guztiak etorri zitzaizkion burura epaigelan guardia zibil lekukoen deklarazioa entzuten ari zen bitartean: sorrera garaiak, lehen pausoak, abiatze prozesua, lehen bi urte gogorak, instituzioekiko negoziazioak... eta Joxemi Zumalabe hil eta hamar urtera, itxiera, kontu korronteen blokeoa, haren inputazioa, hilda egonda ere.

Urtarrilak 25

“*Denok dena genekien*”

Defentsaren lekuko ‘babestua’

Luzea izan behar zuen urtarrilaren 25eko saioak. Deklaratzeko falta ziren lekuko guztiak —hogei inguru— deituta zeuden, eta han ziren, Auzitegi Nazionaleko beheko solairuko epaigelaren kanpoaldean, saioa hasteko zain. Kaos irudipenarekin hasi zen epaiketa eguna, eta ustekabe batekin amaitu, uste baino askoz lehenago. Kaosa, epaimahaiko laguntzailea lekuko zerrenda zahar batekin hasi zelako korridoreetan deklaratu behar zuten lekukoen bila, epaimahaiak onartu ez zituen lekukoen izenak esaten. Azkenean ohartu zen, eta zerrenda onarekin itzuli zen, baina orduan hiru lekuko falta ziren.

Nahasketa une horien ondoren, bati baino gehiagori kostatu zitzaion ulertzea nor zen deklaratzeko hasi zen lehen testigua. Aurreko saioan, herri akusazioek eskatutako lekukoak hasi ziren deklaratzeko. Batzuk hurrengo saiorako utzi zituzten. Baina ez zuten horiek hasi saioa, defentsak eskatutako lekuko batek baizik, eta babestutako lekukoek deklaratzeko duten tokitik egin zuen. Egun hartan hegaldi bat hartu behar zuelako jarri zuten eguneko zerrendan lehena. Fernando Berridi zen, *Abc* egunkariko gaur egungo zuzendari nagusia. *Egunkaria* sortu zen garaian, Fernando Berridi *El Diario Vasco* egunkariko kudeatzailea zen, eta gero zuzendari nagusia izan zen hainbat urtez. Egunkaria Sortzen-eko kideek *Euskaldunon Egunkaria* *El Diario Vasco* egunkariaren errotatiban inprimatzeko aukerari buruz galdetu zion Iñigo Iruin defentsa abokatuak. Hasieran ez zuen ongi gogora-

tzen nolakoak izan ziren orduko harremanak, duela hogei urte gertatuta-koak. Egunkaria Sortzen-ek bidalitako gutuna —errotatiba erabiltzeko aurrekontuak eskatzeko— erakutsi ziotenean ezagutu egin zuen, eta gogora etorri zitzaion nola ez ziren ados jarri, baina geroago zenbait harreman izan zituztela: batetik, *Egunkaria* inprimatzeko elurtea izan zen batean eta Iruñeko errotatiba matxuratu zen beste batean, eta, bestetik, urte amaiera-ko koloreetako *Urtekaria* argitaratzeko.

Txomin Aizpurua ETako kide ohiaren deklarazioa laburra izan zen. Haren izena aurreko saioan aipatu zen, beste presoekin batera deitu zutelako deklaratzera, baina ordurako aske zegoen, eta deialdia berriz egin behar zioten. Atxilotu zuten garaian (1991) atzeman omen zizkioten agiri-ri buruz galdetu zioten. Bi agiri erakutsi zizkioten, baina ez zituen eza-gutu. Ez zituztela inoiz ikusi erantzun zuen. Garai hartan harrera taldeko arduraduna zela eta atxilotu zuten etxetik jende asko pasatzen zela argitu zuen.

Hiru guardia zibilen deklarazioarekin osatu zen akusazioen lekuko zerrenda. Batek Martxelo Otamendiren atxilotetan parte hartu zuen, bigarrenak Txema Auzmendirenean, eta hirugarrenak Martxelo Otamendiren deklarazio hartzean. Azkenak bideo konferentziaz deklaratu zuen. Teorian, babestuta deklaratu behar zuen, baina haren irudia publikoak ere ikusi ahal izan zuen pantaila batean. Guardia zibil horiek ez zuten datu interesgarririk eman.

Fuenteovejuna

Jose Luis Zinkunegi Jesusen Lagundiaren euskal barrutiko arduraduna izendatu zuten 1985ean, eta sei urtez izan zen karguan. Beraz, Txema Auzmendiren nagusia zen *Egunkaria*-ren proiektua martxan jarri zenean. Zinkunegiren lekukotasuna garrantzitsua izan zen, kontatu zuelako nola

Txema Auzmendi joan zitzaion *Egunkaria*-ren proiektuaren berri emanez eta bertan parte hartzeko baimena eskatuz. Baimena emateaz gain, proiektuan parte hartzera animatu zuen Zinkunegik, “euskara hutsez” eta “askotarikoa eta irekia” zelako. Halaber, Txema Auzmendik Herri Irratian dedikazio osoa zeukala eta *Egunkaria*-tik ez zuela ordainsaririk jasotzen berretsi zuen Zinkunegi jesuitak.

Iñaki Zabaleta Irrati Telebistaren Informazioaren Teoria Teknikoa eta Teknologia katedraduna *Euskaldunon Egunkaria*-ren proiektuaren bultzatzaileetako bat izan zen, Egunkaria Sortzen taldearen barrutik. Lehen zuzendaria izateko hautagaietako bat izan zen, baina uko egin zion eskaintzari, irakaskuntzaren munduan Estatu Batuetara joateko aukera hobetsi zuelako.

Lehenik, Egunkaria Sortzen-en berri eman zuen. Proiektu ireki, herritar eta parte-hartzailea izan zela nabarmendu zuen. Bertan euskaltzaleak zeudela, baina pentsamolde, lanbide eta ibilbide ezberdinetakoak. “Euskal gizarteak izan zezakeen elkarterik pluralena zen, eta kide guztiak etikoak ziren”, azaldu zuen defentsaren galderei erantzunez. “Nork bultzatu zuen *Egunkaria*?” galderari erantzuteko, irudi literario bat erabili zuen, Lope de Vegaren obra ospetsua gogora ekarriz. “Fuenteovejuna bultzatu zuen Egunkaria. Fuenteovejuna kulturalak, idazleen Fuenteovejuna, unibertsitateko irakasleenak, kazetarienak...”. Proiektua martxan jartzeko orduan batzordeetan antolatu zirela azaldu zuen Iñaki Zabaletak, baina informazioa era irekian kudeatzen zutela argituta. “Denok dena genekien”, laburbildu zuen.

Proiektuaren pluraltasuna aldarrikatu zuen. Hain zuzen ere, izaera hori bermatzeko, 11 oinarri zehaztu zituen Egunkaria Sortzen taldeak. “Plurala ez balitz, ez genuen parte hartuko”, nabarmendu zuen. Enpresaren egitura juridikoa 11 oinarriak betetzen zirela bermatzeko modu bat zen, Zabaletak azaldu zuenez. Horregatik, Egunkaria SAko akzioen %50 baino gehiago gelditu ziren Egunkaria Sortzen-ek sortutako sozietate mugatua-
ren esku.

Horrez gain, Iñaki Zabaletak berretsi egin zuen auzipetuek lehen zuzendariaren aukeraketari buruz egindako kontakizuna. 1990eko irailean edo

urrian berari proposatu zioten kargua, baina ez zuen onartu, Estatu Batuetara joateko asmoa zuelako. Beste hautagaien berri bazuen; ez zen kontu sekretua. Azkenean administrazio kontseiluak Pello Zubiriari proposatu ziola baieztatu zuen. Bigarren zuzendariaren izendapenari dago-kionez, administrazio kontseiluak ere izendatu zuela berretsi zuen, eta Egunkaria Sortzen taldeari jakinarazi zitzaioela, akziodunen batzarra bildu aurretik. Hirugarren zuzendariaren aukeraketan, aldiz, ez zuen parte hartu. Ez zen falta izan ETAre balizko esku-hartzeari buruzko gal-dera zuzena. Zabaletaren erantzuna argia izan zen: “Ezin zuen parte hartu, eta ahal izan balu ere, ez genion inolaz ere utziko”.

Kazetaria lekuko

Imanol Murua Uria *Egunkaria*-n kazetari moduan lan egin zuen lekuko bakarra izan zen. Egunkaria Sortzen-eko kidea izan zen, eta hasieratik murgildu zen proiektuan, *Argia* aldizkaritik *Egunkaria*-ra jauzi eginez. Haren lekukotasuna garrantzitsua zen auzipetu guztientzat. Lehenik, lehen zuzendariaren aukeraketa prozesuari argia eman zion. 1990eko uda ostean jaso zuen *Egunkaria*-ko lehen zuzendaria izateko proposamena, Joxemi Zumalaberen eskutik. Ordurako bazekien hainbat hautagai zeudela, tartean Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Iñaki Zabaleta eta Jesus Mari Zalakain. Kazetaritza ikasketak amaitu berriak zituela, ezezkoa eman zuen ez zelako behar bezala prestatuta sentitzen.

Hasierako garai haietaz ari zela, Imanol Muruaren kontakizuna bat eto-rriz zen auzipetuek eta beste lekuko batzuek egindakoarekin. Ekarpen bat gehiago zen. Hirugarren zuzendariaren inguruko testigantzak balio handiagoa izan zuen; besteak beste, aukeraketa prozesuaren sekuentzia osatzen zuelako. 1993an, Joxemi Zumalabe hil eta gutxira, berriro proposatu zioten Imanol Muruari zuzendari izatea. Joan Mari Torrealdai eta Iñaki Uriak egin zioten proposamena. Bigarrenez ezetz esan zuen, ez zuelako

bere burua ikusten zeregin horretan, baina hautagai posible baten izena eman zien: Martxelo Otamendi.

Xabier Oleagaren kasuari buruz, erreferentzia garrantzitsuak eman zituen Imanol Muruak. 1995. urtearen hasieran hartu zuen eszedentzia, eta ordurako bazekien bere ordeztu Xabier Oleaga sartuko zela, bilera batean esan ziotelako. Halaber, ongi gogoratzen zuen ez zela batera egon inoiz Xabier Oleagarekin erredakzioan, eta, zehazki, ez zuela inoiz ikusi Lasarteko egoitzan. Lasartetik Andoainera, 1994. urtearen amaieran egin zen egoitza aldaketa.

Doluminak

Eguerdiko ordu bata eta hamar inguru zirela amaitu zen Imanol Muruaren testigantza; bazkaltzeko ordua hurbiltzen ari zen, baina Gomez Bermudez epaileak ez zuen saioa eteteko asmorik: soilik hamar minutuko atsedenaldirako baimena eman zuen. Orduan, telefono dei baten bidez, ama hil zitzaioa jakin zuen Antonio Guerrero AVTko abokatuak. Biziki hunkituta jakinarazi zien ondoan zituenei. Gertu-gertu zituen auzipe-tuak. Haiek ez zuten zalantza izpirik izan: berehala hurbildu zitzaizkion doluminak ematera eta kontsolamendua eskaintzera.

Ustekabearen aurrean, alde guztiekin adostuta, saioa etetea erabaki zuen epaimahaiburuak. Hurrengo saioa, biharamunerako aurreikusita zegoen arren, bi egun barru jarri zuen. Beraz, bidaian atzera-aurrera ez ibiltzeagatik, auzipetuek egunpasa egin behar izan zuten Madrilan. Gau hartan, elurra egin zuen Madrilan.

Urtarrilak 27

Gezuraren orkestra

Lekukoen puzzlea

Lekukoz lekuko, *Egunkaria*-ren egia osatuz jarraitu zuen auzipetuen defentsak urtarrilaren 27ko goizeko saioan. Eguneko lehen lekukoa Nerea Azurmendi izan zen, egun *El Diario Vasco* egunkariko erredaktorea dena, eta Komunikazio irakaslea Deustuko Unibertsitatean, Donostian. Garai hartan *Egunkaria* Sortzen taldeko kidea izan zen, eta lehenengo hiru urtetan *Euskaldunon Egunkaria*-ko hiru zuzendariordeetako bat. Halaber, lehen administrazio kontseiluan parte hartu zuen.

Nerea Azurmendik berretsi egin zuen *Egunkaria*-ren proiektuaren izaera irekia. Organoak irekiak ziren, eta lan dinamika oso parte-hartzailea. Milaka lagunengatik parte-hartzea informazioan oinarritzen zen. Horrez gain, Nerea Azurmendik osatu egin zuen auzipetuen deklarazioa, zuzendariaren izendapenaren aferari zegokionez. Batetik, baieztatu zuen berari ere proposatu ziotela lehen zuzendaria izatea. “Bi bidetatik izan zen, bi pertsonaren bidez, zeinekin harreman berezia bainuen: Martin Ugalde eta Joxemi Zumalabe”. Bestetik, lehen zuzendaria izateko hautagaien zerrendaren berri bazuela eta izen horiek kontseilutik haratago ezagunak zirela argitu zuen. Kazetari sena ahaztu gabe: “Kazetariak ez gara oso diskretoak berri korporatiboetarako dagokienez”.

Hurrengo lekukoak *Egunkaria*-ren aurrekariaren oihartzuna eraman zuen epaigelara. Sebas Barinagaerrementeria Ardatza enpresaren kudea-

tzaila izan zen 1980-84. urteetan, eta *Egin*-en argialetxe Orain enpresarena 1984-90. urteetan. Barinagaerrementerik azaldu zuenez, *Egin*-en argialetxeak euskarazko egunkari bat argitaratzeko proiektua izan zuen garai hartan. “1983an serio hitz egin genuen *Egin* argitaratzeaz gain euskaraz egunkari bat argitaratzeko aukeraz. Ez zen erraza, euskarazko produktu oso baten errentagarritasuna zalantzazkoa zelako”.

Geroxeago, Eusko Jaurlaritzak lehiaketa bat antolatu zuen asteroko euskarazko egunkari baten argitalpena diruz laguntzeko. Azkenean, bi proiektu onartu zituen: *Hemen*, Orain argialetxeak aurkeztutakoa, eta *Eguna*, Iparragirre enpresarena. “*Hemen* produktu eder bat zen, ongi egina, baina ikusi genuen horrekin ez zela konpontzen euskarazko egunkari baten beharra”. *Egin*-en argialetxeak eutsi egin zion euskarazko egunkari baten proiektuari, baina ez zuen beste pausorik eman. “Kontua da ikusi genuela Egunkaria Sortzen-en proiektua gero eta indar gehiago hartzen ari zela”.

Orain eta Egunkaria Sortzen-en arteko harreman komertzialen berri ere eman zuen lehenengo enpresaren orduko kudeatzaileak. Hori izan zen fiskalari interesatu zitzaion gai bakarra.

— Orain eta *Egunkaria*-ren arteko harremana, orduan, komertziala izan zen edo irabazi-asmorik gabeko sostenguarena?

— Ez, inolaz ere. Harreman erabat komertziala zen. *Egin*-eko kudeatzaile gisa hitz egiten ari naiz.

Egunkaria-rekin harreman estua izan zuten bi enpresatako arduradunek deklaratu zuten segidan: bata, Simeon Barroso, informatika arloko Apika enpresako bazkide fundatzailea; bestea, Ander Larrañaga, Antza inprimategiko administrazio kontseiluko presidentea. Biek azaldu zituzten zein zerbitzu eta zein baldintzatan eskaini zizkioten *Euskaldunon Egunkaria*-ri. Enpresa horien berezitasuna, dena den, *Udaletxe proiektuko enpresak* delako agiri ospetsuan aipatzen zirela zen. Horregatik zuen garrantzia Barroso eta Larrañagaren lekukotasuna, defentsaren ikuspuntutik.

El Mundo egunkariak dokumentu horren lehen erreferentzia kaleratu zuenean izandako erreakzioa azaldu zuen Barrosok: “*El Mundo del País Vasco*-ko erredakziora joan nintzen kexua agertzeraz, hura erabat faltsua

zelako. Ez zeukan ez hankarik ez bururik; haserretu egin nintzen eta protesta egin nuen”. Baina funtsezko galdera Elosua abokatuak egin zuen beste hau izan zen:

—Apikak edo bere lege ordezkariaren batek urte hauetan guztietan jaso al du edozein deialdi polizial edo judizial KASekiko balizko lotura hori dela eta?

—Ez, inoiz ez.

Enpresak jarraitu du urte hauetan guztietan, “ezer gertatu ez balitz beazala”. Antza inprimategiaren kasua bera izan da. Ez du inoiz izan deialdirik, eta lana normal-normal egiten jarraitu dute denbora honetan. “Izen berearekin eta toki berean, Lasarte-Orian”, Ander Larrañagak zehaztu zuenez.

Beste lekuko batzuk auzipetuen deklarazioa baieztatzen eta auzipetuen soslaia osatzera deitu zituen defentsak. Jonan Fernandez izan zen horietako bat. Haren lekukotasuna baliotsua izan zen Xabier Oleaga, Martxelo Otamendi eta Txema Auzmendirentzat. Jonan Fernandez egun Baketik bake zentroko zuzendaria da, baina 90eko hamarkadaren hasieran Elkarri-ko koordinatzaile eta bozeramaile zen. Garai hartan ezagutu zuen Xabier Oleaga, analista politikoaren eginkizuna zela medio. Akordioa eta adostasuna bilatzeko joera zen, Jonan Fernandezek ustez, Xabier Oleagaren ezaugarri nagusietako bat. Horrez gain, Elkarri-ko bazkide eta Elkarri-ren aldizkariaren ohiko kolaboratzaile zela baieztatu zuen Fernandezek. Txema Auzmendiren kasuan, Elkarri-ren fundatzaile taldeko kidea izan zela fede eman zuen Fernandezek, baita indarkeriaren kontrako ageriko jarrera zuela ere.

Martxelo Otamendi, berriz, Tolosan ezagutu zuen, biak bertan bizi baitziren. Biak Herri Batasunaren Tolosako zerrendan aurkeztu ziren 1987 eta 1991ko hauteskundeetan. Bi kasuetan, independente gisa. “HBrekin loturarik ez geneukan pertsona batzuei gonbita egin ziguten zerrendetan parte hartzeko”. Martxelo Otamendiren kasuan, “Tolosako kultura eta euskararen munduan zuen izen onagatik gonbidatu zuten”. 1991ko hauteskundeetan, Jonan Fernandez hautatua izan zen, independente gisa, baina bospasei hilabete geroago uko egin zion karguari, Lurralde mugimenduan buru-belarri aritzeko. Zerrendako hurrengo Otamendi

zen, baina uko egin zion kargua hartzeari. “Adierazi zuen ez zuela jardue-
ra publikorik edo politikorik izateko bokaziorik”.

Iñaki Zubeldiak eta Imanol Igeregik Xabier Oleagaren inguruko lekuko-
tasuna eman zuten. Iñaki Zubeldia egun Gasteizko Olabide ikastolako
zuzendaria da, eta aurretik Errenteriako Orereta ikastolako zuzendaria
izan zen. Garai hartan, 1996an, Xabier Oleaga Errenteriako ikastolako
lehendakaria izatera iritsi zen, eta hurrengo urtean, Iñaki Zubeldiak pro-
posatuta, Partaideko komunikazio aholkulari bihurtu zen. Imanol Igeregi
Partaideko zuzendaritzako kidea zen orduan (egun, Euskal Herriko
Ikastolen Elkarteko zuzendari nagusia). Igeregiren testigantza garrantzi-
tsua zen Oleagarentzat, haren kontrako akusazioaren zentzugabekeria
agerian uzten zuelako. Guardia Zibilak eta akusazioek ETAko kide izatea
leporatzen zioten, bulegoan *Zutabe* agerkariaren lau ale zituelako. Baina
ez zuten ezer aipatzen bosgarren aleari buruz —Bixente Lizarazuren
kasua aipatzen zuena—, ezta horri buruz Ikastolen Elkartearen izenean
prestatu zuen prentsa oharrari buruz ere. Hain zuzen, horren inguruko
zehaztasunak eman zituen Imanol Igeregik. *Zutabe* hartan, ETAk jakina-
razi zuen Bixente Lizarazuri bidalitako gutunean ekarpen ekonomiko bat
egiteko eskatu ziola eta iradoki ziola ikastoletara, euskal selekzioetara edo
Udalbiltzara bideratzeko. Igeregik jakinarazi zuenez, Xabier Oleagak pro-
posatu zuen adierazpen publiko bat egitea eta berak idatzi zuen prentsa
oharra, Lizarazurena zein beste edozein behartze saio arbuizatzeko.
Akusazioek ez zuten galdera bat bera ere egin, defentsak aurkeztutako tes-
tigantzak nola ahuldu ez zekitela nabarmen utzita.

“Lur jota zegoen”

Joxe Azurmendi Filosofia katedradun eta idazlearen testigantza une
gogoangarrietako bat izan zen epaiketean, auzipetuen deklarazioekin bate-
ra. Lekuko eta peritu gisa deklaratu zuen. Euskal kulturaren historia

modernoan barrena bidaiatzeko balio izan zuen ordu erdi hark. Kontakizunaren abiapuntua 1966an jarri zuen, Carlos Santamariak, Ricardo Arregik eta Joan Mari Torrealdaiak *Jakin* aldizkaria birfundatu zutenean. Orduko talde hartan Carlos Santamaria zen “pertsona erabakigarria”, adina eta prestakuntzagatik. “Oso gogoeta garrantzitsua egin zuen euskal kulturaren etorkizunari buruz”, azaldu zuen Joxe Azurmendik tribunalaren aurrean. Gogoeta hori 1967an argitaratu zen, *Jakin* aldizkarian. “Indio erreserba bihurtu nahi ez badu euskal kulturak izan behar dituen ezaugarriak zehaztu zituen: botere publikoekiko independentzia, alderdiekiko independentzia, independentzia ekonomikoa, bere buruari eusteko gaitasuna —diru laguntzetatik bizi behar badu ez baitu bizitza normala—, profesionaltasuna, zeren eta ordura arte euskal kultura zaleen kontua izan baitzen... Gero *Egunkaria*-rekin agertzen diren 11 puntuak Carlos Santamariak 1967an egin zuen gogoetaren errepikapena izan baitziren”.

Jakin taldearen ekarpena garrantzitsua izan zen *Egunkaria*-ren sorreran, bai Paulo Agirrebalzategiren bidez, bai Joan Mari Torrealdairen bidez. Agirrebaltzategi *Jakin* aldizkariko erredakzio kontseiluko kidea eta Euskal Kulturaren Batzordeko (EKB) lehendakaria zen. Torrealdairen kasuan, *Egunkaria* Sortzen-en sustapen batzordean integratu zen, Carlos Santamariak eta Martin Ugaldek bultzatuta. Jakin taldekoek, baina, inplikazioa mugatu zioten Torrealdairi proiektu berrian: “Ugaldek eta Santamariak Torrealdai Egunkariaren proiektura eraman nahi izan zutenean, jarri genituen baldintzetako bat izan zen ez ziola utziko *Jakin*-eko zuzendari izateari. Soldata *Jakin*-etik jasoko zuela. *Jakin*-i lotzeko modu bat zen”.

Joxe Azurmendiren deklarazioak beste norabide bat hartu zuen, Felix Cañada abokatuak galdetu zionean ea Joan Mari Torrealdairekin egon zen aske gelditu zenean, espexetik irten berria zela.

—Esaguzu nola zegoen —galdetu zuen abokatuak.

—Lur jota zegoen —labur erantzun zuen Azurmendik, eta burumakur eta pentsakor gelditu zen.

—Hunkituta zegoen? —berriz ere abokatuak.

—Erantzungo dizut —hasi zen erantzuten, arnasa hartu eta indarrak bildu ondoren—. Negarretan zegoen, hiru orduz hitz egiten aritu zen, nik ahoa zabaldu gabe...

Emozioak behartuta, lehen geldialdia egin zuen. Ez zen eten bakarra izango.

—...torturatu egin zutela esan zidan, baina amak erabaki zuela ezer ez esatea, haurrengatik...

Berriro eten zuen. Indarrak bildu eta aurrera jarraitu zuen, hitz batzuk zezelkatuz.

—Berehala lur jota gelditu zela esan zuen, atea hautsiz sartu zirelako, garrasika eta kolpeka... eta lur jota gelditu zen haurrak ikusi zituenean guardia batekin, arma batekin haiei apuntatzen, aita arrastaka nola eramaten zuten ikusten ari zirela...

Galdeketa-aren amaieran, Joxe Azurmendi ez zen gelditu bere aditu iritzia eman gabe *Egunkaria*-ren kontrako prozesuari buruz. Filosofia katedratik hitz egin zuen akusazioen eraikuntzari buruz. “Harritzen nau hipotesiak egiten ari direla inoiz agertzen ez diren gertaerak azaltzeko. Hipotesiak egiten dira ez dauden gertakariak azaltzeko, eta gero esplikazio hipotesiak gertaeratzat jotzen dira”.

Epailea eta euskara

Joxe Azurmendik deklarazioa amaitu zuenean, epaimahaiburuak bost minutuko etenaldia egin zuen. Denok eskertu zuten. Ez bakarrik saioa luze zihoalako, baizik eta torturei buruzko testigantzak emozioz bete zuelako berriro epaigelako giroa.

Deklaratzen aritu zen bitartean, esku artean folio batzuk ibili zituen Joxe Azurmendik. Deklarazioa amaitutakoan, etenaldian, Javier Gomez Bermudez epailea joan zitzaion jakin-minez galdezka ea zer ziren paper

haiek. 1993an, 1.000. alearen harira, EHUko unibertsitatean *Egunkaria*-ri buruz egindako txostenaren datuak ziren. Eskuetan eraman zituen pentsaturik horretaz galdetuko ziotela, baina ez zioten galdetu. “Zer daramazu esku artean?”, galdetu zion Gomez Bermudezek. Azurmendik edukia azaldu zion, eta ohartarazi euskaraz zeudela. Hala ere, epaileak hartu zizkion paper haiek eta eraman egin zituen. Horrekin batera, zerbait gehiago esan zion euskararekin lotuta, baina gero, Azurmendik Torrealdairei kontatu zionean epailearekin izandako elkarrizketa, ezin izan zuen zehazki gogoratu.

Hurrengo saioaren amaieran ase ahal izan zuen Torrealdaik jakin-mina. Epaiketa amaituta, elkar agurtzeko unea baliatu zuen.

—Aizu, zer esan zenion Joxe Azurmendiri, euskara zela eta?

—Tira, nik estimu handia diot euskarari. Emaztearen ama bizkaitarra da, eta euskaraz badauki. Eta gabonetan euskal gabon kantak kantatzen aritzen gara.

Eta epaileak, gainera, zatitxo bat kantatu zion akusatuari, igogailuraino ko bidea egiten zuten bitartean, bi bizkartzain atzetik zeramatzatela.

Hizkuntzaren heriotza

Joseba Intxausti historialari, ohorezko euskaltzain eta *Jakin*-eko kidea lekuko eta peritu gisa aritu zen, Joxe Azurmendi bezala. Egunkaria Sortzen-en taldean hogeit hamar lagun inguru Euskaltzaindiarekin lotuta zeuden. Interes horren jatorria azaldu zuen Intxaustik. “Hizkuntzaren normalizazio soziolinguistikoa ezinezkoa da tresna jakin batzuk gabe. Hizkuntza bat hedabiderik gabe uzten bada, modernitatean bidera ezina da hizkuntza hori komunitate minoritario batean. Ez existitza kondenatzen da”. Zein izan zen *Jakin*-ek *Egunkaria*-ren proiektuari

eginiko ekarpena? Aniztasun kulturala, Joseba Intxaustiren hitzetan. “*Jakin*-en ekarpena izan zen Egunkaria argi eta garbi zabala izan zedin, inoren menpe egon gabe, baina aldi berean denon menpe, kultura askotarikoren ispilu”.

Hizkuntzaren traizioa

Lehen peritu froga dokumentuen itzulpenari buruzkoa izan zen. Auzipetuen defentsaren helburua argi zegoen: erakustea Guardia Zibilak euskarazko dokumentuetatik eginiko itzulpenak eta Auzitegi Nazionaleko itzultzaileek egindako erkaketa ez zirela fidagarriak, akatsez beterik zeudelako eta auzipetuei kalte egiteko asmoz eginak zirelako.

Sei itzultzaile zeuden deituta deklaratzeko: akusazioek deituta, Auzitegi Nazionaleko bi itzultzaile; defentsak deituta, lau itzultzaile. Batetik, Egunkaria Sortzen-ek sortutako hainbat dokumenturen itzulpena egin zutenak (Joseba Osa eta Ramon Egiguren), eta, bestetik, Guardia Zibilak aurkeztutako itzulpenen analisisa egin zutenak (Bego Montorio eta Oskar Arana). Akusazioek deitutako bat ez zen agertu, duela lau urte utzi zuelako itzultzaile lana Auzitegi Nazionalean, eta haren helbidearen berririk ez zeukatelako. Uko egin behar izan zioten testigantzari. Bestea lekuz kanpo zegoen, hamabi itzulpen berresteko deitu zutelako, eta ez zituelako berak egin, baizik beste pertsona batek.

—Ez da ageri nire sinadura begiratzen ari naizen dokumentu hauetan; ez dakit nik egin ote nituen —ohartarazi zuen itzultzaileak.

—Eman fede ez dela sinadurarik agertzen —agindu zion Gomez Bermudezek laguntzaileari—. Ez da ageri sinadurarik.

—Barkatu, epaile jauna —hitza hartu zuen Dignidad y Justiciako abokatuak—. Alde honetatik huts bat egon da, zeren eta interpretea Iñaki Abaigas baita.

—Sentitzen dugu, baina nik dakidala pertsona hori ez dago deituta. Beste galderarik?

—Ez, ez dago beste galderarik —erantzun zuen abokatuak ia ahopean, lotsaturik.

Dena den, aztergaririk interesgarriena Guardia Zibilak egindako itzulpenen balioa zen. Bego Montorio itzultzaileak azaldu zuen itzulpenei buruz egindako txostena, Elosua abokatuaren galderen bidez. Txostenaren berririk ez zeukatenei sinestezina iruditu zitzaien Bego Montorioren ahotan entzuten ari zirena. “Egiaztatu egin genuen dokumentuetan itzuli gabe utzi zituztela hitz bat, esaldi bat edota orri bat baino gehiago. Eranskinetako batean, badago interpreteak egindako bigarren itzulpen bat fotokopia desordenatuak abiapuntu hartuta, eta emaitza zentzurik gabeko testu bat da”. Beste pasarte batzuetan, defentsaren perituek jatorrizko testuan ez zeuden izen, ohar eta esaldiak antzeman zituzten. Beste batzuetan, itzulpen nahasiak, jatorrizko testuaren zentzua errespetatzen ez zutenak. Eta edukizko huts nabarmenak ere bai. Bego Montoriok adibide sorta bat eman zuen:

- Ene uste apalean (jatorrizkoan) = *en mi opinión, en la estantería* (Auzitegi Nazionaleko interpreteek berretsitako itzulpena)
- Banaketa = *votación*
- gidoilari = *conductor*
- akzio = *accionista*
- zuzentzaile taldea = *equipo de dirección*
- errespetu = *repasso*
- onetsi = *habilitar*
- elkarrizketa = *negociación*
- foro = *fuero*

Orduan, epaimahaitik gertu zeudenek Javier Gomen Bermudez epaileari entzun zioten: “Niri ere, euskaraz ez dakidala, astakeria iruditzen zait”.

Perituek, baina, beste oker mota kezagarriago bat ere deskribatu zuten. “Kasu batzuetan, jatorrizko testuetan existitzen ez diren ideiak islatzeko asmoa antzeman dugu”. Testuaren zentzua aldatu, auzipetuen inkriminazioa bilatzeko. Hona hemen kasu paradigmaticoa. Agirietako batean, honako esaldi hau agertzen zen: *“Egunkaria-ren zuzendaria zela eta zela ETArri informazioa eskaintzen omen zitzaion paper horietan”*. Guardia Zibilak honako itzulpen aldrebes hau egin zuen: *“En esos papeles se puede entender que el director de Egunkaria era y no era el que ofrecía información a ETA”*. Perituak azaldu zion tribunalari itzulpen zuzena oso bestelakoa zela: *En los citados papeles, al parecer se ofrecía información sobre el director de Egunkaria”*.

Beste adibide bat aipatu zuen Bego Montorio perituak. Beste agiri batean, honako esaldi hau zegoen: “Ezin argigarriago izan dokumentuaren helburua, nahiz eta barruko paperak irakurrita eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren bilakaera ezagututa, halako ondorioz ateratzerik ez egon”. Guardia Zibilak, ordea, zentzua aldatu zion itzultzean: *“No puede estar más claro el contenido del documento. Una vez leído el contenido de los documentos y conocida la evolución del periódico Euskaldunon Egunkaria sin haber sacado conclusiones como estas...”*. Perituak itzulpen zuzena azaldu zuen: *“La finalidad del documento no puede ser más evidente, si bien leído el contenido de los documentos y conociendo la evolución de Euskaldunon Egunkaria, no sea posible sacar conclusiones como esa.”*

Azken azalpen horiek Gomez Bermudez epaimahaiburuaren arreta ere piztu zuten: perituari galdetu zion ea txostenaren zein orritan adierazten zen hori gutzia. Oharra gorde zuen bere ordenagailu txikian.

Perituen presentzia baliatuta, fiskalak, eta Iñigo Iruin eta Felix Cañada abokatuak, argibide batzuk eskatu zituzten testu batzuei buruz. Felix Cañada abokatuak Joan Mari Torrealdairen agenda batean eskuz idatzitako ohar batzuen itzulpenari buruz galdetu nahi zuen. Epaimahaiburuak zehazteko eskatu zion, eta, horretarako, laguntzaileari esan zion agenda eraman ziezaiola, orri batzuen bidez muga zitzan aztertu beharreko pasarteak. “Noski, bertan idatzi gabe”. Abokatuak agenda eskuratu zuen, zutitu zen, orritxoak tartekatzen hasi zen, baina seinatzeko modu hori ez zitzaion nahiko argigarria. Antza, ez zuen entzun Gomez Bermudezen oharpena.

—Errotuladore laranjarekin egin dezaket apunteetan bertan? —galdetu zion Felix Cañadak epaileari, esku batean errotuladore bat zeukala eta bestean agenda.

—Ez, ez. Agenda ezin da ukitu, agenda konbikzio piezaren zati bat da, ez, ez. Konbikzio pieza bat den bitartean eta jabeari itzuli arte ezin da ukitu.

Ateraldiak irribarre bat baino gehiago eragin zuen epaigelan, baina segidan aztertu beharreko gaia ez zen txantxetakoa. Fiskalak eskatuta, epaimahaiak onartu zuen perituek iritzia ematea Joan Mari Torrealdairen *post-it* batean idatzitako ohar baten itzulpenaz. “Ados gaude, Joxemirena da” esaldia zen auziaren mamia; izan ere, akusazioek ohar horixe erabili nahi zuten esan ahal izateko *post-it* azpian zegoen dokumentuaren testua Joxemi Zumalabek idatzia zela. Epaimahaiburuak hamar minutuko ete-naldia egin zuen, perituak bil zitezen eta azter zezaten eskuizkribua.

Bost perituak ados zeuden. Bego Montoriok egin zuen bozeramaile lana. *Post-it*-eko esaldiari Guardia Zibilak emandako itzulpena aipatu zuen lehenengo. “*Estamos de acuerdo, es de Joxemi*, itzulpen posibleetako bat da. Beste itzulpen posible bat hau da: *Es lo de (o la de) Joxemi*. Testuinguru gehiagorik gabe, ezin dugu esan zein den egokia”. Argi gelditze aldera, perituaren itzulpena errepikatu zuen epaimahaiburuak, ordenagailuan oharra hartzen ari zen bitartean, eta itzultzaile perituen bozeramaileak berretsi zuen.

Gezur-eraikitaileak

Peritu frogaren bigarren atala guardia zibilek egindako txostenen ingurukoa izan zen. Sei guardia zibilek deklaratu zuten. Batetik, auziko txosten gehienek egileek: R28575H komandanteak eta U35843T tenienteak. Horiek, txostenek egileak izateaz gain, diligentzien instruktorea eta idazkaria ziren: Del Olmo epaileari *Egunkaria* itxeko eskatu zion guardia zibi-

la (2003an kapitain) eta bere laguntzailea. Bestetik, azken orduan, epaiketaren atarian, 2009ko abenduan, akusazioek eskatuta Guardia Zibilak aurkeztutako txostenaren egileak ziren beste lau agenteak: hiru kapitain eta kabo bat. Peritu gisa deklaratu zuten, nahiz eta gero epaimahaiak ez zien aitortuko peritu izaera.

Luze jardun zuten, hiru ordu inguru, jarraian. Lehen zatian, Dignidad y Justicia elkarteko abokatuak jarritako gaiak jarraituz aritu ziren. Lehen zatian, komandanteak eta tenienteak bakarrik hartu zuten hitza, txandaka. Lehenik, sumarioko agiriaren inguruko interpretazioak egin zituzten, gehienetan txostenetako pasarteak irakurriz. Gero, auzipetu bakoitzaren inplikazioari buruz galdetu ziren akusazioak. Deklarazioaren zati hori nahiko nahasia izan zen, gehienbat oso agiri ezberdinetako aipuetan eta horien interpretazioetan oinarritzen zelako.

Deklarazioa prestatuta eraman zuten, *power point* moduko dokumentu batean, Kutxaren anagrama zeraman eta elkarri pasatzen zioten karpeta batean. Orkestra batek bezala deklaratu zuten, elkarri lagunduz, elkarri akatsak zuzenduz, oharrak ahopeka pasatuz, komandantearen zuzendaritzapean. Baina batzuetan galdu ere egiten ziren beren amaraunean. Une batez, tenientea Joan Mari Torrealdairen balizko inplikazioari buruz ari zen, eta argudio berri bat azaltzen hasi zen: “Gainera, zenbait pertsonaren deklarazio judizialean ikusi ahal genuen...”. Isilunea. “Barkatu, haria galdu dut; nondik nindoan?”. Beste isilune bat, eta gaia aldatuz jarraitu zuen. Beste behin ere gertatu zitzaion. “Beste datu garrantzitsu bat...”. Isilunea. “Ez dut gogoratzen zer esan behar nuen”. Eta ez zuen jarraitu.

Zalantzezko une horiez gain, lapsus esanguratsu bat izan zuen U35843T tenienteak, Dignidad y Justicia elkarteko abokatuak Joan Mari Torrealdairen inplikazioa non aurkitzen zuten galdetu zioenean. “Hipotesian aurkitzen dugu; ez, hipotesian ez: sortzaileen kontseiluari buruz lehen aipatutako ondorioan”. *Hipotesia* izan zen burura etorri zitzaion lehen hitza, eta ohartzean zuzendu egin zuen.

Izan ere, fiskalaren lehen galdera akusatuen inplikazioa ondorioztatze-ko moduz harridura agertzeko izan zen. “Auzipetuen inplikazioa badi-

rudi ondorioztatzen dela oinarritzat hartzen delako ETAk argitalpen hori kontrolatuko zuela, eta zuzendaritzan toki bat hartzen zutenek inplikazio horretan parte hartzen zutela”. Fiskalak gogoeta egin zuen, galdera zehaztu gabe. Orduan, Gomez Bermudez epaileak egin zien galdera: “Diskurtso horri eusten diozue?”. Akusazioak espekulazioak baino ez zirela agerian utzi zuen komandanteak emandako erantzunak: “Eusten diogu diskurtso horri, bereziki Auzmendi jaunaren kasuan. Zinez, ez da agertzen bandaren agiri bakar batean, non antzeman daitekeen bandak harengan konfiantza jartzen duen edo karguren baterako izendatzen duen, baina, hala ere, administrazio kontseiluetan parte hartzen du, eta aktak sinatzen ditu, eta aktak faltsuak dira, ez dutelako errealitatea islatzen, eta denetan parte hartzen du. Sinesgaitza dirudi konpainiaren benetako egoeraz ez ohartzea”. Auzmendi ez da agertzen ETaren paperetan, ez dago zantzurik ETArekin lotzeko, baina ETako kide edo laguntzaile bihurtzen dute Guardia Zibilak eta akusazioek, soilik administrazio kontseiluko idazkaria izateagatik.

Perituen azalpenetan aurkitutako kontraesan pare batez galdetuta, fiskalak ikerketaren hutsune nabarmen batez galdetu zuen.

—*Egunkaria* ETari zerbaiterako baliagarria zitzaiola ondorioztatzeko jardunen bat aurkitu duzue ildo editorialean?

—Ez da izan ikerketa ildoetako bat, guretzat *Egunkaria*-ren albiste guztien itzultzeak eta interpretatzeak dakarren arazo larriagatik; batez ere, logistika arazoengatik. Ez zaigu posible izan ikerketa hori egitea.

Komandanteak aitortutako hutsunea disimulatu nahian edo, tenienteak 74. *Zutabe*-ko esaldi bat baliatu zuen, *Egunkaria*-ri *zeregin bat* emateko. Esaldia honako gogoeta hau zen, guardia zibilak irakurri zuenaren arabera: “Ongi dago euskarak hizkuntza ofiziala izan behar duela, baina, euskararen zabalkunderako, babes egitura sare bat ehundu beharra dago”. Eta esaldiaren ondoren interpretazioa:

—Hori interpretatzen dugu *Euskaldunon Egunkaria* betetzen ari zen funtzioa zela. Zeren eta esku hartu genuenean eskualdeko egunkari batzuen zabalkunde bat abiatzen ari zen, eta deskubritu genuen marka erreserbatuta zeukatela irratirako zein telebistarako. Beraz, haren

proiektua lehentasunezko hedabide gisa zabaltzea eta gizartea euskalduntzea zen.

Gizartea euskalduntzeko helburua, delitu bihurtuta. Hain sinplea, hain absurdoa. Baina benetakoa, *Egunkaria*-ko bostak akusatuen aulkitik entzuten ari baitziren guardia zibil horren argudioak.

Defentsei txanda eman baino lehen, ea jarraitzeko moduan zeuden galdetu zien Gomez Bermudez epaileak sei guardia zibilei. Bi ordu luze zera-maten deklaratzeko, zutik, lekuko babestu edo perituentzako tokian sei aulki jartzeko lekurik ez zegoelako. Etenik gabe jarraitzea hobetsi zuten guardia zibilek.

Guardia zibilak zutik ikusteak atxiloketaren une haiek gogorarazi zizkien auzipetuei, berriro ere. “Nik hamabi ordu egin nizkian zutik”, esan zion Xabier Oleagak ahopeka aldamenean zeukan Martxelo Otamendiri. Gogora etorri zitzaion, ezinbestez, Madrilera iritsi zen egunean guardia zibil bat ziegara garrasika sartu zeneko unea. Hark eskuak atzean zutik paretaren kontra jartzeko agindu zion, eta horrela egon behar izan zuen hurrengo hamabi orduak.

Ezin zuten ekidin ordu ilun haietara itzultzea, deklarazioa hartzen aritu zitzaizkienak aurrean zituztenenen artean baitzeuden. Auzipetuetako batek, Xabier Oleagak, gogoan zuen polizia etxean deklarazioa hartu ziotenetako bat. Bizar luzexka zuen, eta orduan gezurrezkoa zela pentsatu zuen, desitxuratzeko zela, baina epaigelan ikusi zuenean ohartu zen benetakoa zela. Seikote horretan ari zen, txostenen pasarteak gora eta behera. Beste auzipetuetako batek, Martxelo Otamendik, tortura saioetan parte hartu zuten guardia zibiletako bat ezagutu zuen aurrean zituen sei *perituen* artean, ahotsagatik. Kutxaren karpetarekin zegoena. Gogoan zuen zuzenean hitz egin ziolako. Orduko elkarrizketa absurdoa etorri zitzaion gogora.

- Aizu, niri *Torque* deitzen didate, badakizu zergatik?
- Torquemadagatik izango da.
- Badakizu nor den Torquemada?
- Bai, Guardia Zibilaren fundatzailea.

Torquemada ez zen izan Guardia Zibilaren fundatzailea, jakina, baizik Espainiako lehen inkisidore nagusia, juduak kanporatzearen sustatzailetako bat eta tortura galdekatzeko metodo gisa hobesteagatik ezaguna. Ez da harrizkoa, beraz, Martxelo Otamendik inkomunikaziko egun haietan izan zuen nahasketa. Anekdotak eta ahotsa gogoan iltzaturik gelditu zitzaizkion Martxelo Otamendiri. Del Olmo instrukzio epaileari jakinarazi zion *Torque* izenekoaren ahotsa ezagut zezakeela. Zazpi urte geroago berriz entzun ahal izan zuen.

Defentsa abokatuen galdeketa akusazioen funtsik eza erakustera bideratu zen. Horretarako, zeharkako bide bat hartu zuten abokatuak, tesi nagusiari eusteko eraikitako zutabeen ahultasuna agerian utziz, hura berez eror zedin, hareazko gaztelu baten antzera.

Lehen pausoa Guardia Zibilak epaiketa baino egun batzuk lehenago aurkeztutako txostenaren balioa auzitan jartzea zen. Azken orduko txosten hori akusazioen amarru bat besterik ez zen. Akusazioek bazekiten peritu frogak gisa aurkeztuta zeuzkaten txosten guztiak bi guardia zibilek eginak zirela, polizia ikerketaren inktoreak eta idazkariak, eta horrek ekar zezakeela txostenak balio gabetzea, partzialtasunagatik. Horregatik, azken orduan, beste txosten bat eskatu zuten, beste guardia zibil batzuek sinatua, baina aurrekoen tesiak berresten zituenak. Azken txosten hori ez zela txosten berri bat, baizik eta besteen bilduma hutsa zela erakustea: horixe izan zen Jose Maria Elosua defentsa abokatuaren lehen lana.

—Metodologiaren atalean, ez duzue aipatzen Guardia Zibilak aurretik ETA-KAS eta *Egunkaria*-ren arteko ustezko harremanari buruz egindako beste txosten batzuk kontuan hartu dituzuenik. Zergatik?

—Dokumentazioa baldin badaukagu, zuzenean ekingo diogu dokumentuak aztertzeari.

—Orduan, zuen kideek luze aipatu dituzten txostenak ez al dituzue aintzat hartu?

—Eskura izan ditugu.

—Eskura izan dituzue, baina zuek...

—Dokumentazioa berriz ikertu dugu, eta ondorio batzuk atera ditugu.

—Ez al dituzue aintzat hartu txosten horiek? Ez dituzue *ebaki eta kopia*-

tu, ez kasu batzuetan, baizik eta ia txosten osoan? Ez dituzue errepikatu ezin konta ahala paragrafo?

—Uste baduzu horrela izan dela...

Epaimahaiburuak ez zion utzi perituari horrela erantzuten.

—Ez, ez. Galderak erantzun bat dauka: bai edo ez. Galdera zuzena da. Galdetu dizu ea kontuan hartu dituzuen kideen txostenak, ea txostenen zatiak hartu eta txosten berria egin duzuen edo azterketa autonomoa egin duzuen. Hori da galdera.

—Azterketa autonomo bat egin dugu, baina beste txosten batzuetatik zatiak atera ditugu, bai.

Une horretan, Elosua saiatu zen erakusten azken txostena esaldiz esaldi kopiatutakoa zela, baina Gomez Bermudezek ez zion utzi alderaketa hori egiten.

—Zure txostenean esan ezazu, eta tribunalak egiaztatuko du —moztu zion epaimahaiburuak.

—Epaile jauna, saiatzen ari naiz erakusten perituak ez direla egia esaten ari erantzunetan...

—Esan ezazu txostenean, eta salak aztertuko du froga. Salak peritu guztiak batera deklaratzeko jarri baditu, txostenetan batasun bat dagoelako izan da. Gainera —presidente gisa ari naiz, ez tribunal gisa—, begi bistakoa da 75/2009 txostena beste guztien laburpena dela.

—Epaile jauna, ez da laburpen bat, erreproduzio bat baizik.

—Elosua jauna, ez dezagun eztabaida aingeruen sexuari buruz.

Hala ere, Elosuak berriro ekin zion, eta lortu zuen epaileak zehatz-mehatz galdetzea perituei:

—Aurreko txostenetatik *ebaki eta itsatsi* egin duzue?

—Bai, zatiak.

Horraino helduta, helburua lortuta, Elosua jatorrizko txostenen egileei hasi zitzaien galdetzen. Lehen galdera sortak bi helburu izan zituen: dokumentuen interpretazioan hipotesiak baino ez zeudela erakustea, eta

dokumentu horien egileek ez zutela informazio zuzenik ohartaraztea. Adibidez, *Urriak 26* izeneko dokumentuaren interpretazioan txostengileek kutxa bakarra eta *Egin* eta *Egunkaria*-ren arteko kontseilu mistoa aipatu zuten, eta abokatuak galdetu zien ea horri buruz datu zehatzik aurkitu ote zuen ikerketan. “Azkenean, alde horretatik, ez da ezer zehaztu”, onartu zuen komandanteak. Halaber, aipatutako dokumentuan agertzen ziren M.G. inizialen atzean Martin Garitano zegoela esaten zuten, Elosua abokatuak galdetu zien ea inoiz egiaztatu zuten Martin Garitano *Egunkaria*-ko zuzendari izateko hautagaia izan zela. Tenientearen erantzuna argigarria izan zen: “Identifikazio hori txosten batzuetan sartzen da egiaztatu gabeko hipotesi gisa”.

Elosuaren galdeketaren eraginez, hipotesien gehiegizko erabilera ez ezik, ezjakintasuna ere agertu zen.

—Egiaztatu duzue ea *Egin*-ek 1989. urtearen amaieran euskarazko egunkari bat argitaratzeko proiektua ote zuen?

—Posible da izatea, baina ez daukat horren berririk.

—Bazenekien *Egin*-ek aurreko bi urteetan argitaratu zuela egunkari formatua zuen astekari bat, guztiz euskaraz?

—Bai, uste dugu izan zitekeela *Punto y Hora*, baina ez dakit ziur.

—*Punto y Hora*? Egunkari itxurarekin?

—Ez dakigu.

—Ez al zenuten astean behin soilik euskaraz argitaratzen zen *Hemen* izeneko egunkari baten berririk?

—Ez, ez nuen horren berririk.

—Bazenekiten garai hartan *Deia*-k argitaratuta beste egunkari bat zegoela, formatu berarekin?

—Badakigu *Deia* asmo horren atzetik zegoela, baina ez dakigu egunkari hori existitzen ote zen.

Jose Mari Elosua abokatuaren galdeketaren ondoren, Iñigo Iruinena etorri zen. Guardia Zibilarren txostengileek eraikitako gazteluaren setioarekin jarraitu zuen Xabier Oleaga eta Martxelo Otamendiren abokatuak. Lehenik, dokumentu multzo bati txostengileek egotzitako data jarri zuen auzitan. Abokatuaren galderei erantzunez, perituek onartu behar izan zuten Garikoitz 93/05-ek eta hari dagokion erantzunak,

Garikoitzari 93/02-k, data bera eta ordu bera daukatela. Horrek esan nahi zuen ez zegoela ziurtasunik dokumentu horien datari buruz, biak egun berean eta ordu berean sortzea ezinezkoa zelako. Beste hainbeste gertatzen da Hontza 93-02 dokumentuarekin eta hari dagokion erantzunarekin, Garikoitzari 93/03 izenburukoarekin, biak 1993ko martxoaren 18koak. Kasu horretan, gainera, erantzuna bestea baino minutu bat lehenago sortua zegoen. Perituek aitortu behar izan zuten data horiek “gutxi gorabeherakoak” zirela. Dokumentuei egotzitako dataren ziurgabetasuna agerian utzita, zalantzan gelditu zen guardia zibilek eraikitako kronologia ere.

Hurrengo zeregina kodeen inguruko tesia indargabetzea izan zen. Txostengileen ustez, erakunde bat edo enpresa bat ETaren barne agirietan kode batekin aipatzen zenean, haren menpe zegoelako seinale zen. *Egunkaria*-ren kasuan, Kode Berriak izeneko dokumentuan, EEP siglak *Egunkaria* izendatzeko zela argudiatu zuten guardia zibilek. Bederatzi galdera nahikoa izan ziren tesiaren ahultasuna agerian uzteko.

- EEP klabea agertzen den dokumenturen bat aurkitu duzue?
- Ez –tenienteak hartu zuen gai honetan erantzuteko ardura.
- 1990, 1991 eta 1992. urteetan, *Egunkaria* esamoldea aipatzen den dokumenturik aurkitu duzue?
- Bai.
- Bat baino gehiago?
- Bai.
- Aizpuruari atzemandako Urriak 26 dokumentuan, hitzez hitz esaten da: “*Egunkaria* eta 50-ren artean kontseilu misto bat sortzea proposatu da”. Zer da 50?
- Egin*.
- Beraz, *Egin*-entzat klabea erabiltzen da eta *Egunkaria*-rentzat ez?
- Ez.
- Noizkoa da 74. *Zutabe*?
- 1995eko abendukoa.
- Klabearen bat erabiltzen da *Egunkaria* aipatzeko?
- Izenarekin aipatzen da.
- Noizkoa da Arizkureni atzemandako *Kronika*?
- 1998ko abendukoa, gutxi gorabehera.

—*Egunkaria* esamoldea erabiltzen da?

—Bai.

Beste tesi inkriminatzaile bat *Zutabe* aldizkaria ETaren barne agerkaritzat jotzea zen, eta ondorioztatzea *Zutabe* bat zuena ETako kide zela. Guardia Zibileko perituek onartu zuten gaur egun *Zutabe* aldizkaria ez dela barne agerkari bat, baina noiztik? 100. aletik, 2003ko martxotik, hau da, *Egunkaria*-ren kontrako operazioa egin eta hurrengo hilabetetik. Argudio horrek, baina, berehala huts egin zuen, Iñigo Iruin abokatuak 94. *Zutabe*-rekin batera atxikirik zihoan gutuna gogorazazi zienean: “Azken urteotan *Zutabe*-k bilakaera positiboa izan du eta barne buletin bat izatek izaera publikoa edukitzera pasatu da”. Tenientearen erantzuna defentsiboa izan zen: “2002tik 2003ra, horrela gertatzen zelako egiaztapenik ez dugu aurkitu, ohar hori salbu”. Baina beste egiaztapen argigarri bat begi bistan zeukaten, hain zuzen, Martxelo Otamendiren bulegoan atzemandako *Zutabe* bati lotutako idazkian.

—Lehen esan duzu gutun hori komandoei atzeman zaien modukoa zela. Baina ez al da egia gutuna baino gehiago oharra dela, “Hedabideei” izenburukoa, “ETaren prentsa gabinetea” izenekoak bidalia?

—Gutuna ikusi nahiko genuke, ez baikara gogoratzen dokumentu guztiekin —erantzun zuten komandanteak. —Bai, horrela jartzen du —gehitu zuten idazkia esku artean izan ondoren.

Xabier Oleaga *Egunkaria*-n lanean noiz hasi zen argitzea helburu garrantzitsua zen haren abokatuarentzat. Guardia Zibilaren bertsioaren arabera, Xabier Oleaga 1993ko martxoan sartu zen *Egunkaria*-n. Zergatik garai jakin horretan? Haren sarrera ETaren erabaki baten ondorioztat aurkeztu nahi zutelako, horretarako Xabier Oleaga aipatzen zuten 1993ko otsaileko dokumentu pare bat baliatuta. Tesi horri eusteko datu objektiborik ote zuten galdetu zien Iruinek guardia zibilei. Deklarazio judiziala aipatu zuen tenienteak. Horrez gain, beste daturik ote zeukaten galdetu zien epaimahaiburuak. “Oleaga jauna 1993tik aurrera hasi zen idazten artikulua *Egunkaria*-n”, erantzun zuen. “Noiztik?”, galdetu zuen berehala Iruinek. Urtarriletik, urtarrilaren 9tik. Hain zuzen ere, Garikoitz 93/05 dokumentuan aipatua izan baino lehenago. Beraz, 1993an sartuta ere, ezinezkoa zen Guardia Zibilak nahi zuten lotura egi-

tea. Baina ez horregatik bakarrik. Gizarte Segurantzaren agiriaren arabera, argi zegoen 1995ean sartu zela. Horri helduz biribildu zuen Iruinek gai horri buruzko galdeketa:

– Gizarte Segurantzaren agiria bezain datu objektiborik baduzue esateko Xabier Oleaga Martxelo Otamendirekin batera sartu zela?

–Ez –erantzun zuen komandanteak.

Etenik gabe, atsedetik eman gabe, Martxelo Otamendirekin lotutako agiri baten interpretazioari buruz galdetzen jarraitu zuen Iñigo Iruin abokatua.

–Martxelo Otamendiren izena proposamen bat da, zuen ustez?

–Erredakzio zehatzak honela dio: *‘opción: Martxelo Otamendi, de Tolosa’* [aukera: Martxelo Otamendi, Tolosakoa] –berriz komandanteak.

–Irakurri, irakurri lehentxeago –Iruinek, pazientziaz.

– *‘...Ha aparecido una nueva opción y después de hablar con él...’* [Beste aukera bat agertu da eta harekin hitz egin ondoren...].

–Hor dago. “Beste aukera bat agertu da”. Esan diezagukezu zein daturen arabera bihurtzen duzun esaldi hori KAS teknikoaren proposamen? Edo ez da izango agertu dela kanpoko zerbait gisa, idatzi duenarekin zeri-kusirik gabe?

–Bi erataria uler daiteke.

–Ez dago galdera gehiagorik.

Guardia Zibilaren txostenen egileen deklarazioak hiru ordu luze iraun zuen. Saioak froga dokumentalarekin jarraitu zuen, baina sei guardia zibilen deklarazioa amaitu bezain laster, beste guardia zibil bat irten zen epaigelatik. Goi kargudun bat zen, haien arduraduna. Goizeko saioan, entzule gisa agertu zen, eta, tarteka, arratsaldean deklaratu behar zuten agenteekin biltzen zen. Arratsaldean, saioari berrekin aurretik berriz bildu zen haiekin, eta gero, haien txanda hasi zenean, epaigelako bazter batean eseri, eta adi-adi entzun zuen deklarazio osoa.

Otsailak 1

Txostenak eta tipula zopa

Akusazioen disko urratua

Goizeko hamarrek jota, akusatuen aulkian eseri zirenean, bost auzipetuek ez zuten sumatzen eguna hain luzea izango zenik. Ez zuten espero txosten guztiak azaltzeko denborarik egongo zenik, ondoren azken hitza hartuko zutenik, eta gero etxe okupatu batera afaltzera joango zirenik. Epaimahaiburuaren lan erritmoa ezagututa, ez zuten baztertzen aukera hori, eta, horregatik, azken hitza hartzean esan beharrekoa pentsatuta ekarri zuten, baina ez zekiten noiz iritsiko zitzaien azken gogoeta adierazteko ordua.

Patxadaz hartu zuten tokia. Berokiak kendu, atzeko aulkietan utzi, saketako telefonoak isilarazi... Baina azken saioa izango zen hartan, ohiko erri-tualetik aldenduz, libreta txiki bana atera zuten Martxelo Otamendik eta Joan Mari Torrealdaik lehenik, eta Txema Auzmendik geroago, akusazioen azalpenak entzun eta apunteak hartzeko prest.

Dignidad y Justicia elkarteko abokatuak irakurri egin zuen ondorioen txostena, 45 minutuz, abiadura handiz, lehenbailehen epaiketaren azken orrialdea pasatu nahi izan balu bezala. Dignidad y Justiciako abokatuaren txostenak epaiketaren aurretik idatzia zirudien, auzi saioan entzundakoa gertatu ez balitz bezala aritu zelako. Horrela, harri eta zur entzun behar izan zuten auzipetuek nola argudiatzen zuen itzulpenen akatsak “hutsalak” izan zirela, gainera, defentsaren perituen txostena aipatuz.

Halaber, bost auzipetuek entzun behar izan zuten haien tortura eta tratu txarren salaketek ez zeukatela sinesgarritasunik. “Aipatu beharra dago gertaera objektibo bat: Auzitegi Nazionaleko auzitegiko medikuaren txostenak, akusatu guztien azterketa medikoa jasotzen zutenak. Horietan ez da agertzen torturak eta tratu txarrak jasotzeari sinesgarritasunik edo egiazkotasunik emango liokeen zantzu edo markarik, ez fisikorik eta ez psikikorik, atxiloketa batek eragin dezakeen antsietate egoera alde batera utzita”. Hain seguru ez zen izango akusazioaren abokatua ondorio horri buruz, azkenean uko egin baitzion auzitegiko medikuaren lekukotasunari. Horrez gain, akusazioen galderei ez erantzun izana ETArekiko loturaren adierazletzat jo zuen DyJko abokatuak. “Uko egin zioten akusazioen galderei erantzuteari, eta horrek, halabeharrez, alde honi gogorarazi zion ETA erakunde terroristako kideek izaten dituzten jarrerak, haren agin- duei jarraituz”.

Frogatutako gertaeren atalera iritsi zenean, Guardia Zibilaren txostenen laburpena besterik ez zuen egin Dignidad y Justicia elkarteko abokatuak, *Euskaldunon Egunkaria* ETAk bultzatutako eta zuzendutako proiektua izan zelako tesi errepikatuari helduta. Abokatu horrek ez zuen auzipetuek deklaraturakoaren aipamenik egin bere ondorioen txostenean. Epaiketaren aurretik aurkeztutako akusazioaren idatziaren pasarteak errepikatuzera mugatu zen, Guardia Zibilak agiriei buruz txostenetan egingako interpretazioa ontzat joz. Lekukoek testigantzari buruz, aipamen labur bat egin zuen, baina haiek deklaratu zuten egun horietan itsu eta gor egon zela pentsatzeko moduan. “Lekuko-froga zabala egin da, non ahozko saiotik euskal kulturako oso pertsona garrantzitsu eta itzal handikoak pasarazi dituzten, baina aipatu besterik ez du egin pertsona horien curriculum, denek euskararen alde egiten duten defentsa, eta akusatu guztiak zein profesional onak diren adierazi. Edozein modutan, deklarazio horietatik bat ere ez da deskargu froga izan”.

AVT elkarteko abokatu Antonio Guerrerok beste estilo bat hautatu zuen ondorioen txostena azaltzeko, erretorikaren ohiko arauetara gehiago hurbilduz. Hanpadura dosi batez aritu zen, akusazioen ahulezia estali nahi izan balu bezala. “Alde honen ustez, frogatuta gelditu dira akusazio idatzian jasotako gertaera guzti-guztiak, eta, ondorioz, akusatu guztien zigorrak eskatzen du”, hasi zuen hitzaldia AVTko abokatuak.

Akusatuen tortura testigantzak zalantzan jartzeko, “logikaren arauetara” jo zuen AVTko abokatuak, azkenean bostetatik bik —Iñaki Uriak eta Txema Auzmendik— ez zutelako egin deklarazio polizialik. “Bost akusatuetatik bik ez zuten deklaratu polizia egoitzan. Hemen, ahozko auziaren hasieran, tortura posible batzuei buruz hitz egin da. Kontu hori ez da prozedura honen aztergaia, eta, bestalde, ez daude frogatuta. Deigarria da atxilotuek alegatzen dituzten tortura horiek egongo balira... logikoa litzatzeke, logikaren eta esperientziaren arauak esaten digutena, tortura horiek egingo zirela deklarazioa egin zezaten eta gertaera batzuk aitortzen zituzten. Baina akusatu-tako bik, Auzmendi eta Uria jaunek, ez zuten deklaratu polizia egoitzan. Torrealdei eta Otamendi jaunek bai. Eta Oleaga jaunak egin zuten deklarazioa, baina formala da, bakarrik galdera bati erantzun ziolako... Beraz, gaizki uztartzen dira alegatutako tortura horiek legez gertatu zenarekin”.

“Zer frogagarri dauzkagu gertaera horiek frogatuztat emateko?”. Abokatuak berak egindako galdera erretorikoari erantzun adierazgarria eman zion: dokumentuak eta Guardia Zibilaren “inteligentzia txostenak”. Hortik aurrera, AVTko abokatuaren hitzaldia txosten horien oihartzuna baino ez zen izan, *Egunkaria*-ren kasuan “dena itxura” zelako teoriatik abiatuta. “Uria jaunak, *Argia*-ren bidez, eta Torrealdei jaunak, Jakin enpresaren bidez, Egunkaria Sortzen enpresa eratu zuten, itxura formala emateko. Baina itxura formal horren azpian, atzean, kontu garrantzitsuak erabakitzen, ETA talde terrorista dago”. Bide horretatik, halako batean, Egunkaria SAko administrazio kontseiluko kideei “testaferro” deitza iritsi zen. *Fede akusatzaila* horretan, Guardia Zibileko peritua baino urrutirago iritsi zen. Zeren eta guardia zibilek onartu baitzuten Orain SA eta Egunkaria SAREN arteko “kutxa bakarraren” arrastorik ez zutela aurkitu. AVTko abokatuak, ordea, “frogatuztat” jo zuen.

Era berean, guardia zibilek epaiketako galdeketa onartu bazuten ere ezin ziotela eutsi Xabier Oleaga *Egunkaria*-n 1993an sartu zelako teoriari, Guerrero abokatuak ziurtzat jo zuen. “Xabier Oleaga 1993an sartu zen, kronologikoki agiriekin bat etorritik, eta ez 1995ean”.

Hitzaldiaren azken minutuetarako, akusatuen balizko inplikazioari buruzko tarte bat utzi zuen. Karguak onartu izana inplikazioaren froga gisa argudiatzen ari zen, baina errealitatea bihurria denez, honako jauzi

dialektiko hau egin zuen: “ETAk proposatu zuen Torrealdei jauna lehen zuzendari gisa, 1993an kontseilari ordezkari gisa, eta jakinik proposamen hori ETAk egin ziola berak ez zuen onartu... [isilunea] Baina begi bistakoa ez zuela onartu, baina bazekien, jakitun zen, izendapen hori ETaren alde-tik zetorkiola”. Karratua biribil bihurtzeko modu bitxia.

Martxelo Otamendiren kasuan, inplikazioa argudiatu nahian AVTko abokatuak emandako jautzia ez da txikiagoa. Kargua hartu aurretik, *El Mundo* egunkarian Udaletxe proiektuari buruzko agiriaren aipamena kaleratu zenez, eta bertan *Egunkaria* ETArekin lotzen zenez, Martxelo Otamendik “jakin behar zuen zer lotura zegoen ETA eta *Egunkaria*-ren artean, eta nahiz eta lotura horren berri izan, berak onartu egin zuen *Egunkaria*-ko zuzendaria izatea”.

Argudio horiek entzuten ari ziren bitartean, ohar ugari hartu zituzten akusatuek, barrutik haserre pilatzen ari zitzairen artean. Haserre horren zati bat agerian utziko zuten azken hitza hartzeko unean.

Fiskalaren sendotasuna

Miguel Angel Carballo fiskala lehena izaten zen auzi gelako aulkian eser-tzen, eta lehena izaten zen altxatzen, epaimahaikoekin edo abokatuekin solasean aritu gabe. Fiskalak esku-hartze mugatua izan zuen ahozko epaiket-an. Auzipetuei ez zien galderarik egin, eta lekuko eta perituei oso gutxi. Jarrera ia pasibo hori ondorioak azaltzeko orduan errepikatuko zela uste bazitekeen ere, ez zen horrela izan. Fiskalak landuta eraman zuen bere txos-tena. Lehenik, koherentziaren izenean, auzipetze autoaren garaian alde agertzeagatik bere burua zuritu nahi izan zuen. “Orduan aurreratu genuen ez ginela aurretik juzgatzen ari, ezta adierazten ere, zantzu eta susmo mul-tzo hori nahikoa izan zitekeela errugabetasun printzipioa urratzeko edota ahozko epaiketa eskatzeko”.

Zenbait hedabideren ikusmiran egon zitekeela jakinik, epaiketan “eroso” sentitu zela aitortu zuen, azkenean frogatu delako Fiskaltzak hartutako jarrera “zuzena” izan dela, “treagoarekin edo tregoarik gabe”.

Fiskalak zuzenean heldu zion auziaren mamiari: sumarioak milaka orri izan arren, akusazioen helduleku bakarra ETari atzemandako agiriak ziren, “prentsak aspaldian argitaratutakoak eginbide judizialik edo polizialik sortu gabe”, baina agiri horietatik ezin da ondorioztatu akusatuak ETako kide edo laguntzaile izan direnik, “inondik ere ez”. Fiskalaren ustez, agiri horietatik ondorioztatu ahal den gauza bakarra 1990etik 1993ra arte ETak “interesa” izan zuela *Egunkaria*-ren proiektuan, baina ez kontrola. Horren adibide, fiskalak gogoratu zuen lehen zuzendaria aukeratzeko prozesua aipatzen zuen agiri baten arabera *Argia*-koa ez zela izan behar. Aitzitik, lehen zuzendaria eta bigarrena *Argia*-koak izan zirela nabarmendu zuen. “Badirudi ETari ez zitzaiola jaramonik egiten”, erantsi zuen ironia puntu batez. Hari beretik, Martxelo Otamendiren kasua aipatu zuen, gogora ekarri agiritan aitortzen zutela ez zutela ezagutzen. “Nekez kontrolatuko dute ezagutzen ez duten norbait zuzendari jarrita”.

Akusazioen ahalegin absurdoa agerian utzi zuen Miguel Angel Carballo fiskalak. “Hemen berriz irakurri dira auzipetze autoaren paragrafo batzuk, non ahalegintzen diren azaltzen proiektua zuzentzeko aukeritzen diren ordezkariak ETatik urrun direla baina benetan gertukoak direla... Nolabaiteko zirku suerte bat: ‘Norbait aukeratzeko dugu ETaren gertukoa ez dena, baina ETaren gertukoa delako’. Kontraesana da, oso zaila gainditzeko”.

Horrez gain, auzipetuek berek ahozko epaiketan egindako deklarazioak garrantzizkotzat jo zituen fiskalak. “Zerbait objektiboa dago adierazpen hauetan. Denek daukate ibilbide profesionala, *Egunkaria* sortu baino lehenagokoa. Ibilbide horretan begiratu behar da ea ETaren aldeko joerarik ba ote daukaten. Eta horri buruz ez dago inolako ondoriorik instruzioan, bat ere ez. Are gehiago: orduan ibilbide profesionala izateaz gain, gaur egun arte atxiki dute”.

Fiskala sendo agertu zen, baita Guardia Zibileko arduradunen argudioei aurre egitean ere. “Peritu frogaz azaldu zuen komandantea ia esatera iri-

tsi zen: ‘Jakin behar zuten’. Arrazoibide tautologiko batera iritsi gaitzke: gertaera frogatua da ETAk egunkaria menperatzen duela; beraz, zeinek zuzentzen duen egunkaria frogatzearekin, ETako kide direla frogatzen da. Hori da errepikatzen zen argudioa. Auzmendi jauna ez da azaltzen agi-rietan, eta administrazio kontseiluko kidea zenez, jakin behar zuen hau gezurra zela! Baina frogatu beharko duzu lehenik gezurra dela, gero gezur hori leporatu ahal izateko!”. Argudioaren zentzugabekeria nabarmentzeko, fiskalak ohartarazi zuen arrazoibide horri jarraituz gero askoz pertsona gehiagok eseri beharko zutela akusatuen aulkian.

ETAren helburuak betetzeko akusazioari uko egin zion fiskalak. “Hamahiru urtetako argitalpenean, ez dago alegatzen den albisterik, ez dago artikulurik, ez dago lerro informatiborik ETARI zerbaiterako baliagarria zitziola erakusten duenik. Zeren eta, kontrolatzen bazuen, zerbaiterako balio beharko baitzion”.

“Ezinezkoa da auzipetuak inkriminatzea soilik *Egunkaria*-n zeukaten karguagatik; ez du balio bandaren zereginean parte hartzen ari zirela jakitun zirela uste izateak, zeukaten karguagatik. Ez da egiaztatu egunkariak bandaren aldeko zeregina betetzen duenik”, ondorioztatu zuen fiskalak ordu eta erdi inguruko hitzaldiaren amaieran, errugabetzat joko zituen epaia eskatzearekin batera.

Absoluzioa, aukera bakarra

Defentsa abokatuek idatzi bateratua aurkeztua zuten behin-behineko kalifikazioen orduan, eta behin betiko txostenak aurkeztean, espirtu berberarekin, era osagarrian aritu ziren. Lehendabizikoa Jose Maria Elosua izan zen, Egunkaria SA eta Egunkaria SM enpresen izenean, eta Iñaki Uriaren defentsa abokatu gisa. Luze eta zabal bezain zorrotz eta zehatz jardun zuen, bi ordu eta bederatzi minutuz. Hasiera gogoangarria egin zuen, *Egunkaria*-

ren kontrako operazioak ekarri zuen “ezin justifikatuzko eraso larriak” eragindako erantzun soziala gogora ekarriz eta hura absolbitu beharrarekin lotuz. “Nekez aurkituko da Euskal Herriaren historia hain erantzun orokorra polizia operazio baten kontra edo jardun judizial baten kontra. Oso datu esanguratsua da. Gizarteak badauka akusatuaren errugabetasunaren berri, baina zuei dagokizue ebatzea egotzitako gertaeren erantzule diren edo ez. Badakit errugabetzeko epaia egingo duzuela, absoluzioa bakarrik baita posible zuzenbide eta justiziaren ikuspuntutik”.

Ikerketaren jatorrira atzera egin zuen Elosua abokatuak, Guardia Zibilak 2001eko ekainaren 6an egin zuen txostenera. ETaren finantzei buruzko txosten bat zen, dirua zuritzeko bideak aztertzeke asmoa zuena. Ikerketa horretan, Egunkaria SA enpresa sortu zutenean, “*Euskaldunon Egunkaria* izeneko hilabetekariaren argitaletxea” deitu zioten. Urte eta erdi geroago, ikerketak emaitzarik ekartzen ez zuenez, Guardia Zibilak tesia aldatu zuen, 2002ko urriaren 6an aurkeztutako txostenean. Tesi berria *Egunkaria* ETAK kontrolatzen zuela izango zen, orduz geroztik. Gainerako txostenak ordukoaren jarraipena izango ziren.

Hitzaldiaren zati nagusia kontrol hori ez dela egon agerian uzteko erabili zuen Elosuak, ez kapitalari dagokionez, ez zuzendaritzari dagokionez, ezta ildo editorialari dagokionez ere. Elosuak nabarmendu zuen defentsak frogatuta utzi zuela, akusatuaren deklarazioekin, lekukoaren testigantzarekin eta froga dokumentalarekin, *Egunkaria*-ren sorreran herritarren ekarpenen bidez egin zela kapitalaren bilketa. “Kapital ekarpenak horrela egin ziren, eta ez zuten parte hartu ez KASek ez ETAK. Kapital ekarpenak gehienbat interesik gabekoak izan ziren, eta horiek Egunkaria Sortzen kultur elkartearen eta elkarte mugatuaren kontuetan joan ziren sartzen. Elkarte mugatu horretatik joan ziren erosten *Egunkaria*-ko akzioak. Zergatik horrela? 60-65 pertsona askotarikoek eraturako Egunkaria Sortzen taldea izan zedin benetan egunkaria kontrolatuko zuena. Horregatik, pertsona horiek titulazitu zituzten sozietate anonimoaren akzioak. Ez dago sekreturik”.

Egunkaria-ren gaineko kontrolaren tesiaren beste atala zuzendaritza eta izendapenen ingurukoa zen, agiriei buruz guardia zibilek egindako interpretazioan oinarrituta. Lehenik, interpretazio horren peritu izaera jarri zuen auzitan Elosua abokatuak. Norabide horretan emandako argudio uga-

riren artean, agirien analisisa “akatzetse beteriko itzulpenean oinarrituta” zegoela azaldu zuen. Itzulpen akats horietako batzuk —adibidez, Ea herria EA alderdiarekin nahastea, edo Batzarre alderdia batzar batekin— baliatu zituen ohartarazteko errealtate historikoari buruzko ezjakintasunaz. “Ikergaiari buruzko ezjakintasuna erabatekoa da. Nola nahi dute peritu izan horrelako ezjakintasunarekin? Perituek ez zekiten *Egunkaria*-ren proiektuaren sorreraren aurreko urteetan beste proiektu batzuk egon zirenik. Ez zekiten *Egin*-ek eta *Deia*-k argitaratu zutenik egunkari itxurako astekari bana, urteetan. Ahozko saioan, *Egin*-en euskarazko astekaria *Punto y Hora* zela esan zuten, gaztelaniazko aldizkari bat. Ez zekiten *Egunkaria*-ren proiektua garatu zen garaian beste proiektu batzuk ere egon zirenik”.

Ezjakintasunaz gain, txostenen egileek ondorioak lortzeko metodoaren desegokitasunaz ohartarazi zuen defentsa abokatuak, epaiak jasoko zituen arrazoibideetako bat aurreratuz. “Beti eta kasu guztietan dokumentuen alde bakarreko interpretazio bat egiten dute, haien tesiak bermatzeko balio duen interpretazioa, nahiz eta dokumentuen edukiek beste interpretazio batzuk izan. Erabilitako metodologia eta metodo interpretatiboa —haiek hemen induktiboa deitu zutena— hain dago urrun zientifikoa, zorrotza eta arrazionala izatetik, ezen gertaera berberen interpretazioa modu ezberdinetara egitea ahalbidetzen duen”. Adibide argigarri bat aipatu zuen Elosuak, esandakoa ilustratzeko: ETaren agirien argitalpena. “*Egunkaria*-k ez badu argitaratzen ETaren agiririk, ez argitaratzea ETaren tresna bat dela esateko datu bat da, eta ez badu argitaratzen, harreman hori ezkutatu nahi duelako da. Argitaratzen baditu, ETarekin harremana duelako da”.

Defentsaren ustez, argi zegoen dokumentuen interpretazioa epaimahaia-ri zegokiola, eta hark ez zuela perituen beharrik. Baina itzulpenetan izandako hutsak kontuan hartuta, nekez egin zezaketen lan hori euskaraz ongi jakin gabe. “Euskaraz ez dakien norbaitek ezin du kausan dauden dokumentuen edukia ezagutzea lortu eskainitako itzulpen eta erkaketa-aren bidez”.

Iñaki Uriaren defentsari dagokionez, Elosuak gogorarazi zuen lau agiri erabiltzen zirela akusatzeke, laurak Iñaki Uria zuzendariorde eta zuzendari zeneko garaikoak. Dokumentu horietan egiten diren aipamenetatik KASen proposamenik edo antzekorik ondorioztatzea ezinezkotzat jo zuen abokatuak. Larriago iritzi zion abokatuak, erantzunezko agirietan

Iñaki Uriaren kasua aipatzen ez denean, guardia zibilek aipamenik eza “onespen tazitotzat” hartzeari. “Jaun-andereok, ETArek erantzuna bada-go, ETak erabakitzen du, eta ez badago, orduan ere bai. ETArek iritzirik eza frogatzen da, eta onespena eman duela erakusten du. Hori ez da induzitzea, hori ez da arrazoitzea: hori tesi batetik abiatzea da, eta dena eta ahal den moduan norabide bakarrean interpretatzea. Hori logikaren eta arrazoiaren oinarriko printzipioen kontrako eraso bat da”.

Hitzaldiaren amaierara iritsi zenean, Jose Maria Elosua abokatua ez zen konformatu ondorioak laburtzearekin, baizik eta epaimahaiari bi eskaera zehatz egitera ausartu zen. “Ahozko saioan egiaztatu ahal izan dugu akusatatuak ez direla ezein delituren erantzule, eta *Egunkaria*-k eta enpresek ez daukatela zerikusirik ETArekin edo KASEkin; ez hori bakarrik, baita *Egunkaria*-ren proiektua miresgarria izan zela, atxikimendu zabala lortu zuela eta ilusio handia eragin zuela. Ziur naiz ebatzi behar duzuen epaia absolutorioa izango dela, zuzenbidean eta justizian besterik ez delako posible. Egizue ahalik eta azkarrena eragindako kalte larria erreparatzearen. Gogoeta egin ezazue tortura eta tratatu txarren kontakizunari buruz. Duintasunagatik eta egia-egiazko begiruneagatik egindako kontakizuna besterik ez da izan. Ondorioak azal itzazue, atal horretan ere, eragin ordaingarria izango dutelako”.

Egunkaria-ren sortzaile eta pentsalari Carlos Santamariaren aipu batekin amaitu zuen. “Euskara landu eta erabiltzea giza-kultura unibertsala aberastea da”.

Felix Cañada, sinetsi ezinik

Felix Cañada abokatua Joan Mari Torrealdaireren defentsaz arduratu da. Eskarmentu handiko abokatua da, baina ez dago ohituta Espainiako Auzitegi Nazionalako epaitegietan ibiltzen. Ondorioak azaltzean, kasu

honetan ikusi duenagatik harridura agertu zuen, beste inongo epaitegitan ez baitu horrelakorik ezagutu.

Fiskalaren txostena eta, batez ere, Elosua abokatuarena sistematikoak eta zehatzak izan zirenez, Felix Cañadaren hitzaldia ez zen hain antolatua izan; gai batetik bestera saltoka aritu zen, eskuz idatzitako oharretan oinarrituta. Lehenik eta behin, auziaren instrukzioa inkesta orokor bat, hau da, inkisizio prozesu bat izan dela salatu zuen. “Ez dago ikerketa bat justifikatzen duen delituzko gertaerarik; ez dago datu empiriko bat ere”, nabarmendu zuen. Inolako euskarririk gabe, hainbat enpresa aritu zen ikertzen Guardia Zibila 20 hilabetez, telefono entzuketa eta guzti.

Peritu txostenak egin zituzten guardia zibilen jarrera legeak eskatzen duen inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren kontrakoa izan dela nabarmendu zuen. “Legeak aginduta, akusatuaren kontrakoa zein aldekoa kontuan hartu beharko zuten. Ez dut ikusi inteligentzia txosten horietako batean ere aintzat hartu izana akusatuaren aldeko alternatibarik. Beti lerro bakarreko interpretazioak izan dira. Ikuspuntu intelektualetik, auzitegietan parte hartzen duen peritu bat ere ez zen ausartuko esatera beti ez dagoela beste interpretaziorik, beti norabide inkriminatorioan. Erabat sinestezina iruditzen zait; ez dugu inoiz ikusi inongo epaitegitan. 35 urteko jardun profesionalaren ondoren, ez nuen halakorik espero”.

Bide batez, *Egunkaria* ixteko neurriaren bidegabekeriaz ohartarazi zuen Felix Cañadak. “Komunikabide bat izanda, eta Konstituzioaren 55. artikulua kontuan hartuta, argi dago neurri horrek ez zeukala tokitik Zigor Kodearen 129. artikuluan. Instrukzio epaileak beste neurri batzuen aukera zeukan balizko delituaren jarraipena eragozteko. Baina, gainera, produktuaren bidez delituren bat egiteagatik ez zegoen eginbiderik. Zer eragotzi nahi zen egunkaria itxiz? Euskararen zabalkundea?”.

Auzipetuek izandako “tratu desegokia” ere ekarri zuen gogora, eginbideen baliogabetasuna argudiatzeko. Akusatuek berek epaigelan azaldutakoaz gain, Joxe Azurmendi filosofia katedradunaren testigantza nabarmendu zuen, Joan Mari Torrealdaik kontatutakoaren lekukotasuna eman zuelako. “Kontaketa horiek guztiak entzun ditudanean, sinesgarri iruditu

zaizkit. Uste osoa dut akusatuek egin dituzten deklarazio judizialak ez direla bortxarik gabe egin. Onartezinezko presiopean egin dituzte. Epailleek horrelako presiopean erabaki beharko balute, epai horiek erabat baliogabeak izango lirateke”.

ETari atzemandako agiriei dagokienez, Egunkaria Sortzen taldetik kanpo kokatu zituen Joan Mari Torrealdairen defentsa abokatuak, adibide gisa Joxerra Garziari buruzko komentarioak harira ekarrita. Halaber, hirugarren zuzendariaren aukeraketari zegokionez, argi utzi zuen akusatuek esandakoa eta Imanol Murua lekukoak kontatutakoa bat datozela. Bigarren kontseilari ordezkariaren aukeraketan, eman ziren pausoak (lehenik Torrealdairi eskaini, eta haren ezezkoaren ondoren Iñaki Uriari) *Egunkaria*-ren barne logikaren barruan egin zirela gogorarazi zuen.

Bukaerarako utzi zuen defendituaren aldeko alegatua. Joan Mari Torrealdai administrazio kontseiluko kide izateagatik bakarrik izan da akusatua, abokatuaren iritziz. Ez da aurkitu gertaerarik ETA-KASEkin lotu ahal izateko. “Gainera, gure frogan badaude agiriak islatzen dutenak zein den haren jarrera borroka armatuari buruz. Bi eskuizkribu daude haren jarrera aztertzeko”. Torrealdaik *Egunkaria*-ren proiektuan izan duen parte-hartzea, Felix Cañadaren esanetan, “beste ekarpen bat izan da euskal kulturaren eta euskararen garapenerako. Horregatik egon da *Euskaldunon Egunkaria*-ren proiektuan, eta horregatik izan du horrenbeste aintzatespen publiko”.

Errugabetasuna, urratu gabe

Ignacio Pelaez abokatu arduratu da Txema Auzmendiren defentsaz, Jesusen Lagundiaren bidez. Ibilbide profesionala abokatu hasi bazuen ere, denbora luzez fiskal gisa aritu da Bartzelonan, Alacanten eta

Madrilen. Auzitegi Nazionalçean bertan ere bai. Horregatik, bere hitzal-diaren hasieran aipatu zuen bere ibilbide profesionala ezaguna zela epai-mahaikideentzat.

Pelaezen azalpenaren egituraketa aurrekoena baino klasikoagoa izan zen. Txema Auzmendiren errugabetasun printzipioa —eta gainerako akusatuena— epaiketa osoan auzitan jartzea ezinezkoa izan dela defendatzea izan zen haren abiapuntua, eta gero froga mota guztien errebasoa egin zuen, argudio nagusia berretsiz. “Akusazioek ez dute froga nahikorik aurkeztu akusatuen errugabetasuna urratzeko”.

Guardia Zibilaren peritu txostenen balioa auzitan jarriz hasi zen. Txosten gehienegileak ikerketa polizialaren instruktorea eta idazkaria izan zirela kontuan harturik, “peritu txostenak egiterako, objektibotasuna eta inpartzialtasuna izateko ezgaituak” zirela argudiatu zuen Ignacio Pelaez abokatuak. Horrez gain, txosten horiei peritu frogan izaera ukatu zien. “Tribunalak ez du horrelako peritu frogan laguntzarik behar. Tribunalak badauka nahiko ezagutza ETaren antolamendu, helburu, metodologiari buruz, eta ez du haien beharrik”.

Agirien azterketatik atera beharreko ondorio bakarra honela laburbildu zuen Txema Auzmendiren abokatuak: “Erruztatuen aulkian esertzen direnek ETaren paperetan agertzeko zoritxarra izan dute; hori da haien erantzukizun guztia, haien borondatek erabat kanpokoak”. Pelaezen ustez, epaiketan egiaztatu ahal izan den gauza bakarra, hauxe: ETako kide batzuei agiri batzuk atzeman zizkietela, non *Egunkaria*-ren proiektua aipatzen zen.

Epaiketan gauzatu diren frogan azterketaren ondorio posible bakarra errugabetzat jotzea dela argudiatu zuen Pelaez abokatuak. Akusatuen deklarazioekin hasita. “Bistan da: haietako batek ere ez ditu aitortu gertaerak. Denek adierazi dute ez zutela inoiz onartuko ETak kontrolatuak izatea”. Txema Auzmendiren kasuan, froga testifikalen emaitzak nabarmendu zituen. Batez ere, Jose Luis Zinkunegi jesuiten arduradunaren lekukotasuna ekarri zuen gogora. “Zinkunegik adierazi zuenez, Auzmendi jaunak, *Egunkaria*-n sartu aurretik, kontsultatu egin zuen bere probintzialarekin. Hau da, ez zuen ETaren baimena eskatu, ez zuen

KASekin hitz egin, ez HBrekin edo ETArekin inguruko inorekin, baizik eta bere probintzialarekin. Eta pertsona horrek animatu egin zuen egunkari horretan sartzerara, uste zuelako egunkari ireki eta zabala zela”. Nerea Azurmendiren lekukotasunaren balioa ere nabarmendu zuen, *Egunkaria*-ko zuzendari izateko proposatua izan zelako eta gero *El Diario Vasco* egunkarian lan egingo zuelako. Halaber, Jonan Fernandez, Iñaki Zabaleta eta Fernando Berridiren lekukotasunak kontuan hartzeko eskatu zion epaimahaiari.

Peritu gisa deklaratu zuten guardia zibilek akusatua inkriminatzeko erabiltzen zuten logikaren paradigma Txema Auzmendiren kasua zen, defentsa abokatuak nabarmendu zuenez. “Akusatzeko elementu bakarra da ‘jakin behar zuela’ akziodunen batzarrak faltsuak zirela, konturik ez zegoela, benetako akziodunik ez zegoela, eta abar”.

Ondorioen azalpenaren azken zatia, hain zuzen, *Egunkaria*-k ETArekin helburuei laguntzeko balio izana gezurtatzeko erabili zuen Ignacio Pelaez abokatuak. Gogora ekarri zuen guardia zibil baten arabera *Egunkaria*-ren zeregina euskara zabaltzea zela, ordena konstituzionala asaldatzeko helburua lortzeko. “Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua dio euskara hizkuntza ofiziala dela. Beraz, non dago ordena konstituzionalaren iraulketa Konstituzioak jasotzen duena egiten ari direnean? Nola kriminalizatu daiteke helburu hori?”. Hari beretik, Pelaezek argudiatu zuen Alternatiba Demokratikoaren enkartea edo ETArekin agiriak argitaratzeari ezin zitzaiola iritzi ETArekin helburuak betetzea. Azkenik, ildo editoriala aipatu zuen. Guardia zibilek argudiatu zuten ikerketa ildo hori ez zutela jarraitu logistika arazoengatik. Pelaezen ustez, guardia zibilek ez zuten aurkitu *Egunkaria*-ren ildo editorialean ETArekin helburuak laguntzeko heldulekurik, “ez zegoelako”. *Egunkaria* irekia eta askotarikoa izan zela gogoratu zuen. Auziaren zentzugabekeeria agerian uzteko, azken ohar gisa, Ignacio Pelaezek oroitu zuen alderdi sozialistak, Eusko Jaurlaritzan koalizio gobernuan zegoenean, lagundu egin zuela *Egunkaria*-k diru laguntza publikoak lor zitzan.

Iñigo Iruinen gogoeta orokorra

“Ia dena esana dago”, aitortu zuen Iñigo Iruin abokatuak hitza hartu zuenean. Epaiketako azken saioa zen, eta arratsaldeko zortziak eta laurden izango ziren. “Gaur zailago egingo zait salaren arreta lortzea, defendituen absoluzioa defendatzea baino”. Egia esan, bazirudien fiskalak eta gainerako defentsa abokatuek ez zutela ekarpen berrirako tokirik utzi. Baina irudipena zen. Egunkaria SA eta Egunkaria Sortzen SM enpresen eta Xabier Oleaga eta Martxelo Otamendiren defentsa abokatuak lortu zuen areto osoak azalpenak arretaz jarraitzea. Are gehiago, zenbait momentutan epaigela paraninfo bihurtu zela zirudien, Espainiako sistema judizialaren egiturazko hutsuneei buruzko ikasgai magistrala entzuteko.

Galdera bat izan zen gogoeta orokorraren abiapuntua: “Nola da posible logikarik gabeko interpretazioetan edo logika maltzurrian edo balorazio absurdoetan oinarritutako kausa bat ahozko epaiketara iritsi izana? Zerk ahalbidetu du halako elementu ahul eta subjektiboetan oinarrituta sumario bat iristea ahozko epaiketara?”.

Iñigo Iruinen ustez, epaiketa ez zen egin behar eta bost auzipetuek ez zuten pairatu behar akusatuen aulkian esertzeko zigorra. Epaimahaikideei gogoratu zien horren inguruko zalantza agertu zutela 2009ko uztailaren 30eko autoan. Epaiketan entzundakoa kontuan harturik, Iruinek uste osoa agertu zuen argi izango zutelako auzia epaiketara ez zela iritsi behar.

Bi funtsezko arrazoi daude gertatutakoa azaltzeko. Lehena, prozesu penalaren eredu, zeinaren pean garatu den instrukzio judiziala. Bigarrena, akusaziorako erabiltzen den tipo penala, talde terrorista bateko kideztarena.

Iruinek, banan-banan, hamar puntu azaldu zituen *Egunkaria*-ren auzian erabilitako prozesu penalaren eredu ez zela garantista izan demostratzeko. “Hamar osagai horiekin oso argazki kezkarria —oso kezkarria— egin daiteke larrialdi egoerako legeriari buruz”.

Lehenik, *Egunkaria*-ren prozesua hasieratik akusatuen kontrako inkuizizio prozesu bilakatutako “inkesta orokor bat” izan zela nabarmendu zuen. Auzitegi Konstituzionalaren arabera, ikerketa orokor baten arriskua eragozteko, funtsezkoa da instrukzioaren eremua zehaztea. “Konstituzionala, zehaztu beharra dagoela dioenean, esaten ari da *noticia criminis* egon behar dela; hau da, gertaera zehatzak behar direla, koordenada tenporal eta espazioetan erreferentziatuak, eta ez uste edo susmo hutsak”.

“Mugarik gabeko ikerketa egon da hasieran”, jarraitu zuen Iruinek arrazoibidea, “eta, gero, pertsonen gaineko inkisizio teknikak erabiltzen hasi dira, aldi berean errugabetzeko balio duten elementuak ezkutatuz”.

Bigarren puntua: ikerketaren objektua —kausa osoan presente dagoena— gertaera jakin bat ez izatea, baizik fenomeno kultural eta sozial bat. Hau da, euskarazko egunkari baten sorrera garrantzi handiko fenomeno bat izan zen, eta Guardia Zibilak alde batera utzi zuen erreferentzia historiko oro —“ezjakintasunez edo nahita”—, hori funtsezkoa baita “konspirazioaren teoria” uxatzeko.

Argazkiaren hirugarren osagaia: prozesua Guardia Zibilaren ekimenez eta Guardia Zibilak bultzatuta egin da. “Hark eskatu zuen egunkaria ixteko, hark eskatu zuen enpresak ixteko. Hark egin zituen banakako txostenak, epaileak auzipetze autoan bere egin zituenak. Hark aztertu zituen deklarazioak, ez bakarrik polizialak, baita judizialak ere. Epaitegiaren laguntzaile izan beharrean, Guardia Zibila prozesuaren motorra da, eta epaitegiak haren erabaki eta ekimenei forma juridikoa ematen besterik ez du egin. Zereginen iraultze argia dago”.

Laugarren puntua aurrekotik eratorria da: azpisistema judiziala usteldu egin da azpisistema polizialaren eraginez. Iruinek azaldu zuenez, oso zaila da bata bestetik bereiztea; azpisistema judiziala polizialak kutsatuta dago. “Erabilera eta pautak polizialak prozeduran txertatzen dira, eta pautak polizial nagusia emaitzaren lehentasuna da, bitartekoen gainetik. Ez du inporta nola; erakutsi beharra dago *Egunkaria* ETaren proiektua dela, eta beharrezko diren diligentziak egiten dira helburu horren zerbitzuan”.

Horrek ekarri du bosgarren elementua: zigor prozesuaren izaera aldatu egiten da. Berez, zigor prozesu bat delituzko gertaeraren ikerketa indiferentea da, non epailea egiaaren bilatzailea den. “Hemen hori ez da gertatu. Prozesu informatiboa erasokor bihurtu da, non epailea akusatuaren etsai gisa ari den, eta ez du bilatzen gertaeraren egia, baizik eta inputatuaren delitua. Hemen ez dira ikertu delituak, baizik eta pertsonak. Ez dira ikertu ekintzak, baizik eta pertsona batzuen jarrerak”.

Seigarren faktoreak garrantzi izugarria izan du *Egunkaria auzian*. Atxilotze aldian berme formalak eskaini zaizkie atxilotuei, baina ez berme materialik. Ez hori bakarrik. “Agerikoa izan da instrukzio epaileak torturen salaketen inguruan izaniko jarrera pasiboa. Auzitegiko medikuak jaso bezala, torturak salatu dituztenak bat datoz kontakizunean gertakari batzuetan: galdeketak jasaten ari zirela, zutik egotera behartzen zituztela, ez zitzaiea uzten lo egiten, edo galdetzen zitzaienean flexioak egitera behartzen zituztela. Atxilotuen kontakizunean kointzidentzia ulergaitz bat dago, atxilotuak inkomunikatuta egonda. Kontatzen ari diren gertaeren egiazkotasunetik bakarrik uler liteke”.

Datu esanguratsu bat eman zuen Iruin abokatuak, atxilotze aldian zer gertatu zen ohartzeko. Akusazioek eta epaiketan deklaratu zuten guardia zibilek adierazi zuten atxilotetaren unea eta polizia-deklarazioa egin zutenekoa normaltasunez eta berme formalekin gertatu zirela. Baina Guardia Zibilaren esku 120 ordu egon baziren ere, Martxelo Otamendi 10 minutuz eta Xabier Oleaga 15 minutuz besterik ez ziren egon deklaritzen. Larriena, dena den, instrukzio epaileak ezer ez egin izana da, atxilotuen egoeraren berri izan arren. Larritasun horretaz ohartarazi nahian, aho-tsaren tonua nabarmen goratu zuen abokatuak. “Auzitegiko medikuaren txostenak dauzkagu, non idatziz —eta batzuetan telefonoz ere bai— jakinarazten dion instruktoreari bisitaren emaitza. Martxelo Otamendiren kasuan, adibidez, galdeketak aipatzen dira, flexioak, mehatxuzko kolpeak genialetan, tiro baten simulazioa, paretaren kontra joz bere burua zauritzeko mehatxua egin duela... Hori instruktorearen mahaira iritsi da, pertsona atxilotuta zegoenean. Non dago erreakzio judiziala hori ikusirik? Ez dago erantzun judizialik. Instruktoareak ez al du ezagutzen 1984ko Habeas Corpusen Legea? Oso kezagarria da. Oso kezagarria da instrukzio epaile batek txosten horiek jasotzea eta ez erreakzionatzea”.

Iruinek ez zion eskatu epaimahaiari ebazteko torturak eta tratu txarrak gertatu zirenik, hori egitea ez zegokiolako tribunalari. Baina gaiaren inguruko gogoeta bat eskatu zion.

Argazkiaren zazpigarren zatia: akusazioen oinarri diren agiriak aspaldian daude judicializatuta. Beste defentsa batzuek esana zegoen. Iruinek, hala ere, zerbait erantsi nahi izan zuen. “Judializatuak izateaz gain, Guardia Zibilak berak baztertu zuen, 1998an, deliturik egotea *Egunkaria*-ren sorreran! Baztertu egin zuen. Zertara dator berriz aztertze hau, dokumentazioa berriz irakurtze hori?”. Tribunalari eta akusazioei memoria astindu zien Iñigo Iruin abokatuak. 1998ko abenduaren 15eko 18/98 txostenean, Guardia Zibilak 59 agiri aztertu zituen, eta horien artean *Egunkaria auziko* guzti-guztiak zeuden, *Kronika* izenburukoa izan ezik. “Ez zegoen deliturik orduan; ohartu ziren ezin zela eratorri delituzko jarduerarik agiri haietatik. Eta, ordutik, ez dago datu berririk!”.

Zortzigarren osagaia: prozesua susmo, aieru eta uste hutsetan oinarrituta dago. Akusazioen arabera, zantzu bidezko frogak zeuden. Iritzi horrekiko desadostasuna azaldu zuen Iruinek. “Zantzu bidezko froga guztietatik subjektiboena da. Arazo bat du: susmo hutsen eta zantzueta oinarritutako ziurtasunaren artean alde hautemanezina dago”. Zantzu bidezko froga susmo, aieru eta suposizioetatik bereizi beharra nabarmendu zuen abokatuak. Kasu honetan, ez da egon benetako zantzurik, baizik eta susmo eta aieru hutsak. “Nola eraiki da hau guztia? Datu bat, esanahi anbigua duena, berez, susmora baino ez daramana, izaera bereko beste datu batekin elkartzen da, eta elkartze hutsagatik aldatzen zaio izaera froga bihurtzeko ahaleginean. Ba, ez. Ez. Susmo bat gehi beste susmo bat, pilaturiko bi susmo dira, baina ez ezer egozteko froga bat”.

Puzzlearen bederatzigarren zatia *intelligentzia txostenak* dira. Sumarioaren ardatz nagusia elikatzen dutenak. “Baina prozedura honen arazo nagusia instruktorea agiri horien interpretaziotik kanpo eta akritiko gelditu izana da”.

Txosten horien peritu izaerari dagokionez, apunte labur bat egin zuen, epaimahaiaren iritzia bete-betean aurreratu zuena. “Hemen gakoia hau da: tribunalak zuzenean egiaztatu ahal du agiri horien errealitatea? Bai

edo ez? Erantzuna, bistan da, baiezkoa da, eta, ondorioz, txostenek ez dute peritu izaerarik”.

Guardia Zibilaren perituen inpartzialtasunari buruz, datu bat nabarmendu zuen Iruinek. Inpartzialtasuna galdu dute, baina ez hainbeste ikerketarako eginbideak eskatu dituztelako, baizik eta oinarrizko eskubideei zegokien badaezpadako neurri bat eskatu zutelako: *Egunkaria* ixtea. “Guardia Zibilak eskatu zuelako itxi zen *Egunkaria*. Hori berriz esan beharra dago”.

Hamargarren eta azken zatia azaltzeko, literaturaren laguntzaz baliatu zen Iñigo Iruin abokatua, hitzaldiak ikasgai magistralaren kutsua hartzen zuelarik. Aipatutako osagaiekin egindako instrukzioaren emaitza kontakizun historiko jakin bat da, hain zuzen, instrukzio epailearentzat halako *Da Vinci kode* bihurtuko zena. “Klabe, atzemandako dokumentu, interpretazio interesatu, espekulazio, uste eta euskal errealitatearen ardatzak desitxuratuz, Guardia Zibilak dio ETAk lehenik egunkariaren sorrera planifikatu eta zuzenduko zuela eta gero kontrolatuko zuela. Guardia Zibilaren arabera, ETAk horretako erabili zituen euskal kulturako pertsona eskuzabal, ezagun eta maiteak, eta horrela lortuko zuen euskal gizartea, bereziki euskal hiztunen mundua, engainu baten barruan bizitzea, errealitatea ezagutu gabe”. Hori esanda, Dan Brownen *Da Vinci Code* (Da Vinci Kodea) nobela ekarri zuen gogora, argumentua konspirazio baten inguruan harilkatzen duena. “Dan Brownen liburuan, Eliza ustez nahasturik zegoen Jesu Kristoren benetako historia ezkutatzeko konspirazio batean, eta kasu honetan akusatua ETAk zuzendutako konspirazio batean nahasturik egongo ziren *Egunkaria*-ren benetako historia —ETAre proiektu bat izatea— ezkutatzeko. Eta tamalgarriena da instruktoarek bere egitea hori, bere egitea Guardia Zibilak sortutako fikziozko nobela hori”.

Otamendi eta Oleagaren kasu paradigmaticoak

Prozesu penalaren ereduarekin batera, *Egunkaria*-ren auzia epaiketara iristeko ahalbidetu duen beste arrazoia tipo penala izan da, Iñigo Iruinek hitzaldiaren bigarren zatian nabarmendu zuenez. “Talde terroristak bateko kide izanaren tipoa penala bidea ematen du delitua hamaika balorazio subjektiboren menpe uzteko. Tipo penal hori kutxa huts bat bezala agertzen da, eta lehen aipatutako hipotesi soziologikoak edo teorema politiko-historiografikoak sartzea ahalbidetzen du”.

Defendatuen kasu zehatza aztertu aurretik, gogora ekarri zituen Auzitegi Gorenak 1989an talde terroristako kide izan delitua emateko ezarritako baldintzak: loturaren iraunkortasuna, taldearen aldeko prestutasun orokorra, lotura horren barnean kokatutako jarduerak ezberdinak eta egitura hierarkikoarekiko menpeko jarrera. “Begi bistakoa da ez dagoela horrelakorik, eta ez dela beharrezkoa ezer eranstea entzundakoari”.

Sumarioa ikerketarako objektu zehatzik gabe abiatu zen, eta akusatuen kasuan berdina amaitu da, hau da, “akusaziozko gertaera zehatzik gabe”. “Behin-behineko eta behin betiko ondorioen idatzietan, nire defendituei dagokienez, ez dago akusatzeko gertaera zehatzik”.

Martxelo Otamendiren kasua argigarria da, Iruin abokatuak nabarmendu zuenez. AVTren 200 orriko txostenean, Martxelo Otamendiren 11 aipamen daude, denak soil-soilik atzemandako agiriarekin lotuta. Are gehiago: *Inplikatuena ETArekiko lotura* izenburuko atalean, ez da Otamendiren jarrera edo jardunbiderik aipatzen. “Ez badago egozteko gertaerarik, ez dago delituarik”, ondorioztatu zuen.

Dignidad y Justicia elkartearen akusazioaren txostenean ere, “ez dago Martxelo Otamendiri egotzi ahal zaion gertaera zehatzik, egile material eta zuzen gisa, ETAk buruzagi dela adierazteko”. Akusazioaren idatzian ez da esaten ezta ETak hartu zuenik ere Otamendi zuzendari izendatzeko erabakia, Iruin abokatuak ohartarazi zuenez akusazioen motibazio falta agerian uzteko.

Zer dago sumarioan Martxelo Otamendiren kontra? Iruinek eskuan hartu, besoak goratu eta erakutsi egin zituen: bi agiri, Hontza 93/02 eta Garikoitzari 93/03-II. “Bi agiri ez, bi paragrafo; zehazki, bi paragrafo labur. Hau da [eskuan hartuta] sumarioaren 50.000 folioetan Martxelo Otamendiren kontra dagoen guztia! Hau da atxiloketa inkomunikatuaren arrazoa. Hau da Martxelo Otamendi torturatzea ahalbidetu duena”.

Guardia Zibila jakitun zen bi paragrafo horiek ez zirela nahikoa, eta horregatik, gero, *Zutabe* ale batzuen aurkitu izana eta *Alternatiba Demokratikoa* argitaratu izana gehitu zuen. “Baina hori ere ez da nahikoa, eta hor sartzen da inkisiziozko teknika. Hori dena nahikoa ez denez, zer egin du Guardia Zibilak? Ikerketa orokor bat egin du Martxelo Otamendiri buruz, terminologia anglosaxoian *fishing expedition* deiturikoa: sarea bota ea zerbait arrantzatzen den”. Hortik dator Otamendiren iragana, egoera ekonomikoa edo etxean topatutako dokumentazio guztia ikertzea.

Agirietara itzuliz, “beste aukera bat agertu da” edo “aukera hori sendotzen ari da” esamoldeak jasotzen direla gogoratu zuen Iruinek, eta horretaz Guardia Zibileko komandanteari galdetu zionean KASetik kanpoko aukera bat izan zitekeela ere aitortu zuela.

Horrez gain, Iñigo Iruinek agerian utzi zuen Guardia Zibilak inferentziak egiteko erabilitako modu zentzugabea, Martxelo Otamendiri buruzko adibide batekin. “ETAk, Garikoitzari 93/03-II agirian, Martxelo Otamendiri buruz dio: ‘Ez dugu asko ezagutzen’. Bada, ikus dezagun zer dioten peritu txostenean: ‘Litekeena da Martxelo Otamendik Tolosako HBko tokiko egituretan parte hartzea’. Litekeena da, probabilitate bat. Hurrengo inferentzia, ondorio bat da: ‘Parte hartu zuen aktiboki Tolosako HBren jardueretan. Hurrengo ondorioa: ‘Hortik eratortzen da HB eta Martxelo Otamendiren arteko lotura estua’. Hurrengo ondorioa: ‘Hori izan daiteke ETarentzat ezaguna izateko arrazoa’. Baina ez dugu esan ETarentzat ez zela ezaguna? Bada, Guardia Zibilarentzat, inferentzia horren ondoren, ezaguna egiten zaio”.

Xabier Oleagaren kasuan, Martxelo Otamendirekin gertatzen zena errepikatzen da. “Zein delituzko gertaera egozten zaio? Ez dago. Behin betiko

ondorioen idatzian, ez dago gertaerarik. AVTren idatzia: 200 folio. Zenbat aldiz aipatzen da Oleaga? Hiru aldiz”. Batean, esateko Oleagak *Egunkaria*-n zuen presentzia “zehaztugabea” dela, eta beste batean, onartzeko kontratazio formalaren egiaztapena 1995ekoa dela. Dignidad y Justiciaren ondorioetan, aipamena luzeagoa da, Guardia Zibilak Xabier Oleagari buruz egindako bi txosten hitzez hitz jasotzen dituelako. Zehazki, zer leporatzen dio Dignidad y Justiciak Oleagari? *Egunkaria*-n “ETAren eskariz” sartzea. Zein zen haren zeregina? “Haren zeregina erredaktoreburuarena izango zen. Zeregin hori erredakzioaren antolaketan gauzatu zen”, DyJren ondorioen arabera. “Non dago delitu izan daitekeen jardunbideren bat? Ez dago, ondorioetan ez dago”, nabarmendu zuen Iruin abokatuak.

Berebiziko garrantzia du Xabier Oleagaren kasuan *Egunkaria*-n sartu zeneko data. Dena dago datu horren menpe, eta horrek huts egiten badu, dena erortzen da. “Data ez bada 1993ko martxoa, ETAren esku-hartzea desagertu eta aldamio guztiak erori egiten dira”.

1993ko martxoan sartu zela frogatzeko, akusazioek deklarazio poliziala alegatzen dute, hori besterik ez. Deklarazio horretan bi galdera baino ez ditu erantzuten. Zein da Oleagak epaiketan emandako azalpena? Guardia Zibilari datu hori ematea besterik ez zitzaion interesatzen, eta horrela bakean utziko zuten. “Sinesgarritasuna du Oleagak dioenak? Osoa”.

Guardia Zibilak Oleagari buruz egindako txostenak gogora ekarri zituen Iruinek, bilakaera maltzurra begi bistan uzteko. 2002ko urriaren 3ko txostenean, Guardia Zibilak ez zuen zalantzan jartzen Xabier Oleaga 1995ean sartu zenik, eta eranskin batean Gizarte Segurantzaren alta bildu zuen. Baina, 2003ko urtarrilaren 28ko txostenean, operazioa eragingo zuen txostenean, aldaketa hasi zen. Orduan, idatzi zuten ez zela “harrizkoa” Martxelo Otamendirekin batera sartu izana. “Atxilotu baino hiru aste lehenago, kontuan harturik huts egiten diola bere silogismorako sartzeko datak, atxilotze prozesuan moduren batean sartzea 1993ko martxoan izan zela baieztatzeko beharra ikusten du Guardia Zibilak. Data bat ez badator, ezin da interpretaziorik egin: alferrikakoa da dokumentuaren interpretazioa, ez dagoelako ETArekin 1995ean lotzen duen agiririk. Horregatik zen funtsezkoa Guardia Zibilarentzat Xabier Oleaga 1993an sartu izana. Lortu behar zuten Oleaga jaunak data baieztatzea; horregatik ez dute deklarazio

gehiagorik nahi, horrekin nahikoa daukate. Galdera horri bakarrik erantzutea lortu dute”.

Epaiketan, baina, 1993an ez zela sartu frogatu egin dela argudiatu zuen Iruin abokatuak. Batetik, Oleagaren deklarazio judizialaren bidez. 40 folioko deklarazio horretan, sartzeko datari buruzko bost aipamen daude. Horietako batean, 1993tik 1996ra aipatu bazuen ere, aurrerago bi erreferentzia eman zituen: Imanol Murua ordezkatzeko sartu zela, eta data lan kontratuan eta Gizarte Segurantzaren agertuko dela. Bestetik, Imanol Muruak berak baieztatu egin zuen 1995ean alde egin zuela, eta Xabier Oleagarekin batera ez zela inoiz egon Lasarteko erredakzioan. Izaera subjektiboa duten froga horiez gain, izaera objektiboa duten beste bi froga aipatu zituen abokatuak: lan bizitzaren agiria eta *Egin*-en urtekariko argazkia, non egiaztatzen den 1993ko abenduaren leian *Egin*-en erredakzioan zegoela.

Iruinen ustez, Xabier Oleaga inkriminatzeko borondate nabaria izan da Guardia Zibilaren aldetik. Hiru adibiderek demonstratu egin zuen. Batetik, lehen eginbideetatik, lehen liburukitik agertzen da Xabier Oleagaren lan bizitzari buruzko informazioa, eta bi orri atzerago, Imanol Muruarena. 2002/16 txostenaren 7 eranskinean, Oleaga, Murua eta Otamendiren lan bizitzak batera agertzen dira. “Dokumentazio horretatik agerikoa zen Oleagaren sarrera Muruaren irteeraren jarraian izan zela. Inoiz ez zuten aipatu: ezkutatu egin zuten”. Bigarren adibidea Xabier Oleagak *Egunkaria*-n eginiko kolaborazioei buruzkoa da. Guardia Zibilak 1993ko kolaborazioak aipatzen ditu baieztatzeko urte hartan sartu zela, baina bi datu ezkutatu egin zuten. Batetik, 1993ko urtarrilaren 9an hasi zela, hau da, dokumentuetan haren balizko sarrera aipatu baino dezentu lehenago. Bestetik, *Egunkaria* utzi ondoren berriz hasi zela kolaborazioak egiten, 1998tik 2000ra, *Seiko Urrea* atalean. “Guardia Zibila aritu da aztertzen *Egunkaria* hasieratik itxi arte, eta ezkutatu egin du inputatu batek 87 artikulua idatzi dituela. Froga nabarmena ez dagoela harremanik kolaboratzaile eta erredaktoreburu egoeren artean”. Hirugarren adibidea, Lizarazuren auzia izan zen. Guardia Zibilak Xabier Oleaga ETArekin lotzeko zantzu gisa aurkeztu zuen txosten batean, ETAk *Zutabe*-ren 89. alean argitaratu zuen Bixente Lizarazuri bidalitako gutunaren fotokopia bat. Baina ezkutatu egin zuen fotokopia hori edukitzeko arrazoia gaiari

buruzko prentsa ohar bat egitea zela, hain zuzen, ikastolen izenean Lizarazuri elkartasuna adierazteko eta estortsioa salatzeke. Ondorio hori ateratzeko datuak Oleagaren ordenagailuan bertan zeuden, hor zeudelako *Lizarazu* izenburuarekin prentsa oharra egiteko erabilitako testuak.

Beste fikziozko nobela bat

Defentsaren parte-hartzea ixtera zihoala, sinbolismoz beteriko gogoeta bat ekarri zuen Iñigo Iruinek epaiketaren aretora, pasadizo batean oinarriturik. Epaiketa hasi ondoren, egun batean, Euskaltzaindiko kide batekin topo egin zuen, eta auziaz hitz egiten ari zirela, informazio bat aipatu zion euskaltzain hark.

“Jakina da *H* letra euskara batuan sartu zenean, 1968ko Arantzazuko Kongresuan, eztabaida politiko sutsua piztu zela. Datu berria zen *H* hizkiaren sartzea ETArekin lotutako sektoreei egotzen zitzaiea. Saiatu nintzen egiaztatzen, eta horretarako zein hobea, Torrealdei baino. Berehala eskuratu zidan *Euskaltzaindia, el batua y la muerte del euskera* izenburuko testua, Vicente Latiegik eta Dionisio Oñatibiak idatzia. Lehen kapituluaren izenburua *Expediente a Euskaltzaindia* da, eta bertan Euskaltzaindiaren kontrako prozesu bat irekitzeko eskatzen zen. Beste gauza batzuen artean, honako hau esaten zen: ‘Batua, koktel hizkuntza, helburu iraultzaileekin ETako erbesteratuek asmatutakoa, eta gaur egun Euskaltzaindia indarrez inposatzen saiatzen ari dena...’. Ika-mika haren erdian, sektore kontserbadore, garbizale edo tradizionalista batzuek ETari, gorriei, marxistei egotzi zieten euskarari inoiz egon ez zen letra baten inposizioa. Zein zen euskarria esateko *H*-a ETArengandik sartu zela? *H*-ari grezieraz *eta* deitzen zaiolako”.

“Noski, ETAK ez zuen erabaki euskara batuan *H*-a sartzea, baina eztabaida hura gaur egun izango balitz, Dan Brownek beste ikerketa nobela

bat idatzi ahal izango zukeen eta Guardia Zibilak lortuko zukeen gatazka linguistikoa Auzitegi Nazionalean amaitzea. Eta, ETAk *H*-a onartzea erabaki ez zuen bezala, ez zuen *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorrera erabaki eta planifikatu”.

Kutsu literario eta metaforiko baten eskutik iritsi zen hitzaldiaren azken esaldira, absolutzio eskaera egiteko unera. “Magistratu jaun-andereok, epaiarekin amaiera jarriko diozue sumario honi, pertsona errespetagarri eta errekonozituak inkriminatu, gizarte ekimen bat desegin, euskal kulturaren tresna garrantzitsu bat suntsitu, pluraltasun komunikatiboa murriztu, kalte ekonomiko handia ekarri eta, batez ere, Zuzenbide Estatuan pitzadura sakona eragin duen sumario honi. Gehiegizko txiki-zioa, espero dugun absolutzio epaiak guztiz aserik uzteko, batez ere hura pairatu zutenak”.

Azken hitza

Segituan, bost auzipetuek hartu zuten hitza, banan-banan. Eta emozioa areagotu zuten berriro, epaiketari amaiera jartzeko unean. Saio guztietan bezala, aretoaren atzealdean zeuden senideentzat une bereziki hunkigarria izan zen. Bost auzipetuek ez zuten esan adierazi nahi zuten gutzia, baina esandakoarekin pozik gelditu ziren.

IÑAKI URIA: “Sinpleki, errugabe naiz egin zaizkidan akusazio guzti-guztietatik. Ez naiz inoiz izan ETAKoa, eta ETAK ez zuen inoiz esku hartu *Egunkaria*-n. Hau esatearekin batera, esan nahi dut harro sentitzen naitzela *Egunkaria*-ren sorreran eta zuzendaritzan parte hartu izanagatik, eta ezagutu izanagatik nirekin batera akusatuen aulkian daudenak, egunkaria itxi zutenean kalean gelditu ziren langile guztiak eta akziodun guztiak,

benetan izan zirenak eta *Egunkaria* ateratzeko dirua jarri zutenak. Gure garaian ausartak izan ginen, Eusko Jaurlaritzaz euskarazko egunkari bat kaleratzen ausartu ez zen garaian. Hedabideak egitea jende boteretsuaren kontua izaten denean, ausartu ginen eta egunkari bat kaleratzeko atrebentzia izan genuen, horrek dakarren guztiarekin: egunkari bat kaleratu adierazpen askatasunagatik, euskaragatik... Ziurrenik, inozoak ere izan ginen, eta nahikoa izan zen norbaitek esatea *Egunkaria*-ren helburuak bat zetozela ETArekin helburuekin, egunkari hori itxi zezaten. Nire ustez, beharrezkoa da gogoeta bat egitea egunkari bat ixteaz, demokrazia baten zutabe nagusietako bat den prentsa askatasuna murrizteaz. Beharrezkoa da prozesu honetatik gogoeta hori egitea, eta denok irtetea ikasgai bat ikasita. Besterik ez”.

TXEMA AUZMENDI: “Gauza pare bat bakarrik. Letraduetako batek zioen bezala, ‘fikziozko nobela’ honetan —gu guztientzat, gure senideentzat... mingarria, gogorra izan dena—, ohar bat: AVTk eta Dignidad y Justicia, izen horiekin, hain gauza gogorrei eutsiz jarraitzeak, eta gutxieneko ikuskera bat edo esandako horretan egiatzko zerbait egon zitekeelako zirrikitu bat ez egoteak, oso gizatasun eskasa erakusten du. Absolutioa eskatzen dut, ez naiz inoiz ETAKoa izan; ez naiz inoiz egon ETArekin zerbitzuan, inola ere, ez irratan ez *Egunkaria*-n, eta *Egunkaria* ez zen inoiz egon ETArekin zerbitzuan, ez ekonomikoki ez ideologikoki. Eskerrik asko”.

XABIER OLEAGA: “Berretsi nahi dut ez naizela ETAKo kidea eta ez diodala inoiz ETARI lagundu. Izatekotan, nire herriaren emantzipazio sozial, politikoa eta kulturalarekin zerikusia duten eremuetan bizitza profesionala bideratu izanaren errudun naiz, baina, nire ustez, horrek ez nau bihurtzen ez ETAKo kide eta ez ETArekin laguntzaile. Epaila jaun-andereok, ezin duzue historia honen zati bat eragotzi, azken zazpi urte hauetan iraganiko; ezin duzue eragotzi kasu hau euskal gizartearen memoria kolektibora eraso moduan pasatzea. Agian, eragotzi ahal duzue eragin hau zabalitzea, zigortzen ez duen epai baten bidez. Ekidinez epai zigortzaile bat zeinek bihar-etzi, batek daki, eragingo lukeen agian jurisprudentzia bat poliziaren tesiari arrazoi emango liokeena... Rubalcaba ministroak, iazko uztailean, gogorarazi zigun Poliziak —kasu honetan Guardia Zibilak— bere tesi propioak dituela, gero hainbat arlotan gauzatzen direnak, kasu honetan eremu kultural eta linguistiko euskaldunean. Tesi hori, Guardia

Zibilaren dokumentuetan ikusi dugunagatik, honela laburbil daiteke: euskara eta euskal kulturaz arduratzen den legeria bat badago, sare instituzional bat badago, zertara dator eragile sozialek zeregin horretan jardutea, ez bada beste helburu batzuekin? Etorkizunari begira eta, oro har, demokraziaren garapenari begira, ondorio suntsigarria iruditzen zaigu. Ez naiz aditua kultura klasikoan, baina asteburu honetan egunkari batean irakurtzeko beta izan dut Sokratesen arabera epaile onak funtsezko lau premisa bete behar dituela: erantzunetan kortesia, galderetan jakintza, balorazioan zuhertasuna eta erabakian inpartzialtasuna. Hemen kortesia eta aditasuna izan dugu, zazpi urte hauetan izan ez duguna, batez ere hasieran. Beste hiruren garapena falta da, eta batez ere inpartzialtasunarena, orain hartu behar duzuelako erabakia. Inpartzialtasuna erabiliko duzuela uste izanda, esaten dizuet beharko duzuela, zeren eta beharrezkoa izango baita askoren ustez kasu honen jatorrian dagoen bultzada politikoari buelta emateko. Besterik ez, eskerrik asko”.

MARTXELO OTAMENDI: “Leporatzen dizkidaten delituen errugabe naiz. Euskarazko egunkari bat zuzendu izanaren errudun naiz. Oso harro nago zuzendu izanaz. Oso esperientzia atsegina izan da. Oso eskertuta nago *Egunkaria* zuzentzeko aukeratu ninduten administrazio kontseiluko kideekin, modua eman zidatelako, ezin ordainduzko langile talde batekin batera, euskal kulturaz azken 30 urteotan izandako itxaropen handienetakoa bat aurrera eramateko. Nigatik diodan guztia nire aulkiko lagunengatik diot. Ohore bat izan da partekatzea... Horietakoa batzuekin urteak partekatatu ditut, Iñaki Uriaren kasuan bera kontseilari ordezkari zelako eta ni zuzendari. Eta Xabier Oleagaren kasuan, erredakzioan egon zen bi urte horiek. Txema Auzmendi eta Joan Mari Torrealdairekin ere bai. Eskua sutan jartzen dut: ez dira inoiz izan ETAKoak; ez dugu inoiz lan egin ez koordinatuta, ez menpeko; ez dugu inoiz jaso inongo gomendiorik, inongo agindurik, inongo iradokizun, inongo proposamenik, sekulan ez. Gure delitu bakarra izan da gure hizkuntzaren garapenaren lan egitea, kasu honetan euskarri mediatiko baten bidez. Hainbeste jurisprudentzia dagoen instituzio batean, ongi legoke norbaitek jurisprudentzia egitea esanez inor ezin dela izan ETAKoa berak jakin gabe; ezin zaio inori leporatu ETAKoa izatea berak jakin gabe. Nola izango naiz ETAKoa ez badakit? Eta hori horrela da, berdin da Guardia Zibilak esan, Agamenonek esan edo haren txerrizainak esan. Eskerrik asko arretagatik”.

JOAN MARI TORREALDAI: “Labur arituko naiz, ordua kontuan izanda. Cervantesen eta On Kixoteren esapide bat erabiliz hasiko naiz. Ahozko epaiketa honetan argi gelditu da letra gizonak garela, eta ez arma gizonak. Guk beti kulturaren jardun dugu, kazetaritzan eta hizkuntzaren sustapenaren alde. *Egunkaria*-ren kasuan, hutsune historiko bat betetzea izan da gure gogo bizia, eta ohore bat izan da egin izana. Euskarak euskal pizkundetik, 1876tik izan duen hutsunea betetzea. Azkenean lortu genuen. Akusazioaren tesien kontra, esango dugu, eta gure ibilbidea hor dago, ez garela ETako kideak, ez garela ETako kideak izan; ez nik, ez nire aulkiko lagunek, ez *Egunkaria*-k ez dugula inoiz parte hartu inongo estrategiatan, ez kulturaletan, ez militarretan, ez politikotan, *Egunkaria*-rena berarena ez bada. Horren lekuko jartzen dut nire kasu zehatza, nire bizitza publikoa, beti kultura eta hizkuntzaren autonomia gauzatuz, 1964tik. ETatik haratago bizitza badagoela baieztatzen dut, euskararen mundu soziala autonomoa dela; zorionez, dena ez dela ETA. Eta horren froga *Egunkaria*-ren independentzia bera da. Prozesu honetan guztian barrena hamaika amarru egon dira, gauza bat egin edo bestea, beti froga gure kontra. ETaren omnipresentzia euskal kulturari: hori tesi interesatua da. Badago akats bat errotik, suposatzen duena ETA dela ekimen sozialeko proiektuen inguruko azalpen ororen printzipio unibertsala. Iruin jaunak oso ongi gogoratu duenez, lekuko izan nintzen, aktore izan nintzen, 60-70eko hamarkadetan, euskararen bateratze prozesuan; akusatuak izan ginen ETakoak izateaz, *H*-a ETaren sinboloa zela-eta eta euskara batua marxista zela-eta. Gaur egun azalpen hauek hutsalak dira, eta *Egunkaria*-ren kasuan, perspektiba historikoarekin, gauza bera gertatuko da. Hauek dira absolutzioa eskatzeko ditudan arrazoietakoz batzuk. Bi gauzatxo gehitu nahiko nintzuke. Zazpi urte gure onetik kanpo pasatu ditugu, gure zeregin kulturaletik kanpo. Sozialki behartuta gure erragabetasuna demostratzen, ETako kide edo laguntzaile izateko etengabeko susmopean. Bizitzeko gogorra izan da. Epairik gabeko zigor bat da. Birgaitzeko eskatzen dizuet. Gugatik, gure familiengatik, eta euskaragatik beragatik. Gogoratu nahi dizuet gaur egun gizonen batez besteko adina 77 urtekoa dela: hamar urte gelditzen zaizkit, eta nire familiarekin bizi nahi ditut, hark behar bainau, eta nire artxiboekin, behar baititut. Espero dut justizia egingo duzuela eta errugabetzat joko gaituzuela. Eskerrik asko entzuteagatik”.

Afaria okupen etxean

Joan Mari Torrealdairi ez zion denborarik eman zutitu, bere aulkira itzuli eta esertzeko. Epaimahaiari bizkar emanda, zutik zegoela entzun zuen Javier Gomez Bermudez epaimahaiburuaren ahotan ohiko esaldi hau: “Epaiaren zain gelditu da. Hustu ezazue aretoa”. Epaiketa amaituta zegoen.

Auzipetuak, baina, biharamunera arte ez ziren itzuliko etxera. Berandu zen, gaueko bederatziak laurden gutxi aldera, baina motiboa beste bat izan zen. Madrilgo elkartasun taldeak afari bat antolatu zien, agur gisa, eta bertara joateko hitza emana zuten. Auzipetuak ez ziren bakarrik joan: senideekin, abokatuekin, antolakuntza eta komunikazio lanetan aritutako Andoni Alvarez eta Mikel Arrietarekin eta epaiketako azken saiora joandako *Egunkaria*-ko lagun batzuekin ere joan ziren. Gonbidapena jaso arren, ez zuten joaterik izan, ordea, *Berria*-ko kazetariak, paperean edo sarean –bidez edo *Twitter*-en bidez–, epaiketaren berri ematen aritutako Oihana Elduaien, Aitziber Laskibar eta Lara Madinabeitiak. Saioa oso berandu amaitu zenez, egin beharreko lana berandu amaitu zuten, eta pentsatu zuten ez zirela iritsiko postretarako ere. Gero, afariaren giroaren berri izan zutenean, pena izan zuten, joan, egon eta irudi batzuk ez hartu izanagatik.

Madrilen lotan gelditzen ziren bakoitzean, bost auzipetuak beti elkar-zen ziren afaltzeko, senide guztiekin batera. Aldi gehienetan pizzeria batean. Eguneko bizipenak partekatzeko unea izaten zen, epaiketa eramangarriago egin zien unea. Abokatuak, ordea, lanagatik, beste erritmo batera ibiltzen ziren, beren kabuz. Baina azken egun hartan, ez. Auzipetu eta senideekin batera joan ziren afaltzera, nahiz eta Madrilgo Pez kaleko etxe okupatu batean izan.

Patio Maravillas izeneko etxe okupatu ospetsua egon zen Madrilen, eta hura hustu zutenean, beste bat okupatu zuten inguruan, Justizia Ministeriotik gertu, eta bertan jarri duten jatetxeari *El Meson de Patio Maravillas* deitzen diote. Sarrera, patio baten modukoa, nahiko txukuna

du, baina beste bi gelak eskoratuta daude. Hamaika eta erdiak inguruan, han elkartu ziren auzipetuak, senideak eta abokatuak Madrilgo lagunekin, afaltzeko. Haien artean, Pedro Casas eta elkartasun taldeko gainerako kideez gain, Carlos Taibo irakaslea eta Carlos Tena kazetaria izan ziren.

Tipula zopa eta marmitakoa afaldu zuten, astoen gainean jarritako mahaietan, batzuetan erortzen ziren mahai batzuetan. Hala ere, giro ezin hobean. Amaieran, postreetan, ezker giroko alokuzio labur eta guzti. Beterano batek *Txano Gorritxo* kantatu zuen. Giro zoragarria eta oroitzapen ederra guztientzat, epaiketaren orria pasatzen hasteko.

Apirilak 12

Absoluzioa baino zerbait gehiago

Hiru epaile, buru bakarra

Epaia tribunaleko hiru magistratuek sinatu behar zuten. Hirurek dute ibilbide luzea auzitegietan. Ramon Saez Varcancel ezaguna da joera aurre-rakoa izateagatik. 1989tik 2001era arte Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko kidea izan zen, IUk proposatuta. Frankismoko epaiak baliogabetezaren alde agertu izan da, eta frankismoaren krimenak ikertzeko Garzonek hasitako eginbideak babestu zituen juridikoki. Demokraziarako Epaileak elkarteko kidea da. Manuela Fernandez Prado, berriz, 1993tik ari da Auzitegi Nazionaleko zigor arloko salako I. sekzioan, aurretik hainbat epaitegitan fiskal jardun ondoren. Demokraziarako Epaileak elkarteko kidea ere bada. Javier Gomez Bermudez *M-11 auziaren* epaiketaren epaimahaiburua izateagatik ezaguna da. Zigor salako lehen sekzioko lehendakaritzara iritsi aurretik, Auzitegi Nazionaleko Espetxe Zaintzako epaitegian aritu zen. Joera kontserbadorea duen Magistraturaren Elkarte Profesionaleko kidea da.

Hiru epailek osatutako tribunala, baina, zalantzarik gabe, buru bakarrekoa. Javier Gomez Bermudez zen epaimahaiburua, epaiketa gidatu eta epaia idatzi behar zuena. Hura izan zen epaiketaren gidaria, erritmoa markatzen zuena. “Epaile bat definizioz presioaren profesional bat da” esatea gustuko du, eta gaitasun hori duela erakustea ere bai. Sumarioko liburukiak ongi ikasiak eraman zituen; adi egoten zen une oro, eta galdeketa koplarik gabe eteteko prest zegoen, bai defentsa abokatuarenak, bai

akusazioetako abokatuenak. Dignidad y Justicia abokatuak entzun zuen gehien “Lekuz kanpo” esamoldea Gomez Bermudezen ahotan. Moztu bakarrik ez zuen egiten: bere erabakiak azaldu ere egiten zuen.

Puntualtasuna gogokoa du Gomez Bermudezek. Saioak garaiz hastea gustatzen zitzaion, eta etenaldiak mugatuak izatea. Baina ez zuen beti lortzen. Behin baino gehiagotan, beste magistratuak iritsi zain egon behar izan zuen saioa hasteko edo jarraitzeko. Behin, hamar minutuko etenaldia egin zuen, baina bera ez zen aretotik atera. Hamar, hamabost, hogeit hamar minutu iragan ziren, eta beste bi magistratuak ez ziren iristen. “Hemen, etxe honetan, ez dago ordutegirik: hamar minutu ematen dituzu, hogeit hamar dira eta ez dira jaitsi. Hemen ez du agintzen Greenwich meridianok”, kexatu zen orduan Gomez Bermudez. Elkarrizketa informal horietako bat zen, abokatuekin edo laguntzaileekin izandakoa, auzipetuek entzuteko moduan egina, baina, areto blindatua zenez, publikoak ez zuen aditu. “Puntualtasunari dagokionez, oso britainiarra naiz; beste gauza batzuetarako, ordea, frantsestua”, erantsi zuen epaileak, baina argitu gabe zertan zen frantsestua. Agian, estilografikoen zaletasunagatik, epaiketan hiru modelo erabili baitzituen.

Ageriko beste zaletasuna teknologia berriei dagokie. Oharrak *netbook* batean hartzen zituen, eta bertatik kontrastatzen zuen auziko dokumentazioa. Ondoan, mahai gainean, iPhone bat zeukan. Ez zen harritzekoa, beraz, Auzitegi Nazionalako presidentek teknologia berrietarako arduraduna izendatu izana.

Berria egunkariak *Twitter*-en bidez epaiketa saio guztien aldi bereko kontakizuna egiteko baimena eskatu zionean, berehala erantzun zuen baietz. Era horretara, *Berria.info*-k leiho bat ireki zuen une oro epaigelan zer gertatzen ari zen jarraitu ahal izateko, lehen aldiz epaiketa bat *Twitter*-en bidez emateko. Auzitegi Nazionalako Komunikazio arduraduna bera, jakin-minez, prentsa aretora bildu zen egun batez, *Berria*-ko kazetariak *Twitter* bidezko emanaldia nola egiten zuten ikustera.

Gordetzeko epaia

“Absolbitu beharra daukagu eta absolbitzen ditugu Joan Maria Torrealdai Nabea, Iñaki Uria Manterola, Martxelo Otamendi Egiguren, Xabier Oleaga Arondo eta Jose Maria Auzmendi Larrarte...”. Epaia-aren amaiera da, bertan idazten baita azken erabakia. Emaiza pozgarri hura izateaz gain, epaiak hainbat puntu interesgarri ditu, 33 orrialdeetan. Eta zuzendu beharreko akatsen bat ere (bi aldiz idatzita zegoen *Egunkaria*-ren itxiera “1998ko uztailean” gertatu zela, 2003ko otsailean jarri beharrean).

1. Gertaera frogatuak

Gertaera frogatuen atalean, labur, ontzat jotzen da auzipetuek eginko kontakizun historikoa. *Euskaldunon Egunkaria*-ren, hau da, euskaraz argitaratutako egunkari bakarraren lehen alea 1990eko abenduaren 6an jarri zen salgai. Egunkaria SA elkarte argitaldaria 1990eko ekainaren 11n eratu zen, 10 milioi pezetako kapitalarekin. Egunkaria Sortzen kultur elkartean bildutako hirurogei lagun inguruk osatuko zuten Egunkaria Sortzen SM elkarteak zituen akzio gehienak. *Egunkaria*-k euskal instituzioen diru laguntza publikoak izan zituen... Datu ezagun horiez eta beste batzuez gain, bi motatako ukapenak jaso ditu epaiak. Lehena, legezko kanpoko diru mugimendurik ukatzeko. Bigarrena, ETArekiko edozein lotura ukatzeko.

“Ez da frogatu sozietatearen kapitala edo bestelako baliabideak legez kanpo jasoak zirenik. Orobat, ez da frogatu argitalpen sozietateak edo egunkariak dirurik edo inolako aktiborik bidali edo eman zionik ETA talde terroristari”.

“*Euskaldunon Egunkaria*-k ez zuen haren argitaratzaileen edo egunero egiten zutenen pentsamoldea adierazteko editorialik argitaratzen, eta ez da jaso ETA talde terroristaren postulatuak defenditu izana, edo haren agindurik jaso izana, edo *Egunkaria*-ko buruzagiek,

bereziki auzipetuek, aipatutako taldearen kontsignak obeditu izana, lagundu izana, loturarik eduki izana edo hark izendatu izana”.

2. ‘Egunkaria’-ren itxiera auzitan

Zuzenbide oinarrien atalean, *Euskaldunon Egunkaria* ixteko erabakiaren egokitasuna aztertu du tribunalak epaian. Lehenik, ohartarazi du Espainiako legeriaren arabera nekez izan dezakeela tokirik horrelako neurri bat.

“Gure legediaren arabera, nekez onar daiteke eguneroko komunikabide inprimatu bat aldi baterako ixtea kautelazko neurri gisa. Behin-behineko suspentsioak ez dauka babes konstituzional zuzenik, zeren eta Konstituzioan, argitalpenen eta beste hedabideen jardueran botere publikoen esku-sartze gisa, bahiketa bakarrik arautzen baita”.

Ondoren, komunikatzeko eta egiazko informazioa jasotzeko eskubidearen izaera bikoitza eta garrantzia nabarmendu du. Informazio askatasunaren erabilerak, bai hedabideen eta bai kazetarien aldetik, babes gorenarekin eskatzen duela uste du tribunalak. Horregatik dio Zigor Kodearen 129. artikulura jotzea ez zaiola iruditzen babes nahikorik.

“Ohiko legedian, komunikabideei dagokiela, ez dago araurik epaileari bide zehatz eta zuzenekoa ematen dionik behin-behinean komunikabideen jarduera eteteko, eta ez dirudi Zigor Kodearen 129. artikulua nahikoa denik egunkari bat kautelaz ixteko, non eta ez den gertatzen egoera guztiz bereziren bat, hala nola delitu larriak egitea eragotzi beharra edo beste neurrik hartzea ezinezkoa izatea. Izan ere, ez dira enpresa edo sozietate ohikoak: komunikabideak dira, eta haien lana ezinbestekoa da gizarte demokratiko batean, herritarren oinarritzko eskubide funtsezko batzuk bermatzeko tresnak baitira. Beraz, haiek ixteak eragin kolektibo erantsi bat du, eta, alde horretatik, *Egunkaria* itxi izanak euskaraz irakurtzen dutenei eragiten die, kazeta hori besterik ez baitzuten. Horrek are garrantzitsuagoa egiten zuen pluraltasunaren ikuspegitik, eta pluraltasuna, hain zuzen, gure

ordenamenduaren balio gorenetakoa bat da, askatasunarekin batean, Konstituzioaren 1. artikulua dioenez”.

Zigor Kodearen 129. artikulua baliatzeko erabakiak, tribunalaren irudiko, egunkariak esan nahi zuen arrisku instrumental zehatza argudiatu beharra eskatzen zuen. Eta ez zen halakorik egin. *Egunkaria*-ri ez zitzaion egozten inolako deliturik informazioa eta iritzia emateko zereginekin lotuta. Beraz, epaiaren ondorioa argia da:

“*Euskaldunon Egunkaria*, garai hartako euskarazko kazeta bakarra, behin-behinean edo kautelaz ixteak ez zuen heldulekurik Konstituzioan, eta ez zegoen bestelako lege berezi edo berariazkorik horretarako biderik ematen zuenik. Bestalde, zigor kodearen 129. artikulua ez da oinarri segurua eta ez da aski horrelakorik egiteko; izan ere, kazetak ez dira, esan dugunez, beste zernahi enpresa bezalakoak”.

3. Inferentzia ereduak baliorik gabe

Egunkaria ETArekin tresna bat zela argudiatzeko, zantzuetan oinarritutako zeharkako kargu frogak luze bat aurkeztu zuten akusazioek. Mota horretako frogaren ezaugarriak zein diren laburbildu du epaiak, Auzitegi Gorenaren epai baten laguntzaz.

“Inferentziak arrazionala eta sendoa izan behar du. Ondorioak logikoa eta koherentea izan behar du, eta hori ez da gertatzen baldin zantzuak baztertzen badute frogatu nahi den gertaera, edo ez baldin badute modu naturalera eramaten frogatu nahi den gertaerara. Gainera, zantzuak nahikoak izan behar dute, edo kalitate erabakigarria izan, eta horrelakorik ez da izango baldin eta inferentzia zabalegia, ahula edo zehaztugabea bada”.

“Ez da zilegi aztarna bat frogatutzat ematea beste aztarna batzuetan oinarrituta; izan ere, indukzio multipleak espekulazioa dakar, arrazoizko hipotesien kopurua dela eta. Horixe gertatzen da autoan, ikusi dugunez, akusaziozko tesiarekin”.

Eremu juridikoa finkatu ondoren, tribunalak baliorik gabekotzat eta espekulaziotzat jo du *Egunkaria*-ren kasua aztertu eta akusazioek erabilitako inferentzia.

“Euskararekin eta euskarazko kulturarekin zerikusia duen oro ETAk sustatzen eta kontrolatzen duelako ikuspegi estu eta okerrak berekin dakar datuak eta gertaerak oker interpretatzea auzibideetan, eta inputazioa funtsik gabea izatea”.

“Begi bistan dago zein ahula den akusazioaren abiapuntua. Izan ere, zigor zuzenbidearen arloan ez da aski talde kriminal batek —kasu honetan, ETAk— pertsona fisikoak edo juridikoak erabiltzea bere proiektu kriminalean; aitzitik, egiaztatu beharra dago erabilitako pertsona horiek —kasu honetan, akusatuek, egunkariaren kudetzaile eta zuzendari ziren aldetik— jakinaren gainean eta nahita lagundu ziotela talde terroristari, hark bere helburuak lor zitzen.

Oztopo hori gainditzeko, akusazioen tesiak mendeko bat du, eta horren bitartez justifikatu egin nahi dute ezer frogatzeko zailtasuna: horren arabera, ikusten dena ez da dirudiena, eta ikusten dena ez da dena, ETAk proiektuaren gidariak aukeratu zituenean bandarekin edo ezker abertzale erradikalarekin zerikusirik ez zuten batzuk aukeratu baitzituen; hartara, gizartea engainatuz, proiektua kontrola zezakeen, talde terroristarekin indentifikatu gabe. Azkeneko tesi horrek, mendeko tesia deitu dugun horrek, ez dauka inolako froga baliorik: espekulazio hutsa da, eta, beraz, Auzitegiak ez du onartzen, jakina”.

4. Epaietako frogaren azterketa

Tribunalaren esku jarritako froga multzoak, epaiaren arabera, ez du balio inkrimintatzeko, “aurrejuzgu hutsetan oinarriturik ez bada”. Akusazio itxura izateko modu bakarra da alde aurretik finkaturiko abiapuntutzat hartzea lotura bazegoela ETaren eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren artean. Horregatik dio tribunalak akusazioek alde-rantziz egin dutela inferentzia prozesua.

“Akusazioetan, atzekoz aurrera egin dute indukzio prozesua. Lehenbizi, erabaki da zein den ondorioa, eta esan da, oinarririk gabe esan ere, ondorio hori eztabaida ez dela; gero, seinale, zantzu eta aztarna bila hasi dira; eta, azkenik, arbuia egin da ondorioarekin bat ez datorren zernahi esplikazio”.

Akusatuen deklarazioei dagokienez, tribunalak ontzat jo ditu Torrealdaik, Uriak eta Auzmendik *Egunkaria*-ren sorrerari buruz emandako azalpenak. Akusatu guztiak ETArekiko lotura oro ukatzean irmo agertu izana kontuan hartu du, eta, bereziki, nabarmendu du esanguratsuak izan zirela ETArekin lotutako agiriak 1991n argitaratu zirenean horrek sortu zien arbuioari buruzko adierazpenak, baita garai hartan informazio haiek gezurtatzeko administrazio kontseiluak argitaratutako oharra ere. Akusatuak emandako azalpenak, gainera, lekukoek berretsi zituztela kontuan hartu du epaiak.

5. Tortura salaketen sinesgarritasuna

Tribunalak akusazioen deklarazioa aztertzean jorratu du tortura salaketen gaia, baina aparteko atala merezi du. Berez, berebiziko garrantzia du tortura testigantzei emandako sinesgarritasunak, eta, gainera, ondorio erabakigarriak izan ditzake egun tramitatzen ari den auzian, Martxelo Otamendiren salaketan, alegia.

Tribunalaren ustez, garrantzi berezia du Xabier Oleaga *Egunkaria*-n sartu zeneko datak, deklarazio polizialean 1993an izan zela esan zuelako, eta ahozko epaiketan, aldiz, 1995ean izan zela, eta azken hori bat datorrela Iñaki Uria eta Imanol Muruaren deklarazioekin eta lan bizitzaren agiriarekin. Epaian honela dago jasoa aztergai hori:

“Oleagak azaldu zuen deklarazio polizialean eta instrukzio epailearen aurrean egindako data aldaketak jasan zituen tratatu txarren eta torturen eta zuen egoera psikologikoaren ondorio izan zirela. Horren inguruan, esan zuen galdetzaileek errepikatu ziotela bi galderari bakarrik erantzuteko eta gero ‘bakean utziko zutela’. Lehenengoari

erantzun behar zion 1993ko martxoan sartu zela, eta bigarrenari Uriak auzipetuak egin ziola proposamena, nahiz eta azken galdera hori ez zitzaion egin. Deklarazioa aztertuta, harrigarria da, hain zuzen ere, *Egunkaria*-n sartzeari buruz bakarrik galdetzea, proposamena egin zionari buruz galderarik egin gabe, nahiz eta Uriak berak onartua du bera izan zela. Arrazoa ETako kideei atzemandako agirietako aipamen batzuei zentzu inkriminatorioa ematea besterik ezin da izan. Salak frogatutzat jo du 1995eko otsailean sartu zela, lehen aipatutako arrazoiengatik eta deklarazioen arteko desadostasunari buruz epaiketari eman zuen azalpena sinesgarria delako”.

Xabier Oleagaren kasua aztertu ondoren, tribunalak aipamen orokor bat egin du akusatuek salatutako tortura eta tratu txarren inguruan.

“Epaletuen deklarazioei dagokienez, nabarmentzekoa da inkomunikazio aldian jasaniko tratu txarren eta torturei buruz epaituek eginitako salaketak bat datozela auzitegiko medikuek atxilotze zentroetan haiek aztertu eta gero eginiko txostenekin —ahozko saioan xehe konstatu zituzten tratu txar horiek, eta, hori baino lehenago, instruktorearen aurrean ere bai, eta epaitegietan salatu zituzten—. Nolanahi ere, Auzitegi honek ezin du ondorio juridiko-penalik izango duen konklusiorik egin horretaz, baina egiaztatu du ez zela nahikoa eta behar bezala kontrolatu nolakoa izan zen inkomunikazio aldia”.

Epaia Xabier Oleagaren kasu bereziari buruz, gainerako akusatuen testigantzari buruz eta kontrol judizial ez-nahikoari buruz dioena garrantzi handikoa da, eta eragin zuzena izan lezake tortura salaketetan. Adibidez, Xabier Oleagak berak jarritako salaketan, baina horren ibilbide judiziala amaituta dago. Auzitegi Konstituzionalak ez zuen aintzat hartu babes helegitea, eta arazo teknikoengatik auzia ez zen Europako Giza Eskubideen Auzitegira eramaterik izan.

Martxelo Otamendiren salaketaren kasua, berriz, Europako Giza Eskubideen Auzitegian dago, 2008az geroztik, aztertu edo ez erabaki zain. Martxelo Otamendiren kasuan, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ez zuen onartu babes helegitea aztertzea. Epai honetan, Auzitegi Nazionaleko tribunalak emandako sinesgarritasunak duda-

rik gabe indartuko du Martxelo Otamendik Estrasburgoko Auzitegian Espainiaren kontra jarritako salaketa, hain zuzen, berak salatutako torturak eraginkortasunez ez ikertzeagatik eta ikertzeko bitartekorik ez jarzteagatik. Epaia jaso eta egun gutxitara, Estrasburgoko Auzitegian aurkeztutako salaketari erantsi zion Martxelo Otamendik, aintzat hartua izateko oso baliotsua izan daitekeelako.

6. Guardia Zibilaren txostenak

Guardia Zibilak egindako txostenak peritu froga izan zitezen proposatu eta onartu baziren ere, azkenean tribunalak ez die aitortu izaera hori.

“Akusazioek lekuko-peritu gisa proposatu zituzten Guardia Zibileko kide batzuk, inteligentziazkoak deituriko txostenak egin zituztelako, salak perizial gisa onartu zituenak. Izan ere, txosten horiek ez dute merezi izen hori, ez baitira osatu Auzitegi honi arrotz zaion inolako ezaguerara tekniko-zientifiko, artistiko edo praktikotan oinarriturik”.

Ondorioz, tribunalak bere gain hartu zuen dokumentuak aztertzeke erantzukizuna.

7. ETArek dokumentuak

ETari atzemandako dokumentuei dagokienez, lehenik eta behin, epaiak dio agiri horietan *Egunkaria* eta auzipetuetako batzuk aipatzen badira ere akusatuetako bat ere ez dela haien egilea edo informazio iturria. Halaber, dokumentu horiek zenbait hedabidetan argitaratu zirela nabarmendu du tribunalak. Horrela izanik, auzipetu batzuen esku agertzea printzipioz zalantzarria da, eta defentsak egituratutako frogaren arabera “kontrazantzutzat” hartu du tribunalak. Hainbat dokumentu aztertu ondoren, honako ondorio honetara iritsi da tribunalak:

“Azterturiko dokumentu guztien inguruan egin daiteke, akusazioen aldera ahalik eta gehien lerroturiko ikuspegian oinarrituta ere, beste-lako interpretazio bat, zeinaren arabera akusazioen ondorioa nahas-garria baita, eta, beraz, auzipetuen alde egin beharra dago. Eta doku-mentuak defentsen ikuspegitik aztertzen baditugu, denak dira bate-ragarriak akusatuak errugabetzen dituzten interpretazioekin. Beraz, bide batetik zein bestetik, froga horiek ez dira nahikoa akusazioari eusteko, edo baztertu egiten dute akusazioa”.

Dokumentuen azterketaz gain, *Zutabe* aldizkariaren aleak edukitzeari buruz epaimahaiak ondorioztatukoa. Martxelo Otamendik eta Xabier Oleagak, bakoitzak bere bulegoan, ale batzuk izatea ETako kide izatearen zantzutzat jo zuten akusazioek. Tribunalaren iritzia oso bestelakoa da:

“Kazetariak *Zutabe* izateak, nahiz eta zenbaki baten ale batzuk izan, ez du ezer egiaztatzen, jakina baita ETaren planfeto hori erredakzio askotan eta kazetari askoren eskuetan zegoela”.

“Xabier Oleagaren kasuan, deigarria da akusatzeko datu gisa erabil-tzea 48. zenbakiaren lau ale izatea eta, aldi berean, ez aipatzea 89. zenbakiaren kopia bat ere badaukala. Bertan Lizarazu futbolariari bidalitako estortsio gutun bat agertzen da, non aipatzen diren ikasto-lak, estortsioaren diruaren helburuetako baten moduan; Oleagak jau-nak idatzitako erantzun gogor bat eragin zuen, haren ordenagailuan landu zena, jokalariaren izena duten hiru artxibo daudela egiaztatze-an ondorioztatzen denez”.

8. Ondorioak

Hiru paragrafotan laburbildu zuen epaimahaiak epaiketaren emai-tza. Labur, argi eta irmo.

“Azken batean, akusazioek ez dute frogatu auzipetuek inolako harre-manik dutenik ETarekin, eta horrek berekin dakar absolutzioa, alde-ko erabaki guztiekin.

Baina, gainera, ez da egiaztatu, ez zuzenean eta ez zeharka, *Euskaldunon Egunkaria*-k talde terroristaren ideien alde egin izana, terrorismoaren edo terroristen aldeko artikulua bakar bat argitaratu izana, edo haren ildo editoriala joera politiko jakin batera makurtu izana; gainera, azken hori ez litzateke delitu izango.

Aitzitik, peritu gisa aurkezturiko guardia zibilek aitortu zuten ez zela ikertu ea egunkariaren ildoa ETaren aldekoa zen ala ez, eta horrek ulertezin egiten du inputatu izana”.

Helegiterik ez

Epaia, bistan da, sendoa, arrazoizkoa eta arrazoitua zen, zirrikiturik gabekoa azken finean, eta horrek berehalako ondorio garrantzitsua ekarri zuten. Bi akusazioek amore eman behar izan zuten, eta kasazio helegiterik ez jartzea erabaki zuten. Absolutzio epaia, beraz, irmo bihurtu zen, zehazki, 2010eko maiatzaren 4an.

Dignidad y Justicia eta AVT elkarteek prentsaurreko bat egin zuten apirilaren 29an, erabakiaren berri emateko. Bi elkarteetako presidentek, Daniel Portero (DyJ) eta Juan Antonio Garcia Casquero (AVT), elkarren ondoan agertu ziren komunikabideen aurrean, Antonio Guerrero AVTko abokatuak lagunduta. Auzipetu guztiak zigortzeko “nahiko froga” bazeudela esan zuten, lotsarik gabe, baina epaiari Auzitegi Gorenean buelta ematea “oso zaila” zela aitortu zuten. Auzitegi Gorenean auzia galduz gero helegitearen prozesu-kostuak ordaindu beharko zituztela jakinik, zuhurrena helegiterik ez jartzea litzatekeela aitortu zuten Antonio Guerrero abokatuak.

Auzi ekonomikoa ere aipatu zuten. Sumario horretan zigor bat bilatzen jarraituko zutela jakinarazi zuten Daniel Porterok, Dignidad y Justicia elkarteko presidentek (AVT ez da parte auzibide honetan). “Al Capone ez

zuten inoiz zigortu hilketagatik, baizik eta delitu fiskalengatik. Ez dut egin nahi erkaketarik, baina saiatuko gara”, esan zuen Daniel Porterok. Halaber, auzi ekonomikoa Auzitegi Nazionalan epai zezatela eskatzen jarraituko zuela jakinarazi zuen. Alferrik. Auzitegi Nazionalak berehala erabaki zuen inhibitzea.

Auzi ekonomikoa, Gipuzkoara

Epaia irmo bihurtu eta biharamunean, 2010eko maiatzaren 5ean, Jose Maria Vazquez Honrubia zigor arloko epaileak —prozedura laburtua izanda auzia epaitu behar zuenak— auzi ekonomikoaren eskumenari uko egitea erabaki zuen. Defentsak auzi ekonomikoaren tramitazioa eteteko eskatua zuen, auzi nagusian epaia egon arte. Hori iristean, ez zegoen gehiago itxaron beharrik. Defentsak bezala, fiskalak ere inhibitioa eskatua zeukan, eta Vazquez Honrubia epaileak bere egin zuen eskaera. “Begi bistakoa da, Fiskaltzak eskatzen duen bezala, Auzitegi Nazionala eta, beraz, zigor arloko epaitegi zentral hau ez dela eskuduna ahozko epaiketa irekitzeko argudiatu diren delituak epaitzeko”. Vazquez Honrubia magistratuak bi argudio mota erabili zituen. Batetik, epaileak nabarmendu zuen ustezko delitu fiskalek ez zeukatela akusazioaren idatzian ere lotura zuzena talde armatuko kide izateko delituarekin. “Bitxia den arren, herri akusazioak ere ez du lotu balizko iruzur fiskala, ezta zantzuekin ere, delituzko jarduera hori ETA talde terrorista finantzatzeko bideratuta egotearekin”. Bestetik, epaileak argudiatu zuen auzi nagusiaren epaiak absoluzioa ekarrita “begi bistakoa” zela Auzitegi Nazionalaren eskumenik eza. Ondorioz, inhibitu egin zen Gipuzkoako Lurralde Auzitegiaren alde. Zortzi lagun daude auzipetuta sumario honetan: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Joxe Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Begoña Zubelzu eta Fernando Furundarena. Auzipetuek pozik hartu zuten erabakia, eta Joan Mari Torrealdai Daniel Porterori erantzuteko baliatu zuen aukera: “Kasu honetan, mafiakideak izateko ez gogoz gogoz gogoz, baina frogatuko dugu hori ere gezurra dela”.

Apirilak 25

Mila esker

Euskaldunak Euskaldunan

Epaia jakin aurretik hasi ziren auzipetuak lantzen eskertzeko ekitaldi bat egiteko asmoa, epaiketak amaiera ona izango zuelako itxaropenarekin, baina hipotesirik baztertu gabe. Prozesuak iraun duen zazpi urteetan jasotako laguntza, babesa eta elkartasuna eskertzeko ekitaldi bat antolatzeari aztergai izan zuten epaiketa amaitu ondoko bileretan. Bost auzipetuak buelta eta buelta ibili ziren ekitaldiaren antolaketarekin: non egin, noiz, nolako gidioa, nolako protokoloa... Gogoeta horretan ari zirela, epaia apirilaren 12an kaleratuko zela jakin zuten, epaimahaiak probidentzia baten bidez jakinarazi zuelako, martxoaren 26an. Ekitaldiaren kontua azkartu behar zela iritzita, hiru egun geroago, elkarrekin bazkaltzeko gelditu ziren, apirilaren 29an, Usurbilen. Uste baino bazkari-bilera luzeagoa izan zen, solasaldia arratsaldeko zazpiak arte luzatu baitzen. Batzuek ospakizun ekitaldia egiteko karpa bat alokatzea proposatu bazuten ere, azkenean Euskalduna jauregian egiteko proposamena gailendu zen. Eztabaidan ari zirela, Ramon Etxezarreta Hizkuntz Politikarako sailburordearen dimisioaren berri izan zuten. Bostetatik hiruk SMS mezu bat jaso zuten bostak aldera. “Ezin nuen gehiago. Utzi egin dut”. Ramon Etxezarretarena berarena zen.

Ekitaldia *Egunkaria* izan zenaren ispilu izan zen, haren izaera eta ezauzgarrien neurrikoa. Ekitaldiko protagonistak *Egunkaria*-ren beraren mamia ziren: euskalgintza eta euskal kulturaren eragileak, *Egunkaria*-ko

langileak, Euskal Herriko herri batzordeak, Euskal Herritik kanpoko elkartasun taldeak, babes taldea... eta, haiekin batera, nahiz eta oholtzara ez igo, proiektuaren aniztasuna irudikatzen zuen gizarte eta instituzio ordezkari-tza zabala.

Zuraren doinua, bertsoak, koplak, hitzak, irudiak, abestiak, dantza, salaketa oihuak —“hemen torturatu egiten da”—, oroitzapenak... harilkatuz joan ziren ekitaldi gogoangarri bat osatu arte.

Langileen konpromisoa

Langileak hasieratik izan ziren *Egunkaria*-ren proiektuaren parte eta zutabe nagusietako bat. Are gehiago itxi zutenean, proiektu berriaren motorra izateko konpromisoa hartu zutenean; hasieran, *Egunero* kalera-tuz, eta gero, *Berria*-ren sorrera eta garapena ahalbidetuz. Langileen ize-nean, *Egunkaria Aurrera* leloko elastiko urdinez jantzita, Lorea Agirre kazetariak hitz egin zuen, *Egunkaria*-ren itxieraren kronika kontatzen duen *Gezurra ari du* liburuaren idazleak. “Zazpi urte eta epaia gure alde, justiziarik ez dagoela berresten duen epaia. Dena gezurra zen; horixe da egia. *Egunkaria* itxi bezperan, Irak noiz bonbardatuko zain etxeratu ginen, jakin gabe biharamunean *Egunkaria* gerra prebentiboak azpian harrapatuko zuela”. Itxieraren garaian eta eguneroko lanean, *Egunkaria*-ko langileek izandako konpromisoa azaldu zuen. “*Egunkaria* itxi eta biha-ramunean, langileok argi esan genuen: gure konpromiso bakarra euskara-rekin eta informazioarekin daukagu. Hogei urte dira *Egunkaria* sortu zela, sortu genuela, gure izatearen ispilua goizero letra eta irudiz marrazten, gure eremu geografikoak zedarritzen: Mauletik Vianara, Karrantzatik Ataunera. Gure eremu sinbolikoa elikatzen. Gure berri eta munduaren berri, guretik eta guretzat ematen. Euskara jendearentzat mundu bat sor-tzen eta jasotzen. Euskararen herriarentzat, euskal herriarentzat. Euskaraz eta euskaratik. Egunero. Berria”.

Eskertzeko hitzak ere izan zituen Lorea Agirrek, *Egunero* egunkariaren lehen aleko azaleko titulua gogora ekarriz. “Utziezaidazue, inoiz idatzi nahi izan ez genuen baina inoiz idatzi dugun titulurik beteena gogora ekartzen: ‘Itxia, baina ez isildua’.

Ez isiltzen lagundu diguzuen, adoretu, babestu gaituzuen guztioi mila esker *Egunkaria*-ko langile guzti-guztien izenean. Eskerrik asko. Moltes gracias. Gracias”.

Esker ona izan zen ekitaldiaren haria. Eman eta jaso. Herri batzordeen izenean, Agus Perez igo zen ohaltzara, esker hitzak egiteko eta esker txaloak jasotzeko. Euskal Herritik kanpoko elkartasun batzordeen izenean, David Fernandez, Pedro Casas, Fernando Valiño eta Natxo Escortu.

Eskerrik asko, Euskal Herria!

Laguntza eta elkartasuna eskertzeko antolatatu zuten ekitaldia, eta eskerrik ematera igo ziren oholtzara *Egunkaria*-ko bost auzipetuak: Joan Mari Torrealda, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga. “Esker anitz, mila esker, eskerrik asko, guztioi. Zuek zaretelako sententzia honen meritudun nagusiak. Zuek gabe zer ginateke gu? Zuen babesari esker, *Egunkaria*-ren aurkako bidegabekeria Euskal Herrian indartsu entzun da; Euskal Herritik kanpora hedatu da, Europan eta munduan zehar, eta Madrileraino iritsi da. Eta Madrilen jakin dute herri oso bat zegoela auzipetuen atzean, herri oso bat zegoela epaituen aulkian, bere hizkuntzarekin, Europako hizkuntzarik zaharrenearekin, eta, hala ere, etorkizunerako proiektu zail baina esperantzatsuekin. Horretan jarduteak, hain zuzen, esperantzaren aldeko militantzian, hizkuntzaren eta kulturaren aldeko militantzian, eraman dituela auzipetuak akusatuen aulkira”. Torrealdaik irakurri zuen esker mezua, bost auzipetuen izenean. Hala ere, esker ona adierazi ez ezik, lortutako garaipenari

buruzko gogoeta bat plazaratu zuten Euskalduna jauregiko areto nagusian. “Munduko begiek ez gaituzte bakarrik ikusi une bakar batean ere. Herri oso bat ikusi dute auzipetuon atzean, herri oso bat ikusi dute akusatuen aulkian, eta injustiziaren gurpila abian jarri zuen Auzitegi Nazionalak atzera egin du. Ez da ohikoa, baina oraingoan atzera egin du. Zuoi esker, lagunok. Hori da bidea. Indarrak bildu. Bat egin. Ez gara nor inori leziorik emateko, baina gurean emaitza ona izan du”.

Ospatu beharreko garaipenaren ondoan, oraindik gelditu gabeko bidegabekeriaren gurpila ere izan zuten gogoan. Lehenik, *Udalbiltza auzia* aipatu zuten. “Gu bezala, 2003an atxilotu zituzten, hilabete pare bat geroago. Gurearen antzeko akusaziozko oinarria daukate. Gure eskarmentutik, zorte ona opa diegu, gure zorte bera. Bihoazkie elkertasuna eta animoa”. Azkenik, *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoko lagunak izan zituzten gogoan. Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria eta Txema Auzmendirekin batera, Joxe Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Begoña Zubelzu eta Fernando Furandarena daude auzipetuta sumario horretan. Bertan zeuden guztiak, eta oholtzara igo ziren, bildutakoen babeseta jasotzera. “Bigarren absoluzioarekin amaitu behar du gure historiak”. Itxaropen mezua ekitaldi amaieran. Eta itxaropenak ere igo nahi izan zuen oholtzara txalo zaparrada entzuten ari zen bitartean. Elenek, Mikel Sorozabalen lau urteko alabak, aulkien babesetik alde egin zuen eta oholtzaraino joan zen, aitarenganaino, ondoan egotera, besotan har zezan. Itxaropenaren irudia.

*Amesgaiztotik esnatu gera
eta nekatuta gaude
egunsentiak ematen duen
itxaropenaren jabe*

(Sebastian Lizaso)

Kronologia

2003

Otsailak 20. *Euskaldunon Egunkaria* euskarazko kazeta itxi eta hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak, Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz. Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Fermin Lazkano, Luis Goia (2006an hil zen) eta Inma Gomila izan ziren atxilotutakoak. Haien guztien diru kontuak ez ezik, artean bizirik zen baina osasunez makal zebilen Martin Ugaldereen kontuak ere blokeatu zituzten.

Otsailak 22. Donostiak gainezka egin zuen *Euskaldunon Egunkaria* itxi izanaren kontrako manifestazioan. Ordura arte gogoratzen den manifestaziorik handiena izan zen, eta hainbat alorretako ordezkari-tza zabala izan zen bertan.

Otsailak 24. Pello Zubiria ospitalean zegoela jakin zen, larri eta inkomunikatuta. Gaixotasun kronikoa du: espondilitis anquilopoitikoa.

Otsailak 24. Joxemi Zumalabe eta Joseba Jakaren diru kontuak blokeatzeko agindu zuen Juan del Olmo epaileak. Biak hilda zeuden.

Otsailak 25. Guardia Zibilaren esku bost egun inkomunikatuta egin ostean, Torrealdai, Uria, Oleaga, Auzmendi eta Alegria baldintzarik gabe espetxeratzeko agindu zuen epaileak. Aldiz, Otamendi, Gomila, Lazkano eta Goia aske utzi zituzten, bermea ordainduta. Zubiriari 7-2 orduz luzatu zion inkomunikazioa epaileak. Guardia Zibilaren esku izan zituzten denboran tortura eta tratu txarrak eman zizkietela jakinarazi zuten.

Otsailak 27. Pello Zubiria espetxeratzeko agindu zuen epaileak, baina erietxean eduki zuten, pneumoniarekin eta mugitzen ez zela, Zainketa intentsib oetako unitatean. Martxoaren 7an eraman zuten espetxera.

Martxoak 11. *Egunkaria* beste sei hilabetez ixteko agindu zuen Juan del Olmo epaileak, eta espetxeratzeak berretsi.

Martxoak 14. Joan Mari Torrealdai eta Txema Auzmendi aske utzi zituzten, 12na mila euroko bermea ordainduta.

Martxoak 18. Pello Zubiria aske gelditu zen, 12.000 euroko bermea jarrita.

Uztailak 17. Epaileak beste sei hilabetez luzatu zuen *Egunkaria*-ren itxiera.

Uztailak 21. *Euskaldunon Egunkaria* -ri administratzaile judiziala ezarri zion Juan del Olmo epaileak.

Urriak 16. Martin Ugalde Kultur Parkearen eta *Egunkaria*-ren enpresa taldea a-

ren aurkako operazioa egin zuen Guardia Zibilak, Del Olmok aginduta, eta zortzi lagun atxilotu zituzten: Mikel Arrizabalaga, Angel Diez, Amando Hernandez, Mikel Sorozabal, Joxe Mari Sors, Mikel Azkune, Joanmari Larrarte eta Xabier Legarra.

Urriak 18. Milaka lagun batu ziren Donostian, polizia operazioaren kontra egindako manifestazioan.

Urriak 20. Eneko Etxeberria Egunkaria SAko abokatua atxilotu eta inkomunikatzeko agindu zuen Del Olmok, Auzitegi Nazionalean bertan.

Urriak 21. Arrizabalaga, Diez, Etxeberria eta Hernandez bermerik ordaindu gabe libre geratu ziren. Sorozabal eta Sors 30na mila euroko bermea ordainduta, eta Azkune, Larrarte eta Legarra, berriz, hamabina mila euro ordainduta. Denak inkomunikatuta eduki zituzten.

Urriak 27. Del Olmo epaileak sekretupetik atera zituen *Egunkaria*-ri buruzko ekinbideak.

Azaroak 3. Xabier Oleaga espetxetik atera zen 3 0.000 euroko bermea jarrita. Xabier Alegriari 50.000 euroko bermea jarri zioten, baina hark preso jarraitu behar izan zuen, *Udalbiltza auziagatik*.

Azaroak 6. Auzia bitan zatitzea erabaki zuen Del Olmo epaileak: batetik, sumario nagusia —lehenengo operazioan atxilotutakoekin—, eta, bestetik, auzi ekonomikoa —bigarren operazioan atxilotutakoekin—.

Azaroak 30. *Euskaldunon Egunkaria*-ren egoitzak berriz miatu zituen Guardia Zibilak, Juan del Olmo epaileak aginduta.

Abenduak 17. Administrazioaile judiziala kendu eta berezko administrazioaileak jarri zituen Juan del Olmok, Egunkaria SAren eta Egunkaria S ortzen SMren likidazioa egin zezaten.

2004

Urtarrilak 30. Zigilua kentzea onartu zuen Juan del Olmo epaileak, enpresaren likidazioa errazteko.

Otsailak 18. Martin Ugalde K ultur Parkea kudeatzen duen Buruntzape S M enpresaren kontuak desblokeatu zituen epaileak.

Abuztuak 2. Iñaki Uria izan zen *Egunkaria auzia* zela-eta aske geratzen azkena. 2004ko abuztuaren 2an atera zen, 450.000 euroko bermea ordaindu ondoren. Apirilean 600.000 euroko bermea jarri zioten, hura abalekin ordaintzea galaraziz. Inoiz ez bezalako bermea zen. Azkenean, def entsaren helegiteei esker, bermea apur bat jaitsi eta abalen bidez ordaintzea ahalbidetu zion.

Urriak 15. Martin Ugalde *Egunkaria*-ren sortzaileetakoaren kontu korronteak desblokeatu zituen Auzitegi Nazionalak, hura hil eta 11 egunera.

Azaroak 4. Auzipetze autoa kaleratu zuen Juan del Del Olmo epaileak: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga eta Xabier Alegria auzipetu zituen instrukzio epaileak. Joñe xemi Zumalabe *Egunkaria*-ren sortzaileetako bat ere auzipetu zuen, hura hilik egon arren. Auzitik kanpo utzi zituen Inma Gomila, Luis Goia, Fermin Lazkano eta Martin Ugalde.

Azaroak 28. Auzia ixteko eskatu zuen defentsak, Espainiako Auzitegi Nazionalean erreforma helegitea jarrita.

Abenduak 25. Auzipetzeak berretsi zituen epaileak, Joñe xemi Zumalaberena salbu. Defentsa abokatuek dei helegiteak aurkeztu zituzten zigor aretoan.

2005

Otsailak 22. Europako Legebiltzarreko 22 diputatuk *Egunkaria auzia* artxibatze-ko eskatu zuten: Legebiltzarreko lehendakariorde Gerard Onestak, lau talde politikotako kideek (Independentzia eta Demokrazia Taldea, Europako Aliantza Librea, Berdeak eta Europako Liberalen eta Demokraten Aliantza) eta talderik gabeko batek.

Urriak 19. Espainiako 61 diputatuk eta senatarik (EAJ, EA, Nafarroa Bai, CC, IU-IV-ICV, ERC, CiU, BNG, CHA taldeetakoak) *Egunkaria*-ren aurkako kasua artxibatze-ko eskatu zuten, ebazpen baten bidez.

Azaroak 18. *Egunkaria auzia* ixteko eskatu zuten Eusko Legebiltzarrean EAJk, EAK, EBk, EABk eta Aralarrek.

2006

Urtarrilak 26-27. Auzipetuen abokatuek jarritako helegiteak aztertu zituen Auzitegi Nazionaleko zigor arloko 2. salak. Akusazioek oinarriak ez zutela irizita, auziarekin aurrera jarraitzeak zentzurik ez zuela argudiatu zuten defentsak. Auzipetzea bere hartan uztea eskatu zuen, bestalde, Fiskaltzak.

Otsailak 22. Defentsaren dei helegiteak atzera bota, Del Olmoren tesiak bere egin, eta auzipetzeak berretsi zituen Espainiako Auzitegi Nazionaleko zigor salak.

Abenduak 14. *Egunkaria* ixteko arrazoirik eta deliturik ez zegoela aitortu, eta auzia ixteko eskatu zuen Miguel Angel Carballo Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskalak. Auzipetuek erregabatzat jo eta epaiketarik ez egiteko eskatu zuen.

2007

Martxoak 29. *Egunkaria*-ko hiru langile ohi inputatu eta deklaratzera deitu zituen Del Olmok, auzi ekonomikoaren barnean: Ainhoa Albisu, Fernando Furundarena eta Begoña Zubelzu.

Martxoak 30. Epailearen aurrean deklaratzeari uko egin ostean, etxera itzuli ziren Furundarena, Albisu eta Zubelzu.

Maiatzak 10. *Egunkaria* auziko sumario nagusian epaiketa egitea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak. Fiskaltzaren iritziaren kontra hartu zuen erabaki hori, Dignidad y Justicia herri akusazioen eskari hutsez.

Ekainak 14. Fiskalak ez zuen akusaziorik aurkeztu sumario nagusiko kalifikazio idatzian.

Irailak 19. Auzi nagusiko zazpi auzipetuentzat hamalau eta hamabi urteko espetxe zigorrak eskatu zituen Dignidad y Justicia, ETako kide izatea leporatuta.

Urriak 27. Dignidad y Justicia herri akusazioak 184 urteko espetxe zigorra eta 234.530.008 euroko isuna eskatu zuen auzi ekonomikoko zortzi auzipetuentzat.

Azaroak 13. *Egunkaria*-ren auzi ekonomikoan inhibitzeko eskatu zion Fiskaltzak Espainiako Auzitegi Nazionalari. ET Arekin zerikusirik ez duenez, auzibide arrunta behar duela argudiatu zuen. Defentsako abokatuek ere gauza bera eskatu zuten.

Azaroak 28. Del Olmok auzi ekonomikoan epaiketa egitea erabaki zuen, prozedura laburtuaren bidez. Zortzi lagun epaitzea ebatzi zuen: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Joaquin Mari Sorrosalbe, Mikel Sorozabal, Ainhoa Albisu, Bego Zubelzu eta Fernando Furundarena.

2008

Urtarrilak 24. Salak erabaki zuen auzi ekonomikoaren epaiketa Auzitegi Nazionalan egitea.

Otsailak 20. *Egunkaria* itxi zuteneko bigarren urteurrena bete zen. Hainbat lagunek eta eragilek elkarretaratzera egin zuten urteurren hartan ere Andoainen (Gipuzkoa), Martin Ugalde Kultur Parkean. Eusko Jaurlaritzak berriro eskatu zuen auzia artxibatzeko.

2009

Apirilak 15. Egunkaria-ren auzi ekonomikoan hainbat eginbide berriro egiteko agindu zuen Auzitegiak, auzi horretan Uriari, Auzmendiri eta Torrealdairi ez zela-ko deklaraziorik hartu.

Maiatzak 12. Auzi ekonomikoko hiru inputaturi lehen aldiz deklarazioa hartu ondoren (Joan Mari Torrealdeai, Iñaki Uribe eta Txema Auzmendi), auziarekin aurrera egitea erabaki zuen Eloy Velasco epaileak.

Ekainak 23. Sumario nagusian, epaiketa aurreko azken auzi saioa egin zuten Auzitegi Nazionalean, 2. salako epaimahaiaren aurrean (Javier Gomez Bermudez, Ramon Saez Valcarcel eta Manuela Fernandez epaileek osatua). Carballo fiskalak auzia behin betiko ixteko eskaera egin zuen. Iñigo Iruin eta Jose Mari Elosua *Egunkaria*-ren defentsa abokatuek ere bai. AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioek epaiketa egiteko eskatu zuten.

Uztailak 30. Espainiako Auzitegi Nazionaleko zigor arloko 2. salako epaimahaiak *Egunkaria auziaren* epaiketa egitea erabaki zuen. Pello Zubiria eta Xabier Alegria auzitik kanpo utzi zituen: aurrenaren kasuan iraingintzat jo zuelako kasua, eta bigarrenaren kasuan ETAKo kide gisa epaituta zegoelako aurretik ere (18/98 auzian). Bost auzipetu geratu ziren, beraz: Joan Mari Torrealdeai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga.

Uztailak 31. "Sekular abandonatu ez gaituen euskal gizarteari bere laguntza, arnasa eta babesaren beharrea jarraitzen dugula esan behar diogu, hemendik epaiketara begira bereziki", adierazi zuten bost auzipetuek Andoainen egindako agerraldian. "Euskara sustatu izanaren errudun, euskal kultura sutsuki sustatu izanaren errudun, euskal hedabidegintzan gartsu jardun izanaren errudun... bai. Baina euskara sustatzeak, euskal kultura sustatzeak, euskal komunikabidegintzan jarduteak ez gaitu ETAKo bihurtzen, tesi polizialak eta herri akusazioak baiez-tatzen duen moduan".

Abenduak 15. *Egunkaria*-ren kontrako epaiketa hasi zen, Madrilan, Espainiako Auzitegi Nazionalean. Joan Mari Torrealdeai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga auzipetuek deklaratu zuten. *Egunkaria*-k ETArekin ez zuela loturarik izan adierazi zuten. Babes handia jaso zuten Madrilan, Euskal Herriko eragile asko joan baitzen.

Abenduak 16. Epaiketako bigarren saioa. Akusazioen lekukoak hasi ziren deklaritzen.

Abenduak 19. Manifestazio erraldoia egin zen Bilbon, *Egunkaria*-ren epaiketaren aurka eta auzipetuen alde. Milaka eta milaka lagun batu ziren. Joan Mari Torrealdeai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleagak orduan ere babes zabala eta askotarikoa jaso zuten. "Bildu beharra dauka herri honek", esan zuen Torrealdaik, auzipetuen izenean. "Ez dugu nahi gure aurkako zigorraren bitartez euskalgintzaren aurkako zigorrari bidea etorkizunean ireki diezaioten".

2010

Urtarrilak 12. Epaiketako hirugarren saioa. Akusazioek eskatutako lekukotasunen azken txanda.

Urtarrilak 22. Elkartasunezko ekitaldi sinbolikoa Arantzazuko santutegian, *Egunkaria*-ko auzipetuen alde. Orharri, euskal gizartearen, eta, bereziki, euskal kulturaren ordezkaritza zabala elkartu zen euskararen *gotorlekuan*.

Urtarrilak 25. Epaietako laugarren saioa. Defentsak eskatutako lekukoaren hasiera.

Urtarrilak 27. Epaietako bigosgarren saioa. Lekuko frogaren amaiera. Prokuraduraren eritufroga eta froga dokumentala.

Otsailak 1. *Egunkaria*-ren aurkako epaiaketa amaitu zen, aldeek Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaimahaiaren aurrean ondorioak azalduta eta bost auzipetuek azken hitza esanda. Fiskalak eta defentsak auzipetuen absoluzioa eskatu zuten, haien aurkako frogarik ez dagoela iritzita. Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek, aldiz, 12 eta 14 urte arteko kartzela zigor eskaerak egin zituzten auzipetuentzat. "Argi geratu da letra gizonak garela, ez arma gizonak", esan zuen Joan Mari Torrealdai auzipetuak bukaeran.

Apirilak 12. *Egunkaria*-rentzat absoluzio epaia eman zuten Javier Gomez Bermudez, Ramon Saez Valcarcel eta Manuela Fernandez epaileek. Bost auzipetuak errugabetzat jo zituzten, eta *Egunkaria* ixteko lege heldulekurik ez dagoela esan zuten.

Apirilak 25. Absoluzioa ospatzeko eta auziak irauniko den bitartean auzipetuek jasotako babes, elkartasun eta laguntza eskertzeko ekitaldia egin zen Bilboko Euskalduna jauregian.

Maiatzak 4. Herri akusazioek Auzitegi Gorenean helegiterik jarri ez zutenaz, Auzitegi Nazionalak *Egunkaria auzian* ebatzitako epaia irmo bilakatu zen.

Maiatzak 5. Auzitegi Nazionaleko Jose Maria V azquez Honrubia magistratuak auzi ekonomikoa epaitzeko eskumenari uko egin zion, eta Gipuzkoako Lehen Urralde Auzitegiaren alde inhibitu zen.



Amesgaiztoa. Egunkaria auziko epaiketaren kronika liburua inoiz egin behar ez zen epaiketa baten kronika da. Amesgaiztoak zazpi urte iraun du, batez ere, akusatuen aulkian eseri diren auzipetuentzat: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga. Epaiaketak amaiera ona izan badu ere, *Egunkaria auzia* ez da amaitu, atal ekonomikoa itxi gabe baitago. Liburu honetan, epaiketaren puzzlea osatuta aurki daitezke: auzipetuen bizipenak, tortura testigantzak, korapilo juridikoa, korridoreetako zertzeladak, elkartasunaren itzala, oroitzapenak...

Pello Urzelai Agirre (Bilbo, 1961) ibilbide luzeko kazetaria da. Egun, *Berria* egunkariko Politika saileko erredaktoreburua da. *Egunkaria auziko* epaiketaren saio guztiak jarraitu zituen, beste lankide batzuekin batera. *Egunkaria*-ko kazetaria izan da, hasiera-hasieratik itxi zuten arte. Aurretik, *Hemen* astekarian lan egin zuen eta *Argia* aldizkariko kolaboratzaile izan zen. *Su-etenaren apustua* liburua (*Egunkaria*, 1999) idatzi du, eta *Konponbidearen talaia* bloga elikatzen du, 2005eko urriaz geroztik.

berria

